



Aste honetan hasiko da CSIren pribatizazioa

Aste honetan erabakiko du Espainiako Gobernuak Frantziako Usinor eta Luxemburgoko Arbet enpresen artean zeini salduko dion CSiko kapitalaren % 35. Josep Pique Industria Ministroak adierazi duenez, bi eskaintzak «onartzeko modukoak» dira, bai enpleguaren aldetik bai industri proiektuaren aldetik.

Erabakia hartu ondotik, Espainiako Gobernuak kontsulta epea zabalduko du sindikatuekin eta CSIren lantegiak dituzten autonomi el-

CSI-Transformados da eskualdeko lantegirik haundiena. 1.600 langile enplegatzen ditu gaur egun Lesaka, Zalain eta Legasako faktorien artean

karteetako gobernuekin, zehaztasunen berri emateko. Hasierako % 35 hori salduko da eta gelditzen dena, Espainiako sektoreko enpresen edo komunitate autonomo-
10



Inaugurazioa Zalaingo fabrian

Asteartean inauguratu zituzten ofizialki Zalaingo fabrian egindako azken berrikuntzak. Faktoria honetan tuboa egiten dute, eta «datozen urteetan teknologikoki aitzindari izaten segitzeko» 3.500 milioi pezetako inbertsioa egin berri du gobernuek.

4 Erreportaia: Ezkondu gabeko bikoteak baztertzen ditu legeak

27 Kultura: Joxe Mari Apezetxea pintore erratzuarrarekin elkarrizketa

28 Kirola: "Herri kirolean gazteak laguntzarik ez badu, gibelerat egiten du aisa"


Horrelaxe pentsatzen du Patxi Larretxeak, Arraiozko Herri kirolari ospetsuak.

TTIPI-TTAPA honekin batera: Bera eta Leitzako gehigarriak





Argazkia:
GOIKO



**Berako Udalak
besta onak
opa dizkizue
Beratar eta
bisitari guziei**



Elizondo.

• Saskaitz Plazan, pisua salgai.
9.000.000.



Etxalar. • Herritik 10 Km.tara, ba-
serri eder bat bere terrenoarekin.



Bera.

• Matxako
ostatuaren
gaineko
bigarren
pisua salgai,
erabat
berritua.
12.000.000

Beran edo Lesakan pisuak
hartuko genituzke errentan,
konfidantzazko lagunentzat, ongi
ordaintzeko.



ADOS

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 451841 • 908.77.86.53 • Parrokia 9, bajeran

DONEZTEBE



Doneztebe. • 80 m²ko bajera
200 m²ko baratzearekin salgai,
erabat berritua. Frontoi ondoan.



Narbarte. • Pisua salgai, bere
baratzearekin.




Elgorriaga. • Pisua, garaje eta
ganbararekin salgai. 13.000.000
negoziagarria



Elgorriaga.

• Etxe
adosatua
salgai.
13.500.000.
Aukerakoa.



Bera. • Lau logelako pisua salgai,
kanpoaldera begira. 15.000.000.
Iggailua eta trasteroa.



Bera.

• Pisu duplex
bat, bere
baratze eta
ganbararekin,
erabat
berria.



Sara.

• Etxe oso
bat eta
1.500 m²ko
eremua
salgai.



Elgorriaga. • Etxe honen
I. planta, bere bajerarekin salgai,
arras polita.



Mugairi. • Pisu hagitz eguzkitsua
salgai. 8.500.000.



Goizueta.

• Borda
salgai, ura
eta argia-
rekin.

DATUAK.....

❖ Cristina Mexikoko hiriburuan sortua da, eta 36 urte daramazki Rufino Prieto Telletxea beratarrarekin esposaturik.

❖ Erretiratu direnetik udako 6 hilabeteak Beran igarotzen dituzte, eta negua, berriz, Mexikon, han puskaz epelagoa izaten baita.

❖ Cristina euskara ikasten hasi zen hango Euskal Etxean eta hemen ere Ana Matxikote andereñoarekin klaseak hartzen ditu orain.

❖ Gaur egun dagoen krisi ekonomikoagatik ia inor joaten ez bada ere, euskaldun ugari bizi omen da Mexikon, eta Baztandar aunitz ezagutu omen du Euskal Etxean.

TESTUA:
ASIER GOGORZA
ARGAZKIA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN

✍ Cristina GOMEZ-LLATA de PRIETO Mexikoko Euskal Etxeko kidea

“Lan bila joan ziren euskaldunetatik, aunitz industriari bezala ari dira orain”

ERRAIGUZU, NOLAKOA DA MEXIKO?

Orain dela 40 urte Mexiko hirian 4 milioi pertsona bizi ginen, eta urteotan aunitz hazi da, inguruak kontutan hartuz 20 milioi pertsona bizi gara eta. Munduko hiririk haundi eta kontaminatuena da.

AUNIZTAN ETORTZEN ZARETE EUSKAL HERRIRA?

Orain, Rufino jubilatutako denean, bere jaioterrian, Beran egon nahi izaten du, eta nik berriz, hangoa naizenez, Mexiko hirira joan nahi dut. Orduan, udako hilabeteetan hemengo beroa probexten dugu, eta gero neguan han epelagoa eta idorrago egoten denez, harat. Han ez digu neguan euririk egiten, orain baizik, udan.

NOIZTIK ZARA EUSKAL ETXEKO KIDE?

Aspaldidanik, Rufino Mexikorat joan zenetik. Geroztik bera Euskal Etxeko lehendakari izandu da lau urtez.

NOLA SORTU ZEN EUSKAL ETXE HORI?

Aitzineko mendean San Ignacio de Loiola Euskal Elkarte zena, Euskal Etxe bihurtu zen 1907. urtean, elkarte zibil bezala. Mexiko Barruti Federalesko Euskal Etxeak 300-350 bat bazkide ditu egun; euskaldunak, euskaldunen se-



«Munduko hiririk haundi eta kontaminatuena da Mexiko».

nideak eta euskaldunen lagunak. Kirol instalakuntza gutti dagoenez, gazteak ez dira hainbertze hurbiltzen, baina bazkarietara edo koralararekin entsaiatzeko etortzen dira, eta baita dantzak ikastera eta egiten diren bestetara; Aberri Eguna, San Fermin, tanborrada, San Ignacio de Loiola...

» *“ Mexiko Barruti Federalesko Euskal Etxeak 300-350 bat bazkide ditu egun; euskaldunak, euskaldunen senideak eta euskaldunen lagunak.”*

EUSKARARIK ADITZEN AL DA HAN?

Bai, batez ere Bizkaia eta Baztan aldeko jende aunitz dagoelako. Euskal Etxean euskara ikasteko taldea sortu dugu, baina zaila da, hiria hagituz haundia delako eta andereñoak ez direlako beti etortzen ahal. Ni han aritzen nintzen ikasten eta Berarat etortzean ere segitu dut, garai batean Kristina Bonekin, eta gaur egun Ana Matxikoterekin. **ZE OFIZIOTAN ARITZEN DIRA HEMENDIK HARAT JOANDAKO EUSKALDU-**

NAK?

Mexikorat joan ziren euskaldun gehienak industriariak dira, eta baita okindegi, zapatadenda eta jatetxeen jabeak ere. Mexikon jaiok diren euskaldunak, aldiz, profesionalak dira aunitz eta aunitz, ikasketak dituzte. Duela 60 urte inguru joandakoek burnia lantzen zuten fundiziotan, bizkaitarrek batipat. Gero euskal sukaldaritzak ere fama haundia du; *bazkari eder bat, euskaldun jatetxe bat*, erran ohi da Mexikon.

Gaur egun gure gizartearen gehiengoak, teoriar behinik behin, ezkondu gabe elkarrekin bizi diren bikoteak onartzen baditu ere, norberari ordua iristen zaionean, elizaz esposatzea -kasu batzutan, Herriko Etxeetako juzgadoaren bidez- nahiago izaten du. Horretarako arrazoiak aunitz izan daitezke: erlijio sinismena batzutan, familia eta inguruaren presioa, hainbatetan eta legezko eskubideak eskuratzea, gehienetan. Izan ere, legeak ez baititu oraindik orain bikote guztiak berdinetik berdineratratzen. Espainiako Parlamentuan horretarako Ezker Batuak aurkeztutako Lege Proiektua eztabaidatu da, baina martxoaren 18an ezezkoa eman zitzaion. Uda ondoren bozkatuko omen da berriro.

TESTUA: AITOR AROZENA



Ezkongu gabeko bikoteek eta hauen seme-alabek ez dituzte elizatik edo epaitetik igarotzen direnen eskubide berdinarik, oraindik orain.

Ezkondu gabeko bikoteak baztertzen ditu legeak

Patxiku MITXELENA eta Juainas PAUL Zubietako alkate eta zinegotzi-ohiak



«Zubietan erregistroaren beharra sumatzen zen, ezkondu gabeko bikote aunitz baitaude»

Zubietako Herriko Etxean ezkondu gabeko bikoteendako erregistroa egitea ahobatez erabaki zen orain bi urte, Patxiku Mitxelena, orduko alkateak

erran digunez. «Beharra sumatzen zen, bikote aunitz baitaude Zubietan ezkondu gabe. Beraiek eskatzen zuten eta Herriko Etxetik horri soluzioa bilatzen saiatu ginen». Hortaz, Gasteizen gauza bere egin zutela ikasi zuten eta herrirako ekarri. Eskualdean lehenengo Herriko Etxea eta, momentuz, bakararra izan zen pausu hau ematen. Horregatik, Juainas Paul, garai hartako zinegotziak onartzen duenez, «herritik kanpo ez du askorako balio, ez

du eraginik. Baina gainerako herrietan erabaki bera hartuko balute, administrazioak ere zerbait egin beharko luke».

Mitxelena eta Paulen ustez, ezkondu nahiz ezkondu gabeko bikoteek legalki eskubide berberak izan beharko lukete eta hori zen dekretu honen helburu nagusia. Dekretuak berak dioenez, «ezkondu gabeko bikote horiek eta sortzen dituzten familiak, ezkondata dauden bikoteek duten babes bera izan behar dute, gizarte, ekonomia eta zuzenbidearen aldetik. Hau guztia, norberaren askatasuna garatzeko eskubidea eta legearen aurreko berdintasunaren eskubidea bermatzeko». Azken finean, Konstituzioak horretara behartzen ditu Bostere Publiko guztiak.

eskubideen aldetik, beraz, aunitzez hobe daude «legez» esposatuta daudenak: 15 eguneko oporrak beraien lanean, errenta aitortpena elkarrekin edo bereiz egiteko aukera, senarra edo emaztea eri dagoenean baimen berezia eskatzeko eskubidea, adibidez. Gainera, bietako bat hiltzen denean, bertzeak alarguntasun pentsioa eskuratzeko eskubide osoa du. Ez da gauza bera gertatzen ezkondu gabeko bikoteekin. Halere, zenbait herrietan, Udaletxeak legegari aurreratu zaizkie, eskubide berberak aitortuz bikote guzietan. Orain hiru urte Gasteiz izan zen aitzindaria Espainia



«Ezkundu gabeko bikoteei gure ikuspegi kristaua eskaini behar diegu, kondenatu gabe, errespetoz eta maitasunez»

Elizaz ezkontzen direnak ze arrazoi dituzte, zure ustez?

Parrokietara ezkontza eskatzera agertzen direnen artean, arrazoiak nahasturik agertzen dira. Batzuetan, bai, fededun sentitzen direlako eta beren ezkontz-bizitza kristauki aurrera eraman nahi dutelako eskatzen dute sakramentua. Bertze batzuk, nahiz ttikitan bataiatuak izan eta Sendotza ere egin, fede konpromiso haundirik gabe, behar bada zalantza betetik. Elizara agertzen dira ezkontzeko orduan, beharbada gurasoak bultzatuta edo, askok erraten

duten bezala, beti modu hortara egin delako edota elizan dena politagoa delako. Bertze kasu batzuetan, bikoteko batek Elizaz nahi du eta bertzeak modu batera edo bestera berdin zaiola agertzen du. **Zer eritzi duzu ezkontu gabe bizi diren bikoteei buruz?** Errealitate berria dugu hau gizartean eta badirudi gero eta indar gehiago hartzen ari dela. Elizak, gotzaien bidez gauz aunitz erran du errealitate honi buruz. Zergatik gertatzen den galdetu ezkerro, arrazoi aunitz daudela erran behar da, bai psikologi aldetik, behar

bada batzuek ez dute bere burua nahiko heldua ikusten bertirako konpromiso bat hartzeko; ekonomi aldetik, etxe bizitzak garestiak dira eta gazteek lanpostu bat lortzeko zailtasunak dituzte; gizartean eta elizan instituzionala den gutzia ez onartu nahia, betirako loturarik gabe bizi nahia... Hau dena, gizartearentzat eta kristauontzat kritika bat ez ote da? Zerbait eskatzen digu. Kristauoi, gure elkartearen barrera begiratu, gure fedea sendotzea eta ezkongaien pretaeran aurrera egitea eta, kanpora begiratu, egoera honetan dauden bikoteengana errespetoz eta maitasunez hurbildu, bikote bakoitzaren egoera ongi ezagutzen saiatu eta, kondenatu gabe, gure ikuspegi kristaua eskeini. Urtero, otsaileko igande arratsetan gai hok eta bertze batzuk aztertzeke Oharritzen ospatzen da ezkongaiendako prestaera.

osoan. Eskualdeari dagokionez, Arabako hiriburuko eredu euskaratu eta hemengo egoerara egokitu ondok, Zubietako Udaletxeak Ezkontu gabeko bikoteen udal erregistroa sortzea erabaki zuen 1995eko martxoan. Geroztik lau bikote apuntatu dira erregistro honetan, Mikel Belarra, Zubietan eta Iturengo idazkariak adierazi digunez. «Berez ez da kopuru ikaragarria, baina kontuan hartu behar da Zubietan, banaz bertze urtean elizaz ezkontza bat izaten dela».

Zubietako alkatearen dekretu hau Espainiako Konstituzio 39.1 artikuluan oinarritzen da: *Gizon-emakume orok familia osatzeko eskubidea du, maitasunezko elkartze iraunkorren bidez.* Elkartze hau, historikoki, ezkontza moduan gauzatu bada ere, gaur egun, «elkarrekin bizitzeko modu aunitz» daudela zioen dekretuak, «eta bikote aunitz daude, ezkontu gabe elkarrekin bizi direnak, familia bat sortuz. Ezkontu gabe egoteagatik, harreman pertsonal horiek ez ditugu gaitzesi behar eta elkartze horietatik sortzen diren zuzenbidezko betebeharrak gutxietsi». Bertze betekizun arrunten artean, bikoteko kide bat edo biak Zubietan erroldatua egotea es-

katzen zen eta sexu bereko bikoteak ere onartzen dira erregistro honetan, «Konstituzioak ematen duen babes honek, sexu bereko bikote iraunkorrek ere hartu behar ditu, nahiz eta gure araudiak honen gaineko aipamenik ez egin» Zubietako dekretuaren arabera.

Jende gehienak elizaz ezkontzea nahiago du

Egia da oraindik jende gehiena elizan ezkontzea nahiago duela. Espainian CIS erakundeak egindako inkestean arabera, harreman egonkor bat mantentzerakoan, lauti hiru elizaz ezkontzea nahiago du, %12,6 juzgadoan ezkontzea eta %9,5 bertzerik ez da ezkontu gabe bikotearekin bizi nahi duena. Halere, inkestutakoan %77k ez du gaizki ikusten bikoteak ezkontu gabe elkarrekin bizitzea. Hori bai, **n o r b e r a k p a u s u a eman be-**

Argazkiak, bideoak, bidaiak, jantziak, bazkariak... hauek denak ezkontzak duen zentzua estali dute. Sakramentua ospatzeko, elizaz ezkontzeko, fedea eta elkar maitasuna behar dira, bertze guztiak sobera dira.

Javier AZPIROZ
(Elizondoko apezra)

har duenean gehienak elizan (%61,9) edo juzgadoan (%6,7) esposatzen dira. «Bai, nahi dut» errateko arrazoi nagusiak familiaren presioa (%61) eta gizartearena (%47) omen dira. Galdetutakoan %84,5ak ezkontza modaz pasatua ez dagoela uste du. Javier Azpiroz, Elizondoko apezrak dienez, «begibistan dago denetik dagoela, baina nere ustez, gehienak Elizaz ezkontzen dira oraindik». Leiztan sortutako apez honen ustez, halere, ezkontza kontsumoarekin sobera lotu da azken urteotan. «Berez ez luke hala izan behar. Egia errateko, ezkontzeko, sakramentua ospatzeko, elkar maitasuna eta fedea dira beharrezkoak, bertze guztiak sobra dira, bainan, hontan ere kontsumismoaren kutsua agertzen zaigu. Argazkiak, bideoak, bidaiak, jantziak, bazkariak... Hauek denak, ezkontzak duen zentzua estali egin dute».

Elizan edo juzgadoan ezkontu, espustu gabe elkarrekin bizi... Bikotearen erabakia izan beharko luke, baina legeak ez ditu berdin tratatzen. Belgika, Holanda, Noruega edo Danimarka bezalako herrialdeetan Gizarte Segurantzaren onurak denendako ziurtatuak daude. Jarraitu beharreko eredu? ■



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.400 ALE

Argitaratzailea: ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Internet:

<http://www.encomix.es/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi@encomix.es

e-mail:

ttipi@mail.sendanet.es

uzendaria: Joxemanuel Iri-

oi. **Publizitatea:** Miren Kar-

nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

Arozena, Asier Gogorza, Joxe-

manuel Irigoien. **Administrazioa:**

maia Goia. **Erredakzio taldea:**

Pello Apezetxea, Juainas Paul,

Kristina Boan, Bittori Telletxea.

erriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena, Juana Mari

Maiz, Ainhoa Mutuberria, Iban

Maiz, Txema Aldabe, Patxi Otxan-

oren, Isabel Maia, Josune Etxe-

ste, Pablo Mendiburu, Joseba

Marabide, Alizia Olaizola, Mar-

ri Etxenike, Koro Irazoki, Mi-

kel Gerendiain, Jacqueline, Eli-

abet Iturria, Garbiñe Maiz, Os-

kar Txoperena, Pello Apezetxea,

Aitor Arozena, Kristina Boan.

olaboratzaileak: EHNE Nafa-

oa, Mikel Bezunartea, Joxe Ja-

ier Etxeberria...

primategia: Graficas Ona.

tipi-ttapak ez du bere gain har-

ren derrigorrez, aldizkarian adie-

zitatiko erranen eta eritzien eran-

tzukizunik.

akunde Laguntzaileak: Be-

ra, Leitza, Goizueta, Areso, Baz-

an, Urdazubi, Zugarramurdi eta

arako udalak, Bortzirietako Eus-

ara Mankomunitatea, Malerre-

ako Zerbitzu Mankomunitatea,

ugarramurdiko Akelarre Elkar-

ea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNeko GAIA

Bikotearekin bizitzeko aukera aunitz...

Tradizioagatik elizaz espostu nintzen eta orai gauza bera eginen nuke



M^o Carmen IRUNGARAI
Iruñea. Elizaz ezkondu

Elizaz ezkondu
nintzen orai 18 urte.
Tradizioaz eta horrela edukatu

gaituztelako erabaki genuen elizaz espostea, pentsa ez bazen horrela! Gaur egun, seguraski, gauza bera eginen nuke. Hala ere, ezkondu gabeko bikoteek eskubide berdinak izan beharko luketela uste dut. Zubietan egiten ari diren erregistro hori onuragarria da. Ezkontzerakoan eskubide batzuk eskuratzen dituzu legearen aldetik, hori da bere abantaila. Ezkondu gabe bikotearekin bizi bazara berriz, badirudi errexagoa dela, gauzak gaizki badoazi, bereixtea. Beraien arteko tratua da eta bakoitzak bere aldetik segitzen du. *Zerbaitegatik ez ziren espostu erranen luke jendeak.* Baina elizan edo juzgadoan espostua bazara, desberdina da. Gizarteak ere bertzeko modu batera begiratu luke. Tramiteak egiterako momentuan ere zailagoa izanen da. Ezkontza nolakoa izan behar duen bikoteak erabakitzen du. Gaur egun gonbidatu gehiago izaten dira, jende gehiago ezagutzen delako eta ez duzu gaizki gelditu nahi. Halere, badira arropa eta bazkariaren aldetik ezkontza sinplea egiten dutenak.

Neretzat berdina da paperean paratu edo ez, baina legearentzat ez



Inaxio AGARA
Bera. Juzgadoan ez.

Elkarrekin bizi-
tzen hamabortz
urte pasatuak ge-
nituen eta, batez

ere, zenbait gauzetan traba aunitz genituelako erabaki genuen juzgadoatik pasatzea. Legearen aldetik, haurren paperak zirela, bertzeta zela, dena traba... azkenean pausua eman genuen. Neretzat berdina da paper batean paratu edo ez paratu, baina legearen ikuspegitik ez da horrela. Lege aldetik hobekiago kontuzten zarelara da ezkontzeak dakarren abantaila bakarra, ez du bertzetik. Neretzako eskubide berberak izan beharko lituzke ezkondua dagoen bikoteak, nahiz ezkondu gabe dagoenak. Apezekinez naiz inoiz ongi moldatu eta elizan ez egitea erabaki genuen. Ezagutzen dut jende aunitz elizan esposten dena eta gero entierrotan bakarrik agertzen dena mezara, ez duena sinisten. Gehien bat familiarengatik egiten dute, baina hori, hipokresia da. Gainera, gaur egungo ezkontzak izugarritzko montajea dira, bazkaria, argazkiak... Guk ximple-ximple egin genuen, haurrak hartu, bertzeko bikote bat bere hurrekin lekuko gisara, juzgadora joan eta gero elkarrekin bazkaltzera eta aire!

Ez espostea ez du erran nahi familia bat sortu nahi ez dudarik



Isabel ELIZALDE
Zubietan. Ezkondu gabe

Ezkondu gabeko
bikoteak, legearen
aldetik nahiko
gaizki gaude eta

Zubietan honelako aukera bat sortu zenez, bertan erregistratzea erabaki genuen. Esposten zarenan, etxea bien izenean paratzen ahal duzu, Seguridade Soziala, paroa akitzen zaizunean baduzu bertzeko diru sarrera bat... hainbertzeko gauza dira. Erregistroan izena ematerakoan, oraindik orain legalki ez dugu protekzio haundirik, baina nonbaitetik behinpein hasi gara, errekonozitzeko hasiera da. Zubietatik kanpo ez du eraginik oraindik, baina noizbait lege on bat egiten badute, ezkondu gabeko bikoteak errekonozituz, zerbaiterako balioko duela pentsatzen dut. Eskubide berdinak beharko lukete espostu nahiz ez espostu, azken finean bakoitzak badu bere libertatea. Norberaren aukera da eta nik ez espostea erabaki badut ere, ez du erran nahi, bikote bat ez dudarik edo familia sortu nahi ez dudarik. Nire familian ni betiko moduan espostea nahiago zuten, baina zuk baduzu pentsatzeko modu bat eta zure aukera egiten duzu. Noski, elizaz espostutakoak ere errespetatzen ditut.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
 - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 70 50

BURLATA:

- ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328-133346. Faxa: 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

IRAKURLEAK MINTZO

Don Basilio Jaunari (Sunbillako apezai):

Duela hilabete bat Sunbillako elizan jende aunitz elkartu ginen Jon Bertiz gazteari azkeneko agurra emateko. Jon ezagutzen genuen guztiok triste sentitzen ginen, momentu latzak ziren denentzat, eta zuk min hori arindu beharrean areagotu egin zenuen. Kritika mingarriak entzun behar izan genituen gazteoi buruz. Elizkizun batetan hagitx gogorrak dira erran zentituenak: droga, alkohola, kotxea, gurasoek ematen diguten «libertatea»..., guzti horiek soberan zeuden, baita Ortega Lararen komentarioa ere. Lotsagarria iruditzen zait han entzundakoa, gazteok ez omen dugu errespetorik, baina zuk gutxiago izan zenuen bere guraso eta lagunekin.

JONEN SENIDE BAT



Lesakako ikastolan...

Lesakako guraso aunitzek, uda honetan, beraien seme-alabak aisialdi talde baten esku utzi dituzte, haurrak udan zehar gauza interesgarri eta dibertigarriak egin ditzaten. Lesakako haur horiek bezala, bertze Euskal Herriko herri aunitzetako haurrek ere ekitaldi eta ateraldiak egiten dituzte. Duela bi aste, Durangoko haur talde bat etorri zen egun pare bat pasatzera. Egund baterako prestatuta zeukaten planaren barruan, haurrek marrazketarekin kontaktuan jartzeko eta marrazten ikasteko, beraien monitoreek, "grafiti" bat egiteko asmoa zuten. Irain eskolen gainaldean dagoen frontoian egiteko ideia zeukaten (herri-

ko norbaitek horrela gomendatuta) baina ikastolako frontoi ttikira iritsi ziren. Frontoitxo horren ondoan denborak beltzatutako paretara bat zegoen, eta "grafitia" bertan egin zuten. Hori jakin bezain laster, ikastolako guraso batek, bertze

batzuei galdetu, eta Durangoko taldeari, "UDA EUSKALDUNA" zioen "grafitia" borrazteko agindua eman zien. Guraso horrek eta bertzeren batek, polita zela bai, baina ez omen zela haurrentzat egokia pentsatu zuten.

Zergatik ez da egokia haurrentzat? Ze pedagogi jakintza dauka guraso soil batek (edo batzuk) haurrentzat egokia den edo ez den, bi ordutan erabakitzeko? Jakingo balute, Lesakako haurrek "grafiti" hura egiten ikusiz zenbat disfrutatu zu-

ten eta Durangokoek borrazterakoan ze pena hartu zuten agian ez lukete erabaki hori hartuko.

LESAKAKO IKASTOLAKO IKASLE OHI BATZUK



PENTSIO PLANAK

Nekazari, abeltzain

Zure etorkizuna segurtatzea gure planetan sartzen da

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin
Nafarroako Rural Kutxan etorkizuneko planik hoberena dugu zuretzat: nekazari eta abeltzaintzat bereziki egindako Pentsio Plana, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin.

Neurrira egina
Zure neurrira egindako Plana. Zure etorkizuna segurtatzea gutiago kostako zaizu.

Abenduaren 3a arte
Zatuz Rural kutxara, informa zaitetz eta aukeratu zure Pentsio Plana.

 **NAFARROAKO RURAL KUTXA**

 **Martin LEGARRA** *Elkarriko kidea*

Azkeneko egunetako gertakarietarako buruz



Azkeneko egunetako gertaera, la-tza, odoltsuak eta gogorak pasatzen diren zenbait erre-flexio edo gogoeta egin nahiko genituzke.

Pertsonak sufritu duten oinaz sakon guziaz errespetatu eta konpartituz, au-

ker abertzaleak eskatzen duena deuseztatu etab... Hoiak lehenago ere jorratutako bideak dira eta ez dute ondorio onik eman. Sentimendu osoz Miguel Angel Blanco-ren hurbileko senideak erran zuen bezala heriotza honek baliodezan gure gizartean bakea lortzeko. Uste dugu presoen senideek sentimendu bera adierazi dutela zenbait aldiz.

Sentimendu hoietan errotuz orain erre-flexioaren bitartez bide berriak eta konkretuak bilatzen saiatu behar dugu bakoitzari bere justu bat elkarriketaren bidez lortzeko.

Dei hau luzatzen diegu politikoei eta prentsari errespon-sabilitatez jokatzeko eta batez ere pertsona bakoitzari, bere eritzia ematen auzartzeko, bere erakundearen idearioa alde batera utzita.

Espazio berri batzuk bilatu eta aurkitu behar ditugu, gatazkan polarizatuta dauden artean zubi izan daitezkeen gizarte zibilari ahotsa eta boterea eman bezala nora eta nola nahi duen adierazteko.

Espazio hoiaren konkretzioa gizartearen gidaritzat beren burua hartzen dutenei dagokie, politikoa, sindikatua, erakunde kulturala etabar... Eta pertsona bakoitzari ere dei egin nahi genioke, benetako ardura baldin badu, utzikeria astinduz parte hartzera.

Arduradun politikoei eta zenbait gizarteko sektorek ez dute, gure ustez, ezer berririk soluziobide bezala proposatu: HBren isolamendua, Euskadiko parlamentuko giza eskubideen komisioren lana zalantzan jartzea, indarkeriaz polizialki edo sozialki ezker abertzaleak eskatzen duena deuseztatu etab... Hoiak lehenago ere jorratutako bideak dira eta ez dute ondorio onik eman.

rrera egiteko beharra ikusten dugu.

Arduradun politikoei eta zenbait gizarteko sektorek ez dute, gure ustez, ezer berririk soluziobide bezala proposatu: HBren isolamendua, Euskadiko parlamentuko giza eskubideen komisioren lana zalantzan jartzea, indarkeriaz polizialki edo sozialki ez-

 **Jon GORTARI** *Oronoztik*

Gernika...



Gernika bonbardatu eta erre-zuteneko hirurogeigarren urteurrena bete zen jorratutako apirilean. Ez zen, noski, zelebratzeko moduko urte-muga, negar eta lotsagarri izandako gertakizun hura. Hirurogei urte iragan dira,

baina, orduko hondamen eta negar saminak ez dira ahaztu, ezta ahaztuko ere. Berrogei ta hamarna kiloko bonbak izan ziren dozenaka Gernikako hiri bedeinkatuaren gain alemaniarrek bota zituztenak Franko diktadore-tzar haren aginduz. Hirurehun

personatik gora izan ziren hilak, eta zaurituak, berriz, mila eta gehiago.

1937ko apirilaren 26a zen, astelehena, Gernikako merkatu eguna hain zuzen. Arratsaldeko lau terdiak inguruan lehenbiziko Junker-52 eta Heinkel-111 aeroplanoak azaldu ziren Gernikako zeru ederraren gainean; handik laister, bertze tropada batek porrokatu eta kiskali zuen hiri paketsu hura. Gasteizko "Salburua" aireportu zaharrean kargatu zituzten (eta nola kargatu!) aeroplanoak, Gernika kiskaltzeko. Ederki asko bazekiten astelehenetan merkaturatzen zuten zela eta inguruetako herri guzietatik jende aunitz biltzen zela; horregatik probextu zuten egun hura jende gehiago hiltzeko asmoarekin.

1949.ean ezagutu nuen lehen aldiz Gernika eta oraindik etxe aunitz "harria-harriaren" gainean zeuden zapaltasun eta odol-ixurtze ikaragarriaren ondorio bezala. Gaur bertze itxura dauka Gernikak!

Dena erran behar eta, bada, urte aldea Gernikako bonbardaketari buruzko liburu bat eskuratu nuela, euskaldun guzietatik irakurri

Berrogeita hamarna kiloko

bonbak izan ziren dozenaka

Gernikako hiri bedeinkatuaren

gain alemaniarrek bota zituzte-

nak, Franco diktadore-tzar ha-

ren aginduz. Hirurehun pertso-

natik gora izan ziren hilak, eta

zaurituak, berriz, mila eta

gehiago.

behar luketena. *Bombas y mentiras sobre Gernika* da bere izena eta bertan aurkitzen da eta hortxe kontatzen da egiazki gertatu zen guziaz. Errepikatzen dut "euskaldun bihotza" duen orok irakurri behar harko luketela liburua, Frankok mundu guziaz zabaldutako «*los propios vascos han quemado Gernika*» maltzurkeriazko gezur hura inork sinistu ez dezan. Bai, hirurogei urte iragan dira, baina, ez dira horregatik ahazten norberak bere haragian pasatako sufrimendu ikaragarri haiek. *Gernika! Herri Bedeinkatua!*

"*Gernikako arbola, da bedeinkatua, euskaldunen artean guziaz maitatua. Eman ta zabal zazu, munduan fruitua, adoratzeko zaitugu arbola santua*".

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Nafarkaria 97-VII-25

«Koadroa ez da ulertu behar, baizik eta hari begira gelditu eta espetu, entzun zer erraten duen».

Tomas SOBRINO
Elizondoko margolaria
Nafarkaria 97-VII-25

« Afizionatu talde hau nik sortutako proiektua da, eta azkenean abian jarri dela ikustea zoragarria da».

Luis VICENTE OTIN
Plazaola Txirindula Taldeko zuzendaria
Egunkaria 97-VII-25

◆ **Zergatik ez duzu Ronaldok bezala kobratzen?**

❖ Baztanek ez duelako hainbertze dirurik.

◆ **Nori gustatuko litzaizuke gol bat sartzea?**

❖ Claudia Schifferri.

◆ **Zer dira 90-60-90 zenbakiak?**

❖ Zenbaki goxo batzuk.

◆ **Autobus batean, mutil bakarra zara hamasei nesken artean...**

❖ Txoferraren ondoan gelditu.

◆ **Zer eraman behar duzue Kubara?**

❖ Han beharrezkoak diren gauzek eta...

◆ **Amets bat? Eta ametsgaiztoa?**

❖ Beti gazte gelditu. Zahartu.

◆ **Ligatzeko bestarik aproposena?**

❖ Nafarroa Oinez.

◆ **Baztandarren Biltzarra lauetanogeita hemezortzi...**

❖ Besta hori galtzen ez utzi. Eginen da.

◆ **Zer eskatuko zenioke Baztango Udalari?**


❖ Gehiago mugitzea kultur, kirol, etabarretan.

◆ **Afari baterako menurik hobena?**

❖ Edozein gauze, patxaran goxo batez lagundue.

◆ **Aurten zezen bat ilargiarekin maitemindu omen da...**


❖ Zezena, venao, tiburoia... non daude Euskalerriko aretxeak?



Aitor AZKARATE

Aniztarra, Baztan futbol taldeko jokalaria

Ford PUMA



Ford-en kotxe berria udazkenerako



TELLETXEA TAILERRAK

☎ 948.450667

DONEZTEBE

ZALAIN MOTOR

☎ 948.631157 • 908.778023

Ubelaldea - **BERA**


Eskualdeko lantegirik haundiena pribatizatzeke prozesua martxan

Aste honetan erabakiko du Espainiako Gobernuak Usinor eta Arbet multinazionalaren artean zeini salduko dion kapitalaren % 35

Hala ere, orain baino lehen errana du Josep Pique Industria Ministroak Usinorrek duela aukera haundiena Espainiako altzairugintza publikoaren kontrola eskuratzeko. Frantziako konpainiak 84.000 milioi pezeta eskaini zituen hasiera batean CSI-ren herena erosteko (3.360 milioi libera), eskatutako gutienezko salneurriaren gainetik, eta bertze 25.000 milioi pezeta obligazioak erosiko lituzke plan industrialia beteko duen berme edo garantia gisa. Baina Luxenburgoko enpresaren eskaintzak ere betetzen ditu bi baldintza horiek.

Informazioa sindikatu eta komunitateei

Atzerriko bazkidea ezagututa, Madrilek kontsulta epea zabalduko du sindikatu eta CSI-ren lantegiak dituzten autonomi elkarteetako gobernuekin, zehaztasunen berri emateko. Hasierako % 35 hori saldua, Espainiako Indus-



Batzarreak burutu dira lantegian, komenio berriaz eztabaidatzeko

tri Agentziak akzioen % 60 inguru Burtsan salduko du, eta falta dena, altzairugintza sektoreko enpresen edo komunitate autonomoen artean saltzea espero du.

Espainiako Gobernuaren asmoa pribatizazio prozesua aurten akitzea da. Udako oporren aitzineko azken Ministro Kontseiluak edo opor ondoko lehenak emanen dio oniritzia pribatizazio egitasmoari.

Zalaingo faktorian egin dituzten azken berrikuntzak inauguratuak

Astearte honetan inauguratu dute Zalaingo faktorian egin dituzten azken berrikuntzak. Inaugurazio ekitaldira Josep Pique Industria ministroa eta Nafarroako agintariak etortzekoak ziren. «Datozen urteetan aitzindari izaten segitzeko» 3.500 milioi

pezeta baino gehiago inbertitu ditu administrazio publikoak faktoria honetan.

CSI-Transformadosek Zalainen duen faktoria honetan tuboak egiten dituzte, eta azken urte honetan nabe berria egin eta makina berriak jarri dituzte.

Cultur97 ekitaldiak, abuztuaren

Abuztuaren 1etik 31ra, gure zonaldera hurbiltzen diren bisitarietara herri honetako hainbat aspekturen berri eman nahi zaie Cultur97ko ekitaldien bidez. Aurten bigarren edizioa ospatuko da, eta berrikuntza nagusia antolatzaileen aldetik nabarmentzen da. Bertizko Partzuergoari Plazaolakoa (Leitza, Irurtzun, Lekunberri...) eta Nafarroako Pirinioetako Partzuergoak (Aoiz, Lunbier, Luzaide, Otxagabia...) gehitu zaizkiolako.

Bertzetik, Bertizko Turismo Partzuergoak bere arrenkura azaldu du 1997ko Nafarroako Jaialdiak ez direlako Iruñeatik goiti pasako.

Akatsak zuzenduz

Aitzineko ttipi-ttaporen erreportaiaren, «Amaiurko borroka gogoran» izenekoa, testuaren zati bat estalia ageri zen. Honela zioen: «Gaztelako Errege Katolikoaren indarrek, Albako Dukea buruzutela, 1512ko uztailean inbaditu zuten Nafarroako Erresuma, nafar erregeei legezkoa zitzaiena kenduz eta Gaztelako Koroari erantsiz. Cisneros kardenalaren aginduz, Catalina de Foix eta Juan de Albret Nafarroako erregeak kanporatu zituzten».

Barkamenak.



**NAFARROAKO
PRODUKTU
BEREZIAK**

ELIKAGAIAK
Gazta, Txistorra, abatekiak, goxua,
barazkiak, ardoa, patxarana eta likorrak
ESKULANAK
Egurra, buztina, burdina, zumitza

Astelehenetik igandera irekia

Altzate 14 • Tfnoa: 631151 • BERA

**ALBAITERITZA KLINIKA
BERRIA ZABALIK**

© 631362 • Legia 13 **BERA**



Txepetxa

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak

Abuztuaren 10ean korrituko da Miguel Indurain bizikleta martxa

Ilunabarrean afaria egingen da txirrindulari nafarraren omenez

ASIER GOGORZA

M. Indurain zikloturista martxaren 6. edizioa hilaren 10ean (igandea) burutuko da eta urtero bezalaxe Atarrabian txirrindularia Berarat etorriko da laisterketan parte hartzera.

C.C. Beratarrak antolatatu eta Berako Udalak diruz laguntzen du martxa hau, parte-hartzaileek bi ibilbide desberdin izanen dituzte aukeran. Batetik, 174 km.ko A ibilbidea goizeko 8,30tan abiatuko da, eta 5 minutu beranduago B zirkuitoari emanen zaio hasiera, 106 km.koa bigarren hau. Altzateko plazan izanen da irteera ofi-



Indurain eta bizikleta martxaren antolatzaileak, duela zenbait urte.

zuala, eta helmuga, berri, lamotenea parean. Izena emateko 2.000 pta ordaindu beharko da, eta prezioan darsa- la, Indurainek sinatuta-

ko niki bat eta abitu- lamientoak sartzen dira, berteak berte. Denboraldi honetan bizikletaren mundutik erretiratu egin denez,

dagoeneko ohikoa bihurtu den martxa honetaz aparte afari bat antolatu dute Miguel Indurainen omenez. Ilunabarreko 8tan egingen da Eztegarra frontoian, eta 3.000 pta gostako da.

Sarrerak ondoko tokietan aurkituko dituzu salgai: Beran, Caja Rural eta Radio Bidasoan, Elizondon, Sobrino eta Karrika ostatueta, Donezteben, Kalash bitxidenda eta Café ostatuan, eta azkenik, Lesakan, Inaxio janaridendan eta Koxkila ostatuan.

Norbaitek informazio gehixeago nahiko balu aski du telefono honetara deituz: 631147 (Enrike Irazoki).

Gure Txokoako dantzariak ortziralara eta larunbatean eskeiniko dituzte urteroko dantza saioak

Gure Txokoa dantzari taldeko ttikienek urteroko emanaldia eskeiniko dute ortziral honetan (abuztuaren 1a), arratsaldeko 8tatik aurrera, Eztegarra pilotalekuan. Urteroko ohiturari segituz, dantza jaialdi nagusia biharamonean (San Esteban bezpera) ospatuko da, toki berdinean, baina oraingo honetan haundien dantza taldeak izanen dira protagonista.

Gure Txokoatik igorri diguten ohar batetan adierazten denez, ttikien dantzaldia ikusteko 300 pezeta ordaindu beharko da, baina Gure

Txokoako bazkide txartela erakutsi ezkerdo hain sartu ahal izanen da. Abuztuaren 2ko emanaldia sartzeko, aldiz, bazkideek 200 pta eta bazkide ez direnek 500 pta utzi beharko dute. Txartela eramane ezkerdo zozketa batean dohainik parte hartzeko aukera izanen dute, gainera, bazkideek (txartela erakutsi beharko da zenbakia hartzeko).

Neurri hauekin, txartelaren erabilpena bultzatu nahi du Gure Txokoak, gaur den egunean bazkide gehienek etxe xokoko azken kaioan gordeta edukitzen baitugu.

flash

Agerrako bestak...

abuztuaren hondar aldera ospatuko dira aurten ere, 22tik 24ra. Urtero egingen diren kross lasterketa, haur jokoak eta auzoko bazkaria (bertzean artean) izanen dira ospakizun nagusiak.

Eako Batzarreak,

"Miguel Angel Blancoren bahiketa eta erahilketaren aitzi- nean agertu duen ixiltasuna eta batzar berezirik ez deitzea" leporatu dio alkateari, eta gertakizunen gaitzespena egitea exijitu zion, uztailearen 17ko Udal Batzarrean mozioa aurkeztuz. Alkatearen taldeak EAren idazburua «gutziz pozintsua, baterez bateratzailea eta askoz gutxiago elkarrizketarako irekia» zela erantzunez, ezezko botoa eman zuen, eta HBren botuekin batera, mozioa gibe- lerat botatua izan zen eztabaida luze baten ondotik.

Futbito

Peñen arteko futbito txapelketako finala ortziral honetan (abuztuak 1) izanen da, eta baita 3. eta 4. postuetarako lehia ere. Baina hori baino lehen, arratsaldeko 6tan, 3x3 basket txapelketa jokatu- ko da polikiroldegian.

ONGI PASA HERRIKO BESTAK

AHORRO-BERRI

janaridenda

Legia 4 • BERA

Igande goizetan irekia

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 63 03 70 • BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, © 63 05 98

BERA

Maistegi udal futbol-zelaia abuztuaren 9an inauguratuko da ofizialki

Bertze partiduen artean, Osasuna Promesas arituko da herriko lehen taldearen kontra

AITOR AROZENA

Abuztuaren 9an zabalduko da ofizialki Maistegi udal futbol-zelaia eta egun horretarako egitarau zabala prestatuta dago. Arratsaldeko 4ak aldera hasiko dira ekitaldiak. Honelakoetan ohikoa denez, apezak bedeinkazioa emanen dio belar artifizialeko futbol zelaia-ri eta aureskua dantzatuko da. Udal, Nafarroako Gobernuko eta Beti Gazteko agintarien solasaldien txanda izanen da ondotik. Gero, hainbat futbol partidu ikusteko aukera izanen da. Beti Gazteko benjamin, alebin eta infantil mailakoak futbol-7ko zelaian –zabalera markatuta daudenak– arituko dira, 10-15 minutuko partiduak jokatuz. Kadete eta jubencil mailako taldeak zelai osoan arituko dira ordu erdiko partiduetan, hau idazterakoan oraindik zehaztu gabe dauden taldeen kontra. Haundien mailako bigarren taldea Gure Txokoaren kontra arituko da 45 minutuz eta, azkenik, Preferenteko taldea Osasuna Promesasen aurka arituko da. Akautzeko, luntxa banatuko da futbol zelaia eta piszinen arteko estratan.



Abialdian-97 herrira etorri zen

Uztailaren 17an ailegatu zen Lesakara Abialdian 97ko Iparraldeko zutabea. Askatasunaren ibilaldiko zutabe hau hilaren 14an abiatu zen Donibane Lohitzunetik eta Sara eta Elizondon barna igaro ondotik herriratu zen. Ailegatzerakoan aureskua eskaini zitzaizen hasieratik oinez dabiltzanei eta Bortzirietan gehitu zitzaizkien ibiltariei. Gero txalapartariak, trikilitariak eta bertsolariak aritu ziren. Biharamon goizean abiatu ziren Oiartzun aldera eta bertan bat egin zuten ekainaren 29an Iruñetik abiatu zen Amaiur zutabearekin. 1977ko Abialdian burutu zela hogeitun urte betetzen diren honetan, orduko zenbait erreibindikazio eta autodeterminazioa eskatzen dabil martxa hau Euskal Herri osoan barna.

San Fermin erretiratuen elkarteak Zaragoza eta Tuteran bisitatuko ditu ortziral honetan

Ortziral honetan, abuztuak 1, Zaragozara bidaia egingen dute San Fermin jubilatatu eta pensionisten elkarteak. Irteera goizeko 7etan izanen da autobusean eta Tuteran inguruan gosalduko dute. Ondoren Zaragozara ai-

legatuko dira. Bertan Pilar bisitatuko dute, bertze ekitaldien artean. Bazkaria 2etan egingen dute Petrolan, ondorengo menuarekin: etxeko entremesak, bildots erreka, postrea, ardoa, kafea, kopa eta pu-

Itzuleran, Tuteran, Erriberako hiriburua, bisitatuko dute erretiratuek.

Bidaiaren prezioa 2.200 pezetakoa da—dena barne— eta txartelak autobusa bete bitartean eskuratzen ahal dira elkartearen ostatuan.

flash

- ◆ **Alkatearen erantzuna**
HBK egindako dimisio eskariaren aitzinean, alkateak zera erantzun zuen: «*egia balitz Herriko Etxeak legea ez duela bete, edozein zinegotziren betebeharra epaitegietara joatea da*». Jose Luis Etxegaraiaren erranetan, «*Udalak legea bete du pausu guzietan*».
- ◆ **Xake txapelketa**
Beti Gazteko antolatutako Lesakako IV. Xake edo Ajedrez Irekia irailaren 5 eta 6an burutuko da herriko frontoian.
- ◆ **Kable bidezko telekomunikazio**
zerbitzua eskaintzeko Nafarroa osoa hartuko duen lurralde mugaketari buruzko adostasuna agertu dio udalak Nafarroako Gobernuari.
- ◆ **Udal ordenantza**
Jarduera sailkatu eta kaltegabeetan aritzeko lizentziak emateko eta jarduera eskualdatzeko tasak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onespina egin zuen udalak. Errekla-mazioak aurkezteko azken egunak dira.

ROA
Bako goxokiak
Berririo zabalik
Bittiriako Plaza 3, © 637136 • LESACA

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu

MAGNETISTA NATUROPATA

© (943) 62 30 55
San Marcial, 7-4 IRUN

ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinien izerdia
- Prostata, etab...

ETXALAR

Adrian Labadie Hondarribian burutu du erakusketa

Uztailaren lehen hamabortzaldian eduki ditu erakusgai eskultura eta pintura lanak, Hondarribiko erakustokian. Aurten egindako bigarren erakusketa du Adrianek hau, uda-berriaren hasieran Berako Kultur Etxean antolatu baitzuen bertzea, hamabortz eguneko hura ere. Urte batzuz egin gabe egon ondoren, aipatutako bi erakusketek izanen dute segidarik, eta hiri handiagotan, seguru aski. Zaragozan izan daiteke hurrengoa.



Adrian Labadie



Karrikako bazterrak har-losaz jaunzi dituzte

Argazkia: PELLO

Herriko lanak aintzineratzen dira

Udazkenerako burutuko dira gehienak

PELLO APEZETXEA

Karrikako zenbait bazter har-losaz jaunztea, azken egunetan akautu da. Larraburutik Arroserako saihebidetara, hainbat aldiz aipatutakoa, hondarrean

moldatua dago. Herriak nahi zuen modura moldatua.

Eta hori bezala, barrietako bideak ere hobetzen ari dira. Lakaingo azpialdekoak, Tolareko Borda aldekoa, Antsoneko Borda-

koa, etabar. Herrikoetxe izanaren teilatu eta parretak berriztatzea, berriaz, proiektua prest dagoenez, lanak nork egin erabakiaren zain dago. Andre marietarako jakinen dugu egilearen izena.

Igerilekuetan igerilari soberarik ez

Uda honek orain arte ekarri digun eguraldiarekin ez da uretan bustitzeko gogo eta behar handirik sumatzen. Ez da harriztekoa, horregatik, igerilekuek bisita gehiegirik ez izatea. Berri hau irakurri ordu-rako gauzak zerbait aldatuko ahal dira. Dena den, igeritan ikasteko haur taldea biltzen da, eta animoso.

Etxalarlatsako Benta ireki dute berriz ere

Ibilaldi berria hasi du bidegurutze ondo-ko Benta. Hiruetan hogeiko hamarkadan moldatu zen ezkerotik, ibilera gora-beheratsua eraman du, gero eta motelagoa hondarrekiko urteetan. Berritua eta handitua orain, etxeak jantoki eta lotoki handiagoak eskeintzen ditu. Ea nolakoa den jendearen harrera.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduentzat pentzurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 **LESAKA**

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 **LESAKA**

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hobereana
Frexkuena
zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - ☎ 637264

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
Eguneko menua.....1.000 pta
Haurren menua.....800 pta
Paella, entsalada, sangria.....1.500 pta
Menu turistikoa.....1.800 pta
...eta nahi duzuna kartan
1997ko uda
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

M. Ubiria
EXKABAZIOAK
Bittiria 8
Tfnoa.: (948) 637214
Mug.: 908 779641 **LESAKA**


IGANTZI

Behin-behineko baimena eman dio Nafarroako Gobernuak pilotalekuari

Zenbait moldaketa egin dira San Juan Xarren auzolanean

OSKAR TXOPERENA

San Juan egunaren ondotik zenbait obra egin dira auzolanean San Juan Xarren. Alde batetik, gainetik doaien bidean harrizko kaltzadaren egin dute hasierako zatian eta kobazulotik iturriraino zuzenean jausten diren eskaileren ondoan, egurrezko baranda paratu dute, jendea orain arte baino aisago jausteko. Bukatu dira, bertalde, San Juan Xarreko mezak aurtengoz eta eguraldiak bertara hurbiltzeko batere ez duela lagundu erran behar da.



Haxe da Nafarroako Gobernuak Igantziko pilotalekua estaltzeko onartutako proiektua. Agindu forala oraindik falta bada ere, Kirol Departamenduko baimena hartu dute udalean. 40 milioiko aurrekontua du obrak eta Nafarroako Gobernuak erdia ordainduko duela agindu du. Igantziarrek aspalditik duten ametsa beteko da lana gauzatzen denean.

Plantazioak garbitzen

INEMEN langileek garbituko dituzte Irisarri gainean, Arantzako muga ondoan dauden plantazioak, Nafarroako

Gobernuko Mendi sailaren eskutik.

Udal administraria hautatzeko probak abuztuaren 22an

Abuztuaren 22an iza-

nen dira udal administraria aukeratzeko probak. Halere, Nafarroako Boletinean agertzekoa denez, interesatuek Udaletxean baieztatzea dute hoberena.

Zerunetakoek 61 urte bete dituzte espotuta

Oker genbiltzan aitzineko alean Francisco eta Eugenia Zerunetakoek Urrezko Ezteiak

betetzen zituztela erra-ten genuenean, 61 urte bete baitituzte ezkon-dukurikan. Arkupeak elkar-arteak omenaldia 85 urte betetzeagatik egin zien bieci.

Errekalde ostaturia
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Telefonoa: 630259 - BERA

Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi-xagutxo garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz. Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA
DESINFECCIONES
☎ 63 01 55
BERA

Lurrindondoa
Marian
endiberrri
Estetika

Behoko Plaza 8 ☎ 637791 • LESAKA

Dia **Autozerbitzua deskontua**

Hamabostero ofertak

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • BERA

Aranguren
Aroztegi mekanikoa

Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA

- Leihoak
- Aurre-markoak
- Eskailerak
- Fabrikanteak gara

Zalbo Ostaturia

LESAKA



Herri kirol saioak izanen dira aurten ere herrietako bestetan

Amabirjinetako bestetarako prestatzen hasi da jendea

Abuztuaren 16an kontzertu bikaina izanen da

ELIXABET ETA GARBIÑE

Abuztuan sartzeko puntuan gaudela, dagoeneko denak herriko bestetan pentsatzen hasiak gara. Udala, egitaraua prestatzen, gazteak, abuztuaren 16an,

Sutagar, DUT, Hechos contra el decoro eta *Koma* taldeen kontzerturako azken detaileak moldatzen —eta sarrerak eta zozketarako boletoak saltzen, abailan—, dantzariak entsaiatzen eta arropak plantxa-

tzen... Herri kirol saioak ere ez dira faltatuko, noski, joan den urtean bezalaxe. Halere, hurrengo TTIPI-TTAPAN izanen duzue programaren berri. Ekaitza elkarteak ere, joan den asteko ortzirean egin zuen jun-

tako bileran, bestetan soziedadean ostatua irekitzea erabaki zen. Bestak iraunen dituen borts egunetan egonen da irekia eta bere arduradunak Marta Iturria eta Mirari Leiza izanen dira

flash

- ◆ **Bi langile**
kontratatu ditu udalak borts hilabetetarako, Patxi Iturria eta Juan M^a Telletxea. Herriko Etxeak adierazi digunez, hauen lana herriko iturriak moldatzea, udal erakuntzen mantentimendua, aparkalekuak markatzea... izanen da.
- ◆ **Pelukeri berria**
ireki da herrian joan den astean. Blanka Taberna pelukera gazteak bere lokala ireki zuen astelehenean, baina aitzineko larunbatean, inaugurazio modura, hamaketakoa eskaini zuten bertara hurbildu ziren guziei.
- ◆ **Pilota txapelketa**
Uztailaren 26an, arratsaldeko 7etan, jokatu ziren Ekaitza elkarteak antolatutako pilota txapelketaren bertze kanporaketa bat. Benjamin, alebin eta helduak aritu ziren. Finala bestetan jokatu da.

SAROBÉ
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

GRUPO  **ZURICH**
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater kombinatuak eta menuak
☎ 627573 • LESAKA

koxkonta



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

LEGARRA  Legarrea, 9 • ☎ 63 70 30 • LESAKA

IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU

- Liburuak
- Papertegia
- Tabakoa
- Plastifikazioak egiten ditugu
- FAX publikoa
- Enkuadernatzeak
- Inprenta lanak



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera ☎ 630735
Irun ☎ (943) 622305

MALERREKA

Elgorriagako bainuetxea berritzen hasiko dira datorren urtean

800 milioi pezetako inbertsioa egitea espero da

JOSUNE ETA ISABEL

Garai bateko Elgorriagako bainuetxea berreskuratzeko akordio batera ailegatu dira Nafarroako Gobernua, Espainiako Gobernuko Sustapen Ministeritza eta Elgorriagako Herriko Etxea. Proiektuak 800 milioi pezetako aurrekontua izanen du eta 120 lagunendako lekua eskainiko duen hotela eraikiko da, bainuetxea berregiteaz gain. Lanen aurrekontua, berez, 600 milioikoa da. Erdia Espainiako Sustapen Ministeritzak emanen du, %30 Nafarroako Gobernuak eta gainerakoa Herriko Etxeak.

Gainerako 200 milioiak, ekipamendua osatzeko eta gainerako zerbitzuak egiteko eraibiliko dira.

Jose Maria Galarregi alkateak adierazi due-



Laguntzaile gehiago eskatu ditu Malerrekako DYAk

1992an Donezteben hasi zenetik 270 zerbitzu eskaini ditu Malerrekako DYAk. Aurtengo lehen sei hilabeteetan 60 ateraldi inguru egin dituzte, larrialdi eta prebentzio zerbitzuen artean. Halere, jendez eskas xamar dabilta eta asteburuetan ordu guztiak betetzen badituzte ere, astegunez jende gehiago beharko lukete, zuzendaritzaren erranetan. Beraz, animo!

nez, «zonaldeko garapen ekonomiaren bul-tzatzea ekarriko du eta 35-40 bat lanpostu sor-tzea espero da». Azke-

neko zazpi urteotan lanean ari omen da uda-la garai bateko bai-nuetxea (1919an onura publikokoa izendatu zu-

tena eta 1955ra bitarte lanean aritu zena) berriro martxan jartzeko. Lehenbiziko fasea 1999 urtean akitzea espero da.

Ipuin Ordua antolatu du Langarrak

Malerrekako Langarra Euskara Taldea, Nafarroako Gobernuaren eta inguruko udalen laguntzarekin, udako gau giro goxoz gozatzeko «Ipuin Ordua» antolatu du.

Uztailaren 24an, Elgorriagako Santio bestetan hasi zen eta abuztuan hainbat herrietan barna ibiliko da Pello Añorga bere ipuinak kontatzen. Abuztuaren 2an, Beintza-Labaien izanen da, arratsaldeko 6etatik aitzinera. Egun berean, arratsaldeko 8etan Donamarian izanen da. Abuztuaren 27an Urrotz herria bisitatu-ko du ipuin kontalaria-riak, arratsaldeko 6etatik aitzinera eta bi ordu beranduago Legasara joanen da.

Bertzalde, gogoratu behar da Langarraren Eguna irailean ospatuko dela Saldiasen. Bertso-afari-rako txartelak salgai jarriko dira laister.

IBARROLA
HAURENDAKO ARROPA
MERTZERIA
 Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

Herriz
 LENTZERIA
 Parrokia 11
 Tfnoa: 45 01 12
 DONEZTEBE

ALDABE
TAXIA
 DONEZTEBE
 © 450687

ARIN **ASEGURUAK**

- Kotxeak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Enpresak
- Istripuak
- Bizitza
- Aurrezkia
- Bertzeak

Parrokia 21
 Tel.-Fax: 450266
 DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 450 133
 451 541
 Faxa: 450 334
DONEZTEBE

BERTIZARANA



Errepide trazatu berriaren akatsak azaldu dituzte Lakoizketakoek

Idatzi baten bidez, Nartarteko Lakoizketako Jesus Mari Argainek adierazi duenez, Nafarroako Gobernua aurkeztutako errepide trazatu berriak zenbait akats ditu: «Legasaren aitzinean dagoen rekta aprobetxatu beharrean, proiektu berriak atrabesatu gogo du Lakoizketa etxaldeko terrenu osoa, belagiak eta larrastak arrontean hondatuz eta bertan bizi garen familiaren labrantza bizi-modua deseginez eta aunitzez presupuestu haundiagoa eta hondamendi ekologiko larriagoa eraginez».

Jesus Mari Argainen idatziak gogoratzen duenez, «Lakoizketakoak gara oraindik ere labrantza hutsetik bizi den familia bakarenetako bat eta trazatu berriak, hori kontutan hartu gabe, kenduko digu bizimodu horretatik segitzeko posibilitatea. Oroitu behar baita, lehenik, gaur eguneko karreterak Lakoizketakoak ziren lurraz zeharkatzen dituela, lehen ugalde bazterretik joaten baitzen errepidea, gero, duela urte batzuk, bai Legasako zubirako bideak eta errotonda berriak Lakoizketako belagiak ere harrapatu zituela». Legasa aitzineko rekta zabaltzea eta Oteizak bixkarra proposatzen dute Lakoizketakoek, irtenbide gisara.

Ortzirala, abuztuak 1
8etan altxaferoak beste hasiera emanez. Ondoren, kalejirak Iturengo txistulariekin. 9etan Baztan-zopak Herriko Ostatueta. 12etan dantzaldia MODESTO akordiolariarekin.

Larunbata, abuztuak 2
10etan kalejira txistulariekin. 1etan ahari apostua. 6etan kontu kontalaria,

Langarra taldearen la-guntzarekin. 7etan tokajokoa. Arratsaldez etagauetz dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Igandea, abuztuak 3
10etan Argi-soinuak txistulariekin. 12etan Meza Nagusia. 1etan hamaiketako, Beintzako Ostatuak emana. 1,30etan aizkora apostua: Larretxea eta

Nazabal, OIasagasti eta Arrospereren aurka. Lana: 16 kanaerdiko. 4etatik 8etara DISNE-IRUÑA Jolas-parkea. Arratsaldez etagauetz dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Astlehena, abuztuak 4
10etan kalejira. 12etan plater tiraketa. 5etan mus txapelketa. Arratsaldez etagauetz dantzaldia GAU-

BELA taldearekin.

Asteartea, abuztuak 5
10etan kalejira. 1etan aizkora apostua herriko aizkolarien artean. 2etan herri bazkaria Xebastian Lizaso eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariekin. Arratsaldez etagauetz dantzaldia MODESTO akordiolariarekin.

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

GAZTANDEGIA
Etxeko
Ardi Gazta
LIZUN
Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA

ETXANDI
TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritarra trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

BEINTZAKO
OSTATUA
Ongi pasa herriko festak
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

Abuztuaren 9tik 14ra

Larunbata, abuztuak 9
5etan txirindulari karrera (hasten direnak, alebinak eta haurrak). **7,30etan** ATAITZ txistulariak karriz karriz. **8,30etan** plazan, Gure Txokoa dantza taldea. **12etatik** aitzinera gaupasa GAUBELArekin. **Igandea, abuztuak 10**
6etan aizkora apostua. **6,30etan** tanborrada. **8etan** txupinazoa eta ondokit, txaranga herrian barna. **9etan** baztan-zopak. **12etan** musika GAUBELA taldearekin. Egun osoan Gurpil trena herrian barna.

Astelehena, abuztuak 11
10etan akordiolariek. **11etan** Meza Nagusia. **12,30etan** frontoian proba konbinatuak: ezkongabeak ezkonduen aurka, akordiolariek eta ezusteko proba. **10etan** su-artifizialak. Arratsalde eta gauez dantzaldia GAUBELArekin. Egun osoan gurpil trena.
Asteartea 12
Peñen Eguna
10etan kross karrerak, kategoriaz ezberdinetan. **12,30etan** herriko esku pilota txapelketaren finala. **2etan** peñen bazkaria. **5etan** gaztetxo-en txirindulari karrera. Arratsalde eta

gauez, dantzaldia JATOR taldearekin.

Asteazkena 13
Haurren Eguna
 Goiz-arratsaldez gaztelu puzgarriak, karts... **4etan** herriko plater tiraketa. **7etan** herriko elkartearen umeentzako merendua. Arratsalde-gauez JATOR.
Ortzeguna 14
10etan mus txapelketa elkartearen. **12,30etan** jokoak igerilekuan. **6etan** neska eta mutilen arteko gomazko paleta txapelketa. **10etan** frontoian herri afaria. **2,30etan** adntxa txapelketa (tango, baltsak, jota eta salsa). Ondoren, 'Pobre de Mi'. 12 eta 14 artean, egunero txaranga.



Añesti peña 1982ko bestetan: Ixabel, Ana Esther, Idoia, Edurne, M^a Jesus, Sagrario, Ana, Ana, Migeltxo, Txus, Daniel, Bixente, Fernando, Javi, Bidal, Juan Jesus eta Potzo



1968ko bestetako dantzariak. Xutik: Juan Antonio Maia, Fermin Petrirena, Agustin Sainz, Jose Apeztegia, Paco Petrirena. Totorika: Jose Gamboa, Juan Jose Sainz, Jose Mari Hernandorena eta Antonio Arretxea



Jose Mari Alzuri, Juan Pedro Bertiz, Jose Mari Ibarra, Jose Luis Ibarra, Jose Luis Arrieta, Paco Petrirena eta Javier Lacalle.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

BUSTITZ OSTATUA

Lekueder
 Tfnoa: 45 05 04
SUNBILLA


MAIA HERRIKO OSTATUA

Jatetxea

Besta ederrak pasa

Karrika Nagusia • Tfnoa: 45 01 54 • **SUNBILLA**

muñeca de Trapo



IRUN

Luis Mariano, 35
 Tel.: (943) 62 52 55

Lurra

Landa-lurraldeari buruzko aldizkaria • 10. zenbakia
211. ttipi-ttaparekin banatua



Esperientzia berriak

Telebista Eskolara & Xetela delata

2-3. TELESKOLA:

Lesakako Irain eskolako liburutegitik zuzen-zuzenean magazine gisako saio bat emititu zuten hango ikasleek. Teleskola programa hau esperientzia berria da Nafarroan, eta ikasleez gain irakasleek ere parte hartu dute.

4-5. XETELA DELA:

Eskoletan hizkuntza lantzeko helburuarekin sortu duten ikusentzunezko ekoizpena da Xetela Dela.

9. SORGINKERIA: «Sorginkeria; gaitz guziendako estalkia... errepresio guziendako bidea». Juinas PAUL.

13. SUGEAK: Gure zonaldean dauden sugen inguruko informazioa.

16. ITOITZ: Patxi Gorraiz Itoizko Koordinakundeko kidearekin mintzatu gara urtegiaren inguruko azken gertaerei buruz.



Telebista Eskolara

Maiatzaren 9an, Lesakako Irain eskolako liburutegitik zuzen-zuzenean lehendabiziko *Teleskola* saioa emititu zen. Programa hau esperientzia berria da Nafarroan eta eskolako ikasle eta irakasle guziek parte hartu dute. Liburutegian magazine gisako saioa egiten zen bitartean -bere elkarrizketa, publizitate eta atal ezberdinekin-, ondoko gelan guraso eta ikasleek zuzenean telebistan ikusi zuten programa arrakastatsua.

Maiatzaren 17an, programaren aurkezpena egin zuten Iruñeko Planetarioan eta irakasleek adierazi digutenez, «izugarritzko harrera izan zuen, inoiz ez baitzuten honelako esperientziarik ikusi». Programa prestatzen eta egiten aritu direnen ustez, haurrentzat ere hagitx esperientzia erakargarria izan da, «bideo muntaiak eginez,

irudiaren munduaz kritikoki jabetuz eta ikusentzute komunikabideetan murgilduz».

Patxi Oteiza, eskolako zuzendariak adierazi digunez, «ikas-tetxeko ikasle guztiak egin dute zerbait eta guziak ageri dira irudietan. Hirugarren zikloko zenbait ikasleek beraien manipulatu zituzten zenbait gauza, publizitatea montatu, kamaren maneiua ikasi dute, berriak presatu... Tiikienak ere erretrato za-

harrak ekarri dituzte eta argazkian nor ageri den azaldu dute kamara aitzinean, beraien burua irudietan ikusi dute...





3



4

- 1 Kamara eta erre-alizatzaileak lanean
 - 2 Aurkezleak elkarriketa burutzen
 - 3 Karaokeak ere ezin zuen faltatu telesaio moderno batean.
 - 4 Ikusleak platoan.
- Dena behar bezala lotu behar zen programa egoki burutzeko.

Grabaketa egite-rakoan, kamara-ren funtziona-mendua eta irudiak nola manipulatzen den ikusi dute, denetik!».

Planetariora, saioan grabatutako bideoa aurkeztu zuten, hamabortz minutu in-

gurutua. Esperientzia interesgarria izan zen irakasleen ustez eta jende aunitz egon zen ikusten. Gero, guraso eta ikasleen artean banatzeko ordu erdi gehiago sartu diote. «Saioan bi kamara geunden grabatzen eta bertan hartutako 'toma faltsuak', aurpegi xelebreak, espresioak, etab... sartu ditugu».

Aurtengoan zenbait akats ere egin dituztela onartu du Irain eskolako zuzendariak. «Iaz editai-mahai hagitz on bat utzi ziguten eta aurren, aldiz, eskuz egin dugula erran daiteke. Planetarioan aurkeztutako irudiak ez ziren kalitatez onenak, baina kontua ez da dena perfektu ateratzea, haurrek parte hartzea eta zenbait gauza eurek egin dezaketela ikustea baikik». Izan ere, akats eta guzi, hainbat ordu sartu baitituzte —eskola orduak nahiz eskola orduz kanpokoak— proiektua aitzinera ateratzen.

Ikus-entzuteko materiala Nafarroako Gobernuaren eskutik

Orain bi urte Nafarroako Gobernuari ongi landutako proiektu honen berri eman ondotik, zenbait materiale jaso zituzten Lesakako eskolan. Geroztik lanean ari dira ikus-entzuteko tresna hauekin eta batez ere, irakasleak trebatzen aritu ziren. «Aurren kamara bat, bertze monitore bat, mikrofono bat eta magnetoskopio bat bidali digute, eta lehendik eskolan genuen ber-

«Ikasle guziek egin dute zerbait eta denak ageri dira irudietan: kamaren maneiua, publizitate montaiak, irudien manipulazioa... denetik!»

tzaigun materiala».

Zuzendariaren ustez, Nafarroako eskolatan, Lehen Hezkuntzan behinpean, gisa honetako lehen esperientzia izan da Teleskola. «Ikasketa ertainetan, Lizarran edo egin dutela uste du, baina gure mailan ez dut urte horrelakorik dagoenik».

Erran bezala, Teleskola saio zuzenean ikusten gurasoak eta eskolako irakasle eta ikasleak zeuden liburutegian. Hauekin batera, Igantziko eskolako haur eta irakasleen bisita jaso zuten eta orain, behin zinta grabatua dagoenean, Bortzirietako eskola guzietara kopia bana igortzeko intentzioa dute. «Grabaketa lekua handiagoa izan balitz —dio Patxi— eskola guziak gonbidatuko genituen grabaketara. Gimnasioan egitea, pentsatu genuen, baina zenbait arazo tekniko sortzen zitzaizkigun —kableak sartzeko tokia, etab...—. Beraz, orain bideoa ikusteko aukera izanen dute».

Baina Teleskola ez da Iruñetik eskuratutako materiale honekin egin duten programa edo grabazio bakarra. Urteik urtera ikasleek prestatu ohi dituzten antzeslan guziak grabatuak dituzte eta beraien asmoa, zinta hori behar bezala egokitu eta prestatzea da, gero bideoan eskaintzeko. Eraberean, Irain eskola nolakoa den erakutsiz bertze muntai bat osatzeko intentzioa dute eta datorren ikasturteari begira, grabazio gehiago egiteko asmoa dute.

tze magnetoskopio batekin, grabaketa hauek egiteko moldatu gera» dio Patxi Oteizak. «Teleskola egiteko, Leharzoko Irakaslegoarendako Laguntza Zentruetik ekarri genuen falta zi-

Patxi OTEIZA

Irain eskolako zuzendaria


«Lan haundia bada ere, emaitzak merezi du»

Nola baloratzen duzu «Teleskola»ren esperientzia?

Neretako, baita haurrentzako ere, noski, hagitz esperientzia positiboa izan da. Lan haundia da, ikasturte hasieratik hortan baigabiltza, baina merezi du. Urtero zerbait egiteko idea dugu, igual ez hain osatua, eta eskolaren kurrikulumean sartu. Planetarioan berandu xamar egokitu zitzaigun txanda eta laburpen bat sartu behar izan genuen. Irudiak ere ez ziren kalitate haundikoak, baina esperientzia bezala, hagitz aberatsa. Ikus-entzuteko medioekin bertze zerbait egin daitekeela erakutsi dugu.

Noiztik ari zarete lan honetan?

Nafarroako Gobernuari proiektu bat aurkeztu genion eta duela bi urte hasi ginen ikastaroa egiten. Laguntza izaten dugu Nafarroako Gobernutik, aurren asesorea izan dugu. Gero zenbait material falta zaigu oraindik, editai-mahaia, magnetoskopio batzuk... pixkanaka materiala osatzea espero dugu.



'Xetela dela'

Hizkuntza lantzeko ikusentzunezko ekoizpena

Eskura duzun bideoa "Xetela dela" irakasle taldearen lana duzu. Bertan, hiru heldu, hauen haurtzaroko oroimen eta sorgin baten bidez, haurren munduarekiko hurbilketa bideratu egiten da. Istoriaren akabera guziz zabalik dago haurrek amaiera eman diezaioten. Bideo lan hau bereziki hizkuntza arloaren lanketa ahalbideratzeko pentsatuta dago.

FITXA ARTISTIKOA

Modesto Sarrutena
Gurbina Leiza
Palo Arizta
Nekane Etxe
Iñaki eta Zuzarramardiko
hasierak
Begoña Iltzarbe
Pagaina

Elitor
Amin
Aratxe
Sorgina
Kantelek
Maitea
Ketur

FITXA TEKNIKOA

Mota Begoña Iltzarbe
Xabier Ballarena
I.B. Taldea
Gidoia "Xetela dela" taldea
Zubi, Begoña, Txema
Leizoroko ILZ eta
Edizioa I.B.II. Tren baliabidez egina
Proiekturaren Koordinatzailea
Txema Olajua

IRAUPENA: 14'

D.L.: NA-1610/95

Nafarroako
Gobernua
Hizkuntza eta kultura
Departamentua



Teknologia Berrien
Unitate Teknikoa
Calle III, 26-2-D
31004 IRUÑA
Tfnos.: 948-107777



'Xetela dela' pelikularen karatula

Nola gauzatu genuen 'Xetela dela' proiektua?

Orain dela 3 urte, gutti goiti beheiti, Malerreka, Bortzi-riak eta Baztango eskola osagabeetako lau maisu-maistra elkartu eta gogoan genuen proiektua gauzatzeko asmoz taldea osatu genuen, ikasleen interesetik abiatuz, ikusentzunezko baliabiden bidez hizkuntza lantzea helburua iza-

nik. Hau zela eta, geurrek asmatutako istorioa gorpuzten hasi ginen. Lehendabiziko pausua, buruan geneukan ideia guziz estrukturatu ondoren, gidoi literarioa idaztea izan zen.

Ondotik, eszenatokien bila joan ginen, aproposa aurkitzea ez zitzaigun batere erreza egin, hutsik zegoen etxe zahar bat, herriko eskolatik hurbil egon zedin behar bait ge-

nuen. Azkenean, Zugarramurdiko *Ospital zaharra* aukeratu genuen. Zegoeneko, antzeslanetan zeintzuk aritu erabakitzea falta zitzaigun.

Aktoreak aukeratzeraoan ez

Pasa den maiatzaren 14an, 'Xetela dela' proiektua Iruñeko Planetarioan aurkeztu zuten Xabier Ballarena eta Begoña Iltzarbek lantalde osoaren izenean.

Eskoletan hizkuntza lantzeko asmatua dagoen lana da, eta bere baitan, pelikula, gidoiak (tekniko eta literarioa) eta gida didaktikoa ditu.

Zonaldeko lau maisu-maistrak egindako materiala da eta OHO eta Bigarren Hezkuntzan erabilgarria izan daiteke. Eskolaren batek erabili nahiko balu, Leizoroko ILZ (Irakaslegoaren Laguntza Zentruan) eskuratzen ahal du.

genuen profesionalengana jo, zonaldeko jendearengana baizik.

Zailena, kaso eginen zuen katua aurkitzea izan zen. Zuzendaritza, grabaketak, muntaiak eta abarrek lanak geurrek egin genituen, beraz, erabat etxeko produktua dela erran daiteke.

Azken pausoa, tresneria eta laguntza teknikoaren beharrea geundenez, diru iturria lortzea izan zen. Nafarroako Gobernuak ateratako deialdi batetan parte hartu genuen, honen bitartez, baliabide teknikoak, aholkularitza eta pelikularen produktzioa lortuz.

Aipatutako zeregin guziaz eginda, irakasleoi zegokigun lana heldu zitzaigun, 'gida didaktikoa' hain zuzen. Proiektu guziaz joan den ekainean bukatu genuen, bi kurtsoz aritu ondoren.

Zer da 'Xetela dela'?

Amaiera gabeko 14 minutuko pelikula da. 'Xetela dela' izenburua asmatu genuen, pelikulan agertzen den sorginak egindako aztikeria adierazteko.

Pelikularen hasieran, Axun eta Bittor, eskolako patioan dauden haurrei begira, beraien haurtzaroko pasadizoak oroitzen hasten dira. Oroitzapen hauek, mundu majiko batetara eramanez dituzte biak, hutsik dagoen etxe zahar batetara hain zuzen. Etxe honetan, hirugarren lagun batekin, Arretxe izenekoarekin, gertaera bitxiak biziko dituzte: etxeko leihoak irekitzerakoan ez da herria ikusten, bertzeko toki arraro batzuk baizik; etxeko atea desagertu egiten da eta ezin ateraz gelditzen dira; sabaian bizi den sorgin batek bere aztikeriak kontatzen dizkie...; guzi hau bere katu misteriotsua erabiliz.

Azkenean, sorginak bere arazoa konpontzeko laguntza eskatzen die. Beraiei ez baitzaie irtenbiderik bururatzen, ikusleei laguntza eskatzen die Bittorrek. Beraz, amaitugabeko istorioa da, ikasleek bukaera eman dezaten.

'Xetela dela' pelikularen erabilpen pedagogikoa

Normalean, eskoletan egiten den bideoen erabilpena bi motatakoa izaten da:

1.- Denbora pasatzeko, hau da, haurren gozamen helburua izanik.

2.- Informazioa jasatzeko: bideo didaktikoak. Hauen barruan, erre-

portaiak, dokumentalak edota gai bati buruzkoak direnak.

Gure proposamena 'Xetela dela', eskolako hezkuntza proiektu batean txertatua izateko pentsatua dago, ikasleen gozamenaz gain, beraien protagonistak sentituz, parte har dezaten, hau da, bideo interaktiboa.

Gure istorioaren erreferenteak hauek izan dira:

- Helduon ikuspegitik, haurren munduarekiko hurbilpena eta balorapena.

- Mundu erreala eta fikziozkoa. Horretarako gida didaktikoan hainbat *viñeta* agertzen dira ikasleek bi mundu hauek bereiz ditzaten.

- Aspaldiko kontuak eta oraingoak.

- Pertsonaien *rolak*. Egoera desberdinetan gerta daitezken jarrera topikoak hautsi nahirik, atentzio berezia jarri dugu pertsonaiei izakera ematerakoan. Gure ustez, koe-dukazioa lantzeko erabilgarria da oso.

Gure proposamena, konkretuki, hauxe da:

- Istorioari bukaera ematea, koherentea izan dadin, ulermena eta idatzizko ekoizpena landuz.

- Komunikazio baliabide gisa, itzalen hizkuntza erabiltzea.

- Hemengo euskalkia hizkera standarrarekin konparatzea.

- Antzinako jostaketen bilduma osatzea.

- Ikusentzunezko hizkuntza lantzea. Horretarako gida tekniko egin dugu, honetan informazio guziaz bilduta dago: kamararen mugimenduak, planoak, sekuentziak, *story board*... beraz, bideo produktio baten suposatzen duen prozesu guziaz.

Gurekin kontaktuan jartzeko:

Argibide gehiago nahi duenak, aski du Iturengo Eskolara deitzea, telefonoa 451554, eta Begoña Iltzarbez galdetzea.

Aldiberean, norbaitek material hau erabiliko balu, bere iritzia eta ikasleekin burututako lana eskuratzeari ere interesatuko litzaiguke.



● Xetela Dela Taldea ●

LANA



Lan-poltsak sortu dituzte Baztan Lesaka eta Berako Udaletxeetan

Baztan, Lesaka eta Berako Herriko Etxeek, udal lan-poltsak sortu dituzte. Zerbitzu berri hau koordinatzen, Itziar Urbiola, Lanerako Orientazio Zerbitzuko teknikaria arituko da. Lan-poltsen bitartez, edozeinek lan munduari buruzko zalantzak argitu ahal izanen ditu. Elizondon, Balleko Etxeko bigarren pisuan egonen da, astelehen eta asteazkenetan, 11etatik 2etara. Beran, berriz, ordutegi bera izanen da, baina hilabeteko bigarren eta laugarren ortzegunetan.

KOMUNIKABIDEAK



Telekomunikazio zentroetarako bideak moldatuko dira

Telekomunikazio zentroetara joateko bideak moldatzeko proiektua eta kontratazio espediente onartu du Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikabide sailak. Lanek 7,5 milioiko aurrekontua izanen dute eta 59 zentroetarako bideak konponduko dira. Eskualdeari dagokionez, Arraioz, Doneztebe, Eratsun, Goizueta, Leitza, Lesaka, Oronoz-Mugairi, Saldias eta Zubietako antenentarako bideak moldatuko dira.

TELEBISTA



Kate pribatuak ikusteko aukera izanen dute Zugarramurdi eta Urdazubiko bizilagunek

Ekainaren 19tik aitzinera, Antena 3 eta Tele 5 telebista kateak ikusteko aukera dute Zugarramurdi, Urdazubi, Dantzarinea, Landibar, Telleria eta Leorlasko bizilagunek. Telebista errepikagailu berriak martxan ezarri zen egun horretan, bi kate horiek hartzeko prestatua. Bigarren fase batean, gauza bera eginen da Arraioz, Goizueta, Oronoz-Mugairi, Saldias eta Zubietako antenekin. Hirugarren fasean, azkenik, antena hauetatik Canal + ikusteko aukera izanen da eta erreseerbarako ekipamendua jarriko da.

IZOKINAK



Bidasoako izokinei buruzko bideoa karrikaratu dute

Nafarroako Gobernuak Ingurugiro Departamentuak, izokinaren ezaugarri biologikoak ezagutzera emateko asmoz, Bidasoako izokinari buruzko bideo bat editatu du berriki. Gainera, espezie honen berreskurapenerako 80. hamarkadaren amaieratik honat egiten ari diren lanak zabaldu nahi izan dituzte bideo honen bidez; enpresa hidroelektrikoekin urte osoan zehar ur ugari izateko sinatutako akordioa, pasabide zailtan arraintzako eskalak paratzea eta Nafarroako erreka garbitzeko eraiki diren garbiketako estazioak, besteak beste.

EHIZA



1997-98 denboraldirako ehiza egunak zehaztu ditu Gobernuak

Nafarroako Gobernuak igorri duen prentsa oharren bitartez, jakinarazten da espezie bakotza ehizatzeke finkatu diren epeak. Hauexek dira, hurrenez hurren: Basurdea, datorren irailaren 4tik 98ko urtarrilaren 25a bitartean ehizatzen ahalko da. Untxia azaroaren 1etik abenduaren 28ra, ortzegun, larunbat, igande eta besta egunetan, oilagorra, berriz, urriaren 15etik urtarrilaren 25erarte. Usoa ehizatzeke egunak ere zehaztuta gelditu dira honenbertez, eta Nafarroako iparraldean abuztuaren 15ean idekiko da epea, eta egunean 3 pieza baino gehiago ezingo da ehizatu.

ESTADISTIKA



Nafarroan biztanleria egonkortu egin dela diote estatistikek

«Nafarroako Biztanleria Estatistika. 1996» ikerketak erraten duenez 520.574 biztanle zeuden Nafarroa osoan iaizko maiatzaren leian. Populazio hazkuntza haundiena izan duten lurraldeak Iruñea alde horretakoak ditugu, eta gure zonaldean, garrantzi guttiko igoera izan da biztanle kopuruan. Datu hauetan ageri denez, gainera, Nafarroa zahartzuz joaki da, 1975ean 64 urtetik goitikoak %11 inguru baziren, gaur egun %17 baino gehiago baitira.

Ipar Euskal Herriko ekonomiaren etorkizuna mahaigainean

Ipar Euskal Herriko ekonomiaren zutabe sendoenetakoa dugun laborantza, azken urteetan krisi egoera larria pairatzen ari da, eta intentsifikazioa bertez aterabiderik ez zaio bilatu orain arte. Merkatuak eskatzen duenari erantzunez, prezioak merketzea izan da mendialdeko laborariei geratu zaien aukera bakarra.

Bertzetik, mendialdean gastuak haundiagoak diren neurrian, toki malurtsuak utzi eta lautadara joatera bultzatzen ditu laborariak, eta horrek mendialdeko herrien bizitza arriskuan jartzen du. Hau ere intentsifikazioaren ondorioa da.

Intentsifikazioari alternatiba edo irtenbidea ematen ez zaien bitartean Iparraldeko laborantza desagertuz joan da, eta horrekin batera herriak hustu eta desertifikazioa gehitu ere egingen da. Arazo hori bere osotasunean hartu behar da, behin betikoz eta ez tokian-tokiko soluzioak eman orain arte egin den gisan.

Leader II programa

Gaur egun Ipar Euskal Herriko mendialdearen egoera zein den eta etorkizunean segitu beharreko ereduak zeintzu izanen diren luze eta zabal eztabaidatzea da Leader II pro-

gramaren helburua. Nafarroa behe-rea eta Zuber oan ikerketa sakon bat antolatu dute horretarako, eta herrietako zenbait ordezkari, laborari, sindikatuak kide eta biztanleek parte hartuko dute, Frantziako Agronomia Institutuko (INRA) adituen laguntzaz. Leader II programak Ipar Euskal Herrian dozena erdi proiektu ditu egun.

Alde batetik, mendialdeko laborantza aztertu da azken urte honetan Leader II programaren barnean, eta hemendik aitzin bideragarritasun ekonomiko eta soziala aztertzen bertez urtebete emanen dute.

Geroari buruz

Lehenbizikoz gaur egungo ekoizpen estrategiak aztertu eta produktu zein eremuen ahalmen ekonomiko baloratuko da, eta sintesi bat egin, etorkizunari begira hartu beharreko ekimenak erabakitzeke.

Esperientzia berriak hasitzea beharrezko ikusten dute adituek, hazkuntza modu berriak edo produktio molde berriak entsaiatzeko dagoen beharra azpimarratuz.

Guzti honekin, Ipar Euskal Herriko existentzia ekonomiko eta soziala dago jokoan.

PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN

ZERRIKUMEA

* 20 Kilokoa

Azkeneko joera



ZERRI GIZENA

* 95-100 kilo artean Pta./K.

Azkeneko joera



Enaquesa enpresaren ustezko iruzurra ikertzen ari da Agoizko epailea

EHNEk salatu duenez, Erronkari jatorri izeneko 30.000 gazta egin dituzte Frantziako esnearekin

Epaileak agindutako miaketaren ondorioz Erronkari jatorri izeneko 30.000 gazta atzeman ditu Polizia Judizialak, Zangozan fruta gordetzeko erabiltzen diren hozkailuetan. EHNEk segurtatu egin du Enaquesak Frantziatik ekarritako esne litroak eta aurkitutako gaztak bat datozela.

Nafarroako Gobernuari euren susmoak azaldu eta honek ikerketa hasi zuenean Enaquesa enpresa Zango-


zara hainbat gazta garraiatu zituela jakinarazi zuen EHNEk, eta iruzurra argitzearen beldur zirelako jokatu zutela horrela uste du abeltzain eta nekazarien sindikatuak.

Nafarroako Gobernuko Nekazaritza sailak martxan paratutako ikerketa mategia zela eta, Agoizko epailearengana jotzea erabaki zuten EHNEkoek, eta sekretupeko auzia izendatu ondok, afera hau ikertzen dihardu oraindik ere.

Ikerketa hasi eta segituan Zangozako Frigorificos Falcón enpresako hozkailuak miaztea

agindu zuen epaileak, eta bertan 29.568 ardi gazta harrapatu zituen Polizia Judizialak, Erronkari Haundia jatorri izena irakur zitekeen txarteltxoan ondutan, baina etiketarik gabe. Aurtengo urtarrila eta apirilera bitartean 456.000 litro esne ekarri zituen Enaquesak Frantzia aldetik, eta gutti goiti beheiti esne horrekin egin daitezkeen gaztak atzemandakoe kin bat datoz, EHNEk dioenez.

Zangozan gordetako gaztak Frantziako esnearekin eginak direla egiaztatuko balitz, Ena-



Zangozako enpresa batetako hozkailuetan gordeta, Erronkari Jatorri izeneko 30.000 gazta aurkitu dituzte.


quesaren iruzurra erabatekoa litzateke, Erronkari Jatorri izeneko gaztak egiteko latxa ardiaren esnea erabili behar baita, derrigorrez. Gainera, Jatorri izenaren araudiak agintzen duenez, ondu ere bertako gaztandegietan ondu behar da.

EHNE sindikatuak Nafarroako esne produktioari hau bezalako jokaera iruzurtiekin egiten zaion kaltea azpimarratu nahi izan du, izan ere, hemengo esne litroa 25 pezetaraino jautsi baita inportazioen eraginez.

Enaquesa enpresako zuzendaria eta aldeberean Erronkari Jatorri izeneko Kontseilu Arautzaileko lehendakaria den Patxi Iraizoz haserre agertu da salaketa hauen aurrean, eta leporatutako iruzurrak

ukatu egin ditu. «Guk era guztietako gaztak egiten ditugu, ardi gaztak eta nahasketakoak, jatorri izenekoak eta bestelakoak, eta beti betetzen dugu legea. Gaztak nahi ditudan tokian gorde ditzaket, Erronkarin, Zangozan, Madrilen edota Valladoliden. Inork ezin dit debekatu hori», kexu agertu zen Iraizoz.

Bertzetik, Zangozan aurkitutako gaztak Erronkari Jatorri izenez saltzeko intentzioa zutenik ukatu egin zuen, «lantegi barruan gaztari nahi diogun izena jarri ahal diogu. Gazta etiketa duenean bakkari dajatorri izenekoak; ordurarte gazta hutsa da». Ikusi beharko da Agoizko epaileak nori ematen dion arrazoia.




Zangozan atzemandako gazten ondoren horrelako txarteltxoak zeuden, gaztaren jatorri izenarekin: Erronkari Haundia.

ARETZE GIZENA

● IDIXKOAK (Pla./Kg. kanal) 1.koa
● URRUXAK (Pla./Kg. kanal) 1.koa

Azkeneko joera



ARETZE TTIKIAK

● NABARRAK
● MESTIZOAK 15 egun inguruko IDIXKOAK

Azkeneko joera



ERREPIDEAK

1998-2005 Urtetarako Errepideen Plan Zuzentzailea aurkeztu du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuak ekainean onartu zuen 1998-2005 urtetarako Errepideetako Plan Zuzentzailea. Plan honen arabera, 133.000 milioi pezeta inbertsioa egingen da urte horietan zehar Nafarroako karreteratan, bideetako segurtasuna haunditu eta lur gaineko komunikabide zerbitzu egokia eskaintzeko helburuarekin.

133.000 milioi pezeta horietatik, 16.567 (%12,5) autobiak eraikitzeko eta galtzada bikoizteko erabiliko dira. Interes orokorreko sareetan 27.775 milioi pezeta (%20,9) gastatuko da, Nafarroako sarean 10.250 milioi (%7,7) eta eskualde eta herri mailako errepide sareetan 18.180 milioi pezeta (%13,7). Saihesbideak eraikitzeko, 10.085 milioi inbertituko dira (%6,6); Iruñerriko komunikabideak hobetzeko, 13.858 milioi (%10,4); proiektu eta estudio orokorretan, 1.740 milioi (%1,5); kontserbazio eta zoladura lanetan, 21.225 milioi (%16); zeharbide eta puntu arriskutsuak hobetzeko, 7.360 milioi (%5,5). Honetaz gain, Plangintzak gainerako %4,3a ingurugiroari eta teknologiari lotutako alderdiei bideratzen du.

Eskualdeari dagokionez ere, hainbat lan aurrikusi dira, batez ere N-121-A (Mugairi-Behobia) eta N-121-B (Mugairi-Dantxarinea) errepideetan. Eraberean, Bera-Ibardin, Lesaka-Oiartzun, Doneztebe-Orokietia eta Leitza-Donztebe errepideak moldatuko dira, bertzeak bertze. Izan ere, Planak berak onartzen duenez, Nafarroa eta Iparraldearen arteko komunikazioak –tradizionalki kalitate guttikoak izan direnak– «*nabarmenki hobetuko dira*» Iruña-Belate-Frantzia ardatza akitzerakoan. Halere, edozein modutan Irun-Behobia inguruan «*botila-lepoa*» sortuko dela uste du Plangintzak, «*ez bakarrik Nafarroako trafikoa arendako, baita estatu eta nazioarteko trafikoa ere*». Hau dela eta, «*epe ertain-luze batean*», Sorogainen barna igaroko litzatekeen Iruña-Frantzia autopista egitea planteatzen da Planean. Nafarroako Gobernuaren ustez, autopista hau «*Madrid-Soria-Tutera autopistaren jarraipen naturala*» izanen litzateke eta Bordele-Paris errepidearekin lotuko litzateke. Plan honetan, halere, ez dira autopista honen lanak zehazten, baina alde zuzeneko estudio eta proiektuak egitea aurrikusten du.



IRUÑA-FRANTZIA (Belatetik)

- 1 **Zozaiia-Mugairi-Donztebe**
3.500 milioi pezeta inbertsioa 1998 eta 2001 urteen artean. Belateko lanen 2. fasea da (10 km.)
- 2 **Arrigaztelu**
Sunbillako saihesbidearen ondotik, 2 km.ko bide berria, 200 metroko tunela eta zubia barne. 1999an hasiko da eta 1.200 milioiko aurrekontua du.
- 3 **Larrakaitz**
Hemen ere 2 km.ko bide berria egingen da, 400 metroko tunela eta bi zubi. Lanak datoren urtean hasiko dira, 1.600 milioiko aurrekontuarekin.
- 4 **Igantzi-Bera**
Berako saihesbidera arte, gainerako errepide zatia (7 km.) moldatuko du, 4.800 milioitan. 530 metroko tunela Berrizaunen eta 300 metrokoa Lesakan. 2001. urtean hasiko da.
- 5 **Bera-Behobia**
9 km. Hiru karrileko bidea, hiru tunel labur eta 250 metroan Biriatur, hau da, Iparraldean sartuko da. 4.800 milioiko aurrekontua. 2000. urtean hasiko da.
- 6 **Irurita-Elizondo**
Bide berriak herrigunea inguratuko du Iparraldetik, Arraiozko saihesbidearekin elkartuz. 1.200 milioiko aurrekontua, 6 km. eta 1999an hastea espero da.

7 Otxondo

Dantxarinearako bidea hobetu nahi da, bihurguneak kendu eta 3. karrila sartuz. 22 km 1.800 milioiko aurrekontuarekin (bertze horrenbertze, lurak eta zerbitzuak erosteko). 2.002 urtean hasikodira.

HERRI SAREA

- 1 **Bera-Ibardin**
80 milioi 5 km. egiteko. 1998an hasiko dira. Turismoarako interes komertzialeko muga errepidea.
- 2 **Lesaka-Oiartzun**
Bortzirak eta Donostialdea lotzen dituen errepidearen zati batzuk moldatuko dira. 2001 eta 2003. urteen artean egingen da. 16 km, 600 milioiko aurrekontuarekin.
- 3 **Donztebe-Orokietia**
Iruña eta Belate arteko komunikabide baten hobekuntza. 700 milioi 18 km. rako, 2003 eta 2005. urteen artean.

NAFARROAKO SAREA

L-D Leitza-Donztebe
Autobia eta Belate lotzeN dituen ardatzaren hobekuntza. 25 km.ak bi tartetan egingen dira (1998-2000 eta 2003-2005). Aurrekontua: 2.300 milioi pezeta.

□ **Arraiozko saihesbidea**
Datoren urtean saihesbidea egingen da, 50 milioiko aurrekontuarekin.

Juainas PAUL

«Sorginkeria; gaitz guziendako estalkia... errepresio guziendako bidea» (II)



Bistan denez, deabruak denetik egin eta eginarazten zuen: haurrak egosi, ipurdian muxua emanarazi, berriz bataiatu edo gurutzea zanpatuarazi...

Mundu guztiak zer daki? Ba ote da mundu guztiak berdin ikusten duen zerbait?

Sentencia del Consejo Real de Navarra, absolviendo de toda culpa a María de Ituren, Catalina de Armaniac (Bera), Graciacho de Aúrtiz (Lassaga), Johan Périz de Ituren y algún otro acusado.

«...atendiendo que el procurador fiscal, parte demandante, no ha probado cosa alguna de lo que se ofreció a probar, por donde las partes demandantes ayan de ser condenadas encosa alguna, por su demanda contenida, por tanto, por esta nuestra sentencia difinitiva, damos por quitos y absueltos a los dichos defendientes, de la demanda por el dicho procurador fiscal contra ellos propuesta, absolviendoles de la instancia de la presente causa...».

Batzuetan, gutxietan bada ere, torturari aurre eginenez —«La qual aunque grabemente atormentada, siempre insistio en la negativa y dixo que nunca pluguiese a Dios que ella dañase su anima, confesando falsamente cosa alguna, y que mas no queria»— lor dai-teke.

Inguru hauetan libre atetara ziren. Dena den, ga-

rai berdintsuetan, ekainan, Burgete, Aoitz eta alderdi haietan, 70-110 pertsona ajustiziatu —hil— zituzten.

Inkiszioak baretzen du agintari Zibil/militarren gogorkeria?

Orreaga aldean ibili zena, Balanza lizenziatu jauna, Nafarroan ezaguna zen. Ezaguna zen gerra zibilan Gaztelaren aldekoa azaldu zelako. Are gehiago, inguru hartako sorginkeriak zigortu ondoren, Behe Nafarroara jo zuen, eremu hura Gaztelako Koroarentzat lortu nahirik.

Deabruaren parte hartzea zen afera...

«...que no creyesen que había brujas ni brujos, porque no los había, sino que el Diablo les hacía decir a algunos que había brujos, y que no sabían lo que se decían ni les debían dar crédito», zioen Isabako apezak zenak, 1538an.

Bi urte pasata ziren Nafarroako Gorteak, aldiz, Erregeari honako hau eskatzen zioela:

Aurreritzien zama,
dударik gabe!

Orduan eta orain,
sinetsi nahi duguna
sinisten dugu.



Marraskian deabrua sorgin bat bereganatzen

«...porque seria muy gran seruiçio de nuestro Señor, que el pastor (apezpikua) resida donde sus obejas; que por causa de no aber estos muchos años obispo residente, las iglesias deste Reyno an sido y son mal regidas y gouernadas, y an suscedido algunos errores, como son los de las brujas y otros, que no se castigan al estar el prelado absente».

Apezak dirudite, orduan, epe-lenak. Goñi doktoreak zioen, 1539an, «que el se abia visto con ciertos inquisidores... y que abia ablado sobre brujas, y que vinieron a concluir que era mas ficcion que sueños de verdat...».

Zer ondorioztatu daiteke guzti honetatik? Aurreritzien zama, dudarik gabe! Orduan eta orain, sinetsi nahi duguna sinesten dugu.

Eta gure eremu hauetara itzuliz, batere garbi ez zegoen... bapatean... gardena: Iru-di hauek egi eta fedea bihurtuko dira, baldintza berezi batzuen pilaketa gauzatzen de-nean...

Horiek, bertze batean.

(Jarraituko du)

ADMINISTRAZIOA

Udalen elkarlana, lehen eta orain

XVII. mendetik hasita ugariak ziren herrietako agintarien arteko bilerak

Gauza berritatzat jotzen ahal du, batek baino gehiagok, Herrien gaurko elkarlana, herrien artean gaur burutzen diren proiektuak: Zabortegiak, Gizarte Zerbitzuak, Zaharretxeak, Euskararen zaintzea, etabar. Horien antolatzeke sortzen joan dira, errate baterako Bortzirietan nahiz Malerrekan, Gizarte Zerbitzuen Mankomunidadea, Hiri Hondakin Mankomunidadea, Euskara Mankomunidadea. Edo eta Baztan, Bertizarana, Malerrika eta Bortzirietako alkateen bilerak, zeinetan azterten eta bultzatzen dituzten eremuko arazo eta kezka nagusiak, hala nola, industrialdeak, errepideak. Bertizko Turismo Partzuergoan ere partaide dira zonako Udalak. Gauza hauek lehen ez zirela eta, Udalen arteko elkarlanik ere ez zela pentsatzera jotzen ahal du. Baina ez da hala.

Joan berri diren urteetan finkatzen baditugu gure begiak, orduan bai, berritasun nabarmena idurituko zaigu gaurkoa, behar bada. Aintzineko 30-40 urteetan, Udal bakoitza bere aldetik ibili da, gehienetan, eta arazo eta bere barrengo egin-kizunei bakarka egin die aurre. Gure begirada gehixeago luzatzen badugu, ordea, ez dugu hain berria dela erraten ahal Udalen elkarlana. Berrehun eta hirurehun urte lehenagoko paperetan ageri denez, Herriko etxe bateko eta berteko gizonak elkarrekin biltzea, prolema amankomunez hitz egitea, eta horietako batzuk gainditzeko elkarrekin aritzea ohitura ezagunak ziren, eta aspaldiko ohiturak, gainera, itxurak dioenez.

Baziren harremanak eta bilerak mugakideekin, mugarekin edo hurbiltasunarekin ze-

rikusia zuten aferengatik: mugariak begiratzea eta errespetatzea, muga-larreak nola erabili eta ze baldintzatan, nola jokatu batetik bertzerantz azientak pasatzen zirenean, etabar. Afera horiek ia-ia funsgabekoak iduritzen ahal bazaizkigu ere gaur guri, lehen, lanbide eta bizibide nagusia, edo ia bakarra, lurgintza eta aberegintza zenean, eragin eta ondorio handiko gaiak ziren. Lizarietatik Domikusantzerainoko mugarriz hitz egitera, 1686. urtean, Etxalarko alkatea, zinegotziak, eskribaua eta diputatuak joan ziren, eta Saratik bertze hainbertze etorri ziren. Hor ageri da gaiak haientzat zuen garrantzia. Gisa horretara biltzen ziren, eta batzuetan jende gehiago, bazkaz eta mugalarreez solastu behar zenean. Sararekin bezala, bertze ingurukoekin. Bizpahiru urtetarako hitzarmenak edo akordioak sinatzen zituzten, baita urte gehiagotarako ere, azientak bazkatzeko baimenak, baldintzak eta ordaindu beharra zehazten zituztenak.

Harreman ugariagoak aipatzen dira, Bortzirietan osatzen duten Udalen artean, bai banakakoak, bai taldekakoak. Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako udalbazkideak, bizpahiru herri bakoitzeko, urtean bospasei aldiz biltzen ziren, banaz bertze. Lesakako zubi ondoko Bereaun, hain zuzen. Eta bilkura horiek ez dira urte batzuetako itxorioa, baizik eta gutienez 17, 18 eta 19. mendeetan barrena luzatu zi-

«Bortziriek bazuten 1675ean sinatutako hitzarmena, 'lapurrak harrapatze lanetan bat egiteko'»



Udal gizon eta agintarien arteko bilerak, gaur egun ugariak badira ere, ez dira oraingo kontuak soilik

renak. Batzarlekuak edo biltokiak jakinak izaten ziren: Bortziriena Bereaun; Berako udalbazkideekin bakarka biltzeko, Matxarraingo Benta; Saratarrekin Nabarlasa edo Lizarrieta. Frantsesekin gerrateak gertatzen zirenean, bilkura bereziak egitera behartuak zeuden, herri gehiagoren artean, eta urrunago batzuetan, Donezteben, adibidez. Elkarlan eta bilerak ehizarako izaten ziren, bertzetan, otsoak harrapatzea herri batzuetatik bertzetara deitzen baitzuten. Oiartzun eta Irunekin ere bildu beharra izaten zuten batzuetan, 1686an bezala, bide-lapurrak nola harrapatu eta zigortu ikusteko.

Bide-lapurrek eta azienda-lapurrek kezka franko sortzen zieten Udalei. Lapurrak nonahi baldin baziren ere, muga inguru hauetan ugariago. estatu

frantziarrek edo Gipuzkoako mugak ihesbide eta babeserako aukera gehiago eskeintzen zirelako edo. Herritarrek zaintzea, denbora horietan, Udalaren esku zegoela ahaztu gabe, bai bertakoan gaiztakerietatik, baita kanpotarren erasoetatik ere, frantziarren inbasioak errate baterako, lehenbiziko momentuan bederen. Eta, gutienez, mugetan maiz ibili behar izaten zuten, arriskurik bazeuden edo ez ohartu eta Iruñera gaiztatzeko. Zaintza lan horien betetzeko herritar boluntarioak biltzen zituzten Udalgizonek, eta, ahal zenean, bertze herrietakoekin elkartzea gomenei zitzaien. Bortziriek bazuten 1675ean sinatutako hitzarmena, 'lapurrak harrapatze lanetan bat egiteko'. Gaiak eta beharrak ezberdinak, baina elkartzea eta elkarlana komenigarria eta nahitaezkoa, lehen eta orain.

Ramón APEZETXEA

«Oronozko San Martin “Lanbide Eskolak” ibilbide luze eta bikaina egin du»

Duela 23 urte sortu zen Nekazal Lanbide Eskola Oronoz-Mugairen. Luzea izan da bere lana, eta herriendako hagitx onuragarria.

OHO akitzerakoan gazteak (nekazari eta abeltzainen seme-alabak, batez ere) etxean gelditzen zireneko garaiak ziren haiek. Horrela segitzeko-tan, oinarrizko heziketa hori bertzerik izanen ez zuen jende aunitz izanen zen gauegun eta horrela arras zaila da herrietako bizitza aberastu eta sustatzea.

“Zerbait gehiago” egin behar zutela buruan sartzeko, beharrezkoa izan zen herrietara, eskoletara eta etxeetara joatea. Lan gogorra, baina 23 urte hauetan zehar bere fruitua eman duena. Agroporku-ariak, Oihangintza, Nekazal Mekanika, Hosteleritza eta Haurtzaintza ikasi duten 1.200 ikasleak dira lan horren emaitza. Espezialidade hoiek berezkoak dira zonaldean, eta beraz, behar beharrezkoak. Nafarroa

osoa ikasgai hauek ematen zituen eskola bakarra genuen San Martingoan, Agroporkua-

riak, Oihangintza eta Nekazal Mekanika batez ere.


Alternantzia sistema

Nafarroan ezohikoa den sistema batekin funtzionatu du: aste bat eskolan eta beste praktikak egiten enpresatan; alternantzia sistema. Sistema honeri eskerrak, ikasleek etxean lagundu zezaketan, herriko bizitzatik aldendu gabe eta ikasketak osoagoak eta eramangarriagoak eginez.

Zergatik paratu genuen erresidentzia bertan? Hau baitzen bertze zona aunitzetako ikasleak etor zitezten manera bakarra, ezin zutelako egunerogunero etxera itzuli.

Eskola bat itxizten den aldiro, ttikia izanik ere, zonaldea, herria pobretu egiten da.

Ez da 14-16 urteko neska-mutikoen eskola soilik izan. Helduekin ere lan handia egin



Ramón Apezetxea 23 urtez izan da San Martin eskolako zuzendari.

du: abeltzainendako heziketa kurtsuak, solasaldiak, hamarnaka bilera, udako koloniak, euskara ikastaroak, ingelesa...

Zergatik akitzen da orainarteko lana?

Lan guzi hau oraintxe akitzen da. Zergatik? Gobernuak, Nafarroa osoan egiten ari den erreformarekin, FP1, REM eta BUPeko 2. maila kenduko ditu aurten; hurrengoan BUPeko 3. maila eta FP2a, eta horrela... Orain 16 urteak arte egonen dira eskoletan; beraz, ezin dira 14 urteetan atera, eta hoietxek ziren gurera etortzen zirenak.

Amaitu egiten da, beraz, le-

geak hala agintzen baitu.

Ixtearen ondorioak

Ondorioak? Eskola bat itxizten den aldiro, ttikia izanik ere, zonaldea, herria pobretu egiten da. Kasu honetan, espezialidade hauek zonalde honetan ez direlako emanen, alternantzia sistema desagertzen delako, eta baita eskolaren laguntzaz egiten ziren bertze zenbait aktibitate ere.

Eskola honek eskeintzen zena eskeiniz ehundaka ikasle etortzea lortu baldin bada, izan daiteke ESO akitzerakoan asko eta asko etxean gelditzea. Zonalde honetan 12 bat espezialidade ematen baziren, orain erdira murriztu daitezke, eta berdin profesionalki prestatua dagoen jendea ere.

LITERATUR LEHIAKETAK

Iruñeko Udalak antolatuta, XI. Literatur Lehiaketa Egile Berrientzat

Iruñeko Udalak, gure inguruan euskaraz egiten den literatur produkzioa eta haren egileak bultzatu nahirik, 1.620.000 pezeta-ko sariez hornituriko literatur lehiaketa antolatu du berriz ere.

Denetara, lau sail desberdin izanen ditu aurtengoan: *Olerkia, Narrazio Laburra, Bertso-paperak* eta *Komikia*. Aipatu lehiaketan, beren helbidea Nafarroan finkatua duten guztiek parte har dezakete, eta idazlanek, gai librean, honako baldintzak bete beharko dituzte:


- 1 Euskaraz idatzita egotea.
- 2 Jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izatea.
- 3 Egile bakoitzak sail bakoitzean lan bakar bat aurkeztu ahal du.
- 4 Bere izenpean literatur edukinezko obrak argitaratu dituen egileak ezin izanen du bere lanik aurkeztu. Elkar lanean argitaratu diren lanetan egindako partaidetzak ez dira mugapen honetan sartzen.

Lanen luzaera

Olerkigintza sailean aurkeztu behar diren lanak gutxienez 15 folio eta gehienez 25 izanen dute, biko epeaz eta paperaren alde batetik idatziak.

Narrazio laburreko sailean, bestalde, gutxienez 15 folio eta gehienez 40, hauek ere biko epeaz eta paperaren alde batetik idatziak.

Bertso paperen modalitatean 25 bertso gutxienez eta 40 gehienez. Elkarrekin lotura orokorra duten



Lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira Iruñeko Erregistro Ofizialean

gai ezberdinak jorra daitetze, bertsoaritzaren arau formalak beteaz.

Komiki sailean, azkenik, DIN A4 tamainan edo formato horrekin proportzioa duen edozein tamainetan aurkeztuko dira lanak. Koloretan baldin badira gutxienez 5 orrialde eta gehienez 7; zuri-beltzean izanez gero, 5 orrialde gutxienez eta 12 gehienez.

Epeak

Lanak Iruñeko Udalaren Erregistro Ofizialean aurkeztu beharko dira 1996ko urriaren 31 baino lehen.


Komikietan izan ezik, lan bakoitzaren 5 kopia aurkeztu beharko dira izen-

orde batez sinatuak eta lehiaketaren zein atalari aurkeztu diren ongi adieraziz, ondoan eta sobre hertsian jakineraziko dira egilearen izen-deiturak, sorlekua, helbidea eta telefonoa.

Sariak

Modalitate bakoitzean hiru sari banatuko dira guztira: 200.000, 120.000 eta 60.000 pezeta-koak bakoitza. Sari hauez gain, epaimahaiak 25.000 Ptako. lau akzesit banatzeko ahalmena izanen du zein sailetan aurkeztu diren begiratu behar izan gabe.

Bertze edozein xehetasun jakin nahi izanez gero, deitu Iruñeko Udalara.



Garai batean bainuetxea zena egoera tamalgarrian dago gaur egun.

1998an hasiko dira Elgorriagako bainuetxea moldatzen

Bainuetxe zaharra berreraikitzeko asmoa du Elgorriagako Herriko Etxeak, 3 urtez geldirik egon eta gero. Nafarroako Gobernuarekin proiektua finantziazteko akordio batera ailegatu baitira. Orain arte dirulaguntza ukatua zion, baina Gobernuak 800 milioiko aurrekontuaren %30a estaltzeko prest dago orain, diru kopuru horren %20a ordaintzea Elgorriagako Udalaren ardura bada ere. Bertzaldez, aurrekontuaren %50a Sustapen Ministerioak jarriko du.

Proiektuan 120 plazako hotela eraiki eta bainu-etxea moldatzea aurrakusten da, eta herriko alkate den Joxe Mari Galarregik adierazi duenez, «proiektuarekin 35 edo 40 lanpostu finko sortuko dira, eta zonaldeko garapen ekonomikoan pauso handi bat emanen».

Bainuetxeak eskeiniko dituen zerbitzuen artean, sendagarriak izanen dira nagusi, bertako iturburuak isurtzen dituen urak erreuma eta artrosia (bertzeak bertze) bezalako eritasunen aurkako ahalmen terapeutikoak baititu. Osasun eskeintza hau bizkortze, homeopatia, masaje eta gimnasia programekin osatuko da. Bertzaldez, ekintza turistikoak ere bultzatuko dira bertatik, kanpotarrendako izan dezakeen erakargarritasuna probetuz. Gainera, pintura ikastaroak, erakusketak eta asteburuko kirol aktibitateak eskeintzea pentsatua dago, eta baita naturaren interpretazio zentrua paratzea ere.

Joxe Mari Galarregik balnearioaren alde egindako ahaleginak eskertu nahi izan zituen, «beraien ardura gabe ez baitzen posiblea izanen orain ospatzen ari garena ospatzea».

Sugeen inguruan

Begien parean duzun testu hau 1982. urtean agertu zen Ttipi Ttapan, aldizkaria orduantxe sortu berria zela. Juanito delako batek sinatzen zuen behetikaldean, eta ikusiko duzunez, sugeei buruz aunitz zekien, non-bait.

Guri interesgarria iduritu zaigu hain aspaldi idatzitako lerro hauek berreskuratzea, eta harek idatzi bezal-bezalaxe utziko dizkizuegu. Hona hemen, bada, sugeei buruz beti jakin nahi izan zenuena eta inork kontatu ez zizuna.

Jende aunitzek beldurra dio sugeari, bertze batzuek gorrotoa eta bakarren bat ikusten dutenean, hura hil arte ez dute bakerik izaten.

Orain arte sugeak beldurgarriak direla erakutsi digute, baina hau ez da oraingo gauza, bibliaz gero sugeari bizia hagitz beltza jarri baitiogu.

Niri iduritzen zait sugeak ez direla hainen beldurgarriak, ezagutzen baititut eta bai baitakit zein diren pozoidunak eta zein ez. Orain ikusiko ditugu inguru honetan bizi diren sugeak eta eurek ezagutzeko seinalak eta bizimoduaren gorabeherak.

Suge-itsuakin hasiko gara: Ez du pozoirik, aunitz ikusten da gure soroetan, baina eskasten ari da bertzeak bezala. Uher dirdiratsua da eta luzetasun ttikia izaten du, erraz puskatzen da eta soroko armigoz eta mamorro ttiki guziez bazkatzen da. Jendeak hala uste badu ere, ez da itsua.

Suge-urdina: Bertzea baino eskasagoa da soro bazterretan eta mendian bizitzen dena, baina beti sasi edo harmasa batzuen ondoan zerbait sumatzen dutenean gordetzeko, alegia. Luzetasun ederra dauka eta urdintsua edo ilunagoa izaten ahal da larrua aldaberria edo zaharra duenean.

Batzuk suge ilunagoa ikusten dutenean

bertze sugea dela uste dute, "Malakasta" deitzen diotena. Mamorro aunitz, saguak, apoak, etab. jaten ditu. Berez nahiko motela da, baina eguzki ederra denean agudo bizkortzen da; eta ehizian dabilenean hagituz ederra eta ikusgarria da; ez du pozoirik.

Lepoxuria: bertzea bezala sorotan eta menditan bizitzen da, arestikoa baino beltzagoa eta lepoan koilare xuria dauka. Bere bizimodua suge urdinaren gisakoa da, hura baino bizkorragoa da eta ttikiagoa, non-bait sumatzen duenean laister gordetzen dena; ez du pozoirik, jende aunitzek bertze aldera pentsatzen badu ere.

Azkenerako suge gorria

gelditu zaigu: Suge gorria da pozoidun bakarra eta horregatik errespitu pixko bat behar diogu. Gehienetan luzetasun ttikikoa da, baina gorputz gizona eta buztan motza; marroia da eta badauka marrazto bat alde batera eta bertze-
ra bizkar gainean. Bertze sugeak beren janariak bizirik iresten hasten diren bitartean, honek autsiki egin eta hil ondoren irensten ditu; eta beti irentsi egiten dute hila edo bizia, haundia edo ttikia. Suge gorria da gure inguruko sugeen artean bereziena eta ezagutzeko ez da zaila.

Inoiz bide batean subertzen bazaigu suge bat bidea guruzten edo bazterrean eguzkia hartzen, hurbilduta zaude begira; laister eskapo gordetzera baldin badao, utzi, ez da suge gorria izanen. Suge gorria, inor hurbil ikusten duenean, bertan gelditzen baita bilu-bilu egin eta, burua erdian eta lepoa atzeratuz, inork ukitzean autsiki egiteko prest. Bizia eta bizkorra da; makil edo

bertze zerbaiten bidez berari gorputza ukitutuz gero, ez da erraz autsikirik egin gabe geldituko.

Badauzka bi letagin, barrendik hutsak eta meheak, baina pozoia ez dauka letagine-



tan, ahoaren barrenko aldean baizik gaineko hortz ttikien atzeko aldean.

Noizbait suge gorri bat borts hilabetez eduki nuen kaja batean eta harek erakutsi zidan gauza aunitz, errate baterako, inoiz ez zuela autsikirik egiten ez bazitzaion ukitzen.

Autsikiak: Suge gorriak autsiki egiten duenean, zer egin? Ez beldurtu, egon lasai, inoiz ez laisterka hasi. Ikusi ongi non den autsikia eta lotu haren gainean, painulo,

lokarrari edo gerritako bat, odola ez pasatzeko moduan. Ondotik autsikia ideki nabala edo bertze zerbaiten bitartez eta txupatuz odola eta pozoi gehiena ateri. Hau laister egiten baduzu ez duzu beldurrik behar, baina lehen bait lehen mediku baten-gana joanen zara.

XEHETASUN BATZUK: Sugeak

gorrak direnez gero, ez dute aditzen; saltorik ere ez dute egiten, antzineko aldean bakarra goratzen dute lurretik. Mingainaren bidez sumatzen dituzte soinua; horregatik zerbait sumatzean mingaina barrenerat eta kanporat ibiltzen dute, baina mingainean ez dute pozoirik aunitzek uste duten bezala. Laister ttikia egiten dute eta hagituz garbiak dire; lohia guruztu ondoren eskutan hartzen badituzu ikusiko duzu

ez dutela zikintzen.

AZKEN LERROAK: Ikusten dugu, bada, sugeak baserritarrari eta bertze jendeari kalte egin beharrean on egiten diola. Horregatik hemendik antzina lasai bizitzen utzi behar genioke. Nahiko kalte egiten diote sugeari segadorak eta negu epelak. Naturalezari utzi behar diogu bere neurriak hartzen animalia guzien bizimoduak erakusten digun bezala. Gure semeek eta semeen semeek bertze modura ikus ditzatela guk hain oker eta beldurgarri ikusten ditugun sugeak.

HEZKUNTZA

Nafarroan dauden 17 ikastoletatik 13 itxi nahi ditu Nafarroako Gobernuak

Berako Labiaga ikastolari ez diote DBHa ezartzeko baimenik eman

Javier Markotegi Hezkuntza kontseilaria Nafarroa osoan dauden 17 ikastoletatik 13 itxeko aukera mahaiaren gainera ateratu zuen Ikastolen Federazioko kideekin joan den ekainean izandako bilera batean. Iruñerriko hiru ikastola haundiak eta Lizarrakoa kenduta, bertze guzietan existitzeko arrazoirik ez dutela erran zien Markotegik.

Aipatutako lau ikastola haundi hoietan 3.500 ikasle inguru matrikulatu ziren iaz, eta bertze 13 ikastoletan, berriz, 2.500 ikasle aritu ziren denetara. Gure zonaldean, Bera, Elizondo eta Lesakako ikastolak izanen lirarteke kaltetuak, gobernuaren zerrenda beltzean sartzen baitira. Baina egoerarik larriena, bertzalde, Tuteran, Irunberri, Tafalla, Zangoza edo Cortes bezalako eremu erdaldunetan dauden ikastolek sofrituko lukete. Hango ikastolak itxi ezker ez legoike euskaraz ikasterik, D ereduko eskaintza bakarrik ikastolak dira-eta.

Bertzetik, diru kontuei begiratuta, utzikeria nabarmena somatu dute Ikastolen Federaziokoek Gobernuaren aldetik; 1995ean sinatutako akordioan kopuru zehatz bat finkatu zuten bi aldeek, irakaskuntzaren erreforma egiteko. Kopuru hori 2.000 milioi pezetakoa (80 milioi libera) zen, eta Gobernuak dirutza horren erdia jarriko zuela hitzartu zuten, bainan azken hiru urteotan milioi bat pezeta soilik (bat, bai!) jaso dutela salatu dute ikastolek.

Sosa arazoak ez dira nolana hikoak, baina hoiek ez dira Nafarroako Gobernuak ikastolei paratzen dien traba bakarrik. Izan ere, Berako ikastolari, adibidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) ezartzeko baimena ukatu egin baitio, eskatutako baldintza tekniko guztiak betetzen dituen arren. Instalakuntzen egokitzapena eta DBHa eskaintzeko beharrezko bertze baldintzak betetzeko epe bat finkatu die Gobernuak ikastetxe guzietan, baina Erramun Martiarena Labiaga ikastolako zuzendariak salatu duenez, euren ez diete onartu inongo denbora epe-

**«Bortziriek bazuten
1675ean sinatutako
hitzarmena, 'lapurrak
harrapatze lanetan
bat egiteko'»**

rik; «Hala esan ziguten: zuek lehen momentutik beteta eduki behar dituzue baldintza guztiak. Hori tamalgarrria izan zen, baina onartu genuen. Bete ditugubaldintza guztiak, eta, hala ere, ez digute eman baimenik». Halaber, Martiarenak salatu egin du Gobernuarekin sare publikoaren alde posizionatu dela.

Aipatu behar da azken lau urteetan gurasoen poltsikotik ordaindu direla DBHari dagozkion gastu guztiak. Berako ikastola da Bortzirietako ikastetxerik haundiena, eta Derrigorrezko Hezkuntzan

250 ikasle hartzen ditu. Horrexegatik ez dela bidezkoa Berako ikastola ixtea azpimarratu zuen Martiarenak, nahiz eta ikastola tikiak itxitzeko prozesua abiatu. Gainera, Labiaga ikastolak Bortzirietan euskalduntze prozesuari bultzada garrantzitsua eman diola gogoratu zuen, eta Gobernuak ez duela hori kontuan izan.


Hala ere, egindako eskaerei eutsi eta aitzinera segitzeko asmoa azaldu zuen Martiarenak, «gu DBHa lortu arte borrokatzeko prest gaude, irakasle, guraso, ikasle eta laguntzaile guztiok. Orain arte diskrezioz eta isiltasunez jokatu dugu, baina hemendik aurrera Markotegi jaunari bukatu zaio isiltasuna».

NAFARROAKO IKASTOLEN MAPA



Baztandarren Biltzarra Elkarte

«Heldu den urtean zerotik hasia gustatuko litzaiguke»



Aurten ez dugu Baztandarren Biltzarrik izan. 1963.etik honat urte bakar batean ere hutsik egin gabe ospatu da besta hau, eta hala ere, antolatzaileek 1997ko edizioa suspenditzea erabaki dute. Zergatik?

Baztandarren Biltzarra elkartekoez diotenez, egun horrek duen garrantzia ikusita, zaila izan da erabaki hori hartu eta jendeari jakinaraztea, baina arrazoi garbiak omen zeuden horretarako. Alde batetik, sentimendu falta nabarmena sumatzen zen azken urteetan, bestak bere identitatea galdu eta «*udan egiten diren jai egunetako bat gehiago bihurtu zelako*» elkarteko kide batek adierazi digunez. Bertetik, Baztango herriek ere ez zuten bertze urtetako ilusiorik, eta orga kopuruan isladatu zen gogo eskasia hori. 1996ko orga desfilean 7 edo 8 karroza ikusi ziren soilik, eta kontutan izan behar dugu ekitaldi hau dela bestaren muina, bestaren berezitasunik haundiena. Gainera, «*herriek ekartzen ez badute karroza, herri hoietatik jende heldua ez da etortzen igual, eta orduan Baztandarren Biltzarra sobera zentzurik gabe gelditzen da*» B.B. elkartekoen ustetan. «*Jende pila bat egoten zen azken urteetan, eta gu ez gaude kanpotarrak etortzearen aurka, alderantziz, baina baztandar jendea egotea*

beharrezkoa da» diote.

Jendeak nola hartu du?

Baztango herri guzietan izan dira B.B. Elkartekoak, egoraren berri eman, gai honi buruz sakonki eztabaidatu, eta herrietan bestarekin segitzeko sortu zitezkeen proposamenak biltzeko asmoz. Bilerahorietan ikasi dutenez, baztandarrek nahiko ongi ulertu dute besta bertan beheiti uztea, eta «*besta antolatzeko elkarrekin bakarrik eta nekatuta zegoela onartu dute denek, baina horrela bakoitzak zuen erresponsabilitatea desbideratu egin dute pixko bat, gure ustez, baztango guzien ardurak baita eta ez bakarrik elkartearena*».


«Elkarrekin indarberritu nahi dugu»

Zernahi dela ere, B.B. elkarrekin indarberritzea lehentasunezkoa lana omen da, eta erran digutenez, «*Baztango kirol eta kultur taldeekin elkarlanean aritu nahi dugu, eta Kultur Zurkaitza desagertu zela ikusita, Baztan mailan elkarrekin gisa funtzionatu nahiko genuke*», halere, orain arte zentzu honetan aurrerapauso haundirik ez dutela eman aitortu dute, bestaren inguruko kontuak aipatu direlako gehienbat.

Hurrengo urtera begira bai-

kor ageri zaizkigu Baztandarren Biltzarra elkartekoak, «*aurtengo geldidunak auto-kritika pixka bat egiteko aukera eman digu, dagoeneko ez baikin gaitzaren barneko ja aldatzeko, eta urtero berdin-berdina zen zerbait bihurtzen ari zen. Geldidun honekin zerotik hasi nahi du-*

gu, orainarteko esperientziarekin baina gauza berriak egiteko gaitasunarekin. Nahiko loturik sentitzen ginen, beti etorri diren talde edo abeslariak ekartzea konpromisoa baitzen kasik, eta hemendik aurrera ekitaldiaren bat aldatu behar baldin bada aldatu nahi dugu».



Patxi GORRAIZ, Itoizko Koordinakundeko kidea

«Itoizko Koordinakundea sortu zeneko helburu guziak bete dira»

Uztailaren erdialdera Auzitegi Gorenak Itoizko urtegiaren proiektuaren inguruko epaia atara zuen. Sententzia horren eta orokorrean Itoizko aferari buruzko xehetasunak ikastearren Itoizko Koordinakundeko kidea eta Itoiz herriko bizilaguna den Patxi Gorraizengana jo dugu. Elkarriketa hau argitaratzen denerako, ordea, baliteke kontestua erabat desberdina izatea.



Patxi Gorraiz, ezkerretik lehena, Koordinakundeko bertze hiru kideekin batera.

Koordinakundeak epe bat eman dio Madrilgo Ingurugiro Ministerioari obrak gelditzeko, ezta?

Bai, guk zentzuzko tarte bat eman genion Ministerioari obrak eteteko, eta hala gertatuko ez balitz Auzientzia Nazionalarengana jo beharko genuke. Gaurko egunean lanekin jarraitzen dutenez, errandakoa eginen dugu, Auzitegi Gorenaren sententzia bete dadin exijituko diogu Auzientziari, obrak geldiaraztea, alegia.

Laister etorriko al da Itoiz gelditzea?

Momentuan zailtasun bat daukagu, abuztuan aktibitate judiciala eten egiten baita. Guk, halere, hilabete hori obrak geldiarazteko baliogarria izatea eskatu genuen, baina ez dakigu onartuko diguten.

Zein izan da, laburbilduz, Auzitegi Gorenak hartutako erabakia?

Beno, Gorenaren erabakia erabaki irmoa da, ezin da atzera bota eta bere aurkako errekurtsorik ezin da aurkeztu. Sen-

tentziak urtegi bat baimentzen du Itoitzen, baina urtegi horrek naturgune babestuak errespetatu beharko lituzke, beren 500 metroko babes eremu eta guzi. Beraz, Itoitzen urtegi bat egin daiteke, baina inoiz ere

ez 506 kotatik goiti. Proiektu ofiziala 590 kotara ailegatzaren eta 418 hektometro kubiko ur izanen luke gehienez ere. Auzitegi Gorenak baimendu duen proiektuak, berriz, 9,7 hektometro kubikoko edukie-

ra izanen luke. Urtegi hau egitekotan, hiru naturguneak, beren 500 metroko babes eremuak eta arriskuan dauden herriak ez lirateke urperatuko eta erabat salbu egonen lirateke. Horietxek ziren, hain zuzen, Itoizko Koordinakundea sortu zenean geneuzkan helburuak.

Orduan, hasierako helburuak bete egin direla uste duzu?

Bai, bai; helburuak bete egin dira, eta orain zentzurik ez duena obrekin jarraitzea da, 506 kota hori dagoeneko gaindituta baitago, eta are gehiago obra horiek diru publikoarekin burutzen ari direla jakinda.

«Proiektu ofiziala 590 kotara ailegatzaren eta 418 hektometro kubikoko edukiera zuen. Auzitegi Gorenak baimendu duen proiektuak berriz, 9,7 hektometro kubiko ur izanen luke gehienez ere».

Zenbateko proportzioan daude akituak erakuntza lanak?

Kontua da presa hori blokez-bloke eraikitzen ari direla, eta gaur egun bloke altuenak 560-570 kotaren inguruan ibiliko dira eta baxuenek 506 kota hori gainditu dutela gaurgero. Denetara, presaren harrisia %60ko proportzio batean eraikia dago. Baina urez bete baino lehen milioika arbolen deforestazioa, bigarren presa bat eta beste obra batzuk egiteke dau-

«Obrak gelditzean Nafarroako zein Madrilgo agintarien erantzunkizun penala exijituko dugu».

de oraindik urtegian, eta ezin-go dela bete dakigunez, egin behar dena Itoitz lehenbailean gelditzea da.

Auzitegi Gorenaren azken erabakia eta gero, nola jokatu du Nafarroako Gobernuak?

Duen irtenbide bakarra obrak gelditzea da. Ongi gogoratzen dugunez, Urralburu eta Aragonen bultzatutako proiektua da Itoitzekoa -gaur egun non dauden ere badakigu-, eta planifikaziorik zein justifikaziorik gabea eta ekonomikoki bideragarria ez izateaz aparte, beti erran dugu ilegala dela eta orain auzitegiek frogatu dute hori. Duen soluziobide bakarra obrak geldiaraztea da, bertzenaz justiziak aginduko dio hori egitea, eta okerrago aterako dira oraindik.

Baina justiziak agintzen duena beteko lukeen bertze proiektu bat egin dezakete oraindik...

Bai, bertze proiektu bat egin dezakete, baina horretarako ezinbesteko baldintza da hau behin betikoz gelditzea. Gero proiektu berria osatu eta ingu-



Itoizko presaren eraikuntza lanek baimendutako 506 kota gainditua dute dagoenez.

runearen gaineko inpaktuaren estudioa egin beharko lukete, baina sekulan ere ezingo litzateke 506 kota hori gainditu Itoitzen, hau da, Itoitzen ez da sekulan 9,8 hektometro kubiko baino gehiagoko urtegirik izanen.

Nola ikusten duzue Nafarroako Gobernuak Auzitegiaren erabakia- ren aurrean egindako balorazio positiboa? Zer egon daiteke horren gibilean?

Argi ikusten dena sententzia honek Gobernuaren errekurto guztiak atzera bota dituela da, eta gainera prozesu judizialaren kostoak ordaindu beharko dituela, batere ohikoa ez dena. Horren arrazoia Burson-Mars-teller enpresa iparramerikarren aholkularitzan datza, Argentinako diktadura militarren edo Ceausescuren erregimenaren (besteak beste) kontseilari izandako enpresa bat. Enpresa honen estrategia aspektu negatiboez ahanzi eta ez aipatzea da, eta zerbait positiboxeagoa baldin badago hura zabaldu eta loditzea, eta horrela esplikatzen da auziarekin sortu den nahaste guztia. Erran behar da enpresa honen zerbitzuak nafar guzien artean ari garela ordaintzen.

Norbaiten aurkako arduraren penalak aurkeztea pentsatu duzue?

Bai, hori da bigarren pausua. Baina orain burubelari obrak gelditzeko lanean ari gara. Hori lortzean, Nafarroako zein Madrilgo agintarien erantzun-

«Borroka honetan murgildurik ia 13 urte daramagu zenbaitek. Urte guzti hauetan gure herria eta etxea desagertzeko mehatxupean bizi izan gara».

kizun penala exijituko dugu. Hortxe dago Jose Borrellen kasa, etab, etab...

Zenbat urte dira Koordinakundea sortu zela?

Itoizko Koordinakundea duela 12 urte jaiotzen, 1985eko urrian. Hortaz, 12 urte beteko ditugu laister, eta Itoizko afera 85eko urtarrean atera zen mahaigainera berriz ere. Borroka honetan murgildurik ia 13 urte daramagu zenbaitek.

Nola baloratzen duzue urte hauetan bertze talde ekologistek egindako lana?

Printzipioz, erran behar dugu abangoardian Itoizko Koordinakundea egonda dela 12 urteotan; gero Eguzki bezalako bertako talde ekologistak nahiko goiz inplikatu ziren borroka honetan, eta gogoratu behar da estatu espainiarreko ekologistak obrak hasi arte ez zirela Itoizko aferan sartu. Denbora honetan egin duten lana, halere, oso garrantzitsua izan da, positibotzat daukagu, nahiz eta hemen gaudenon ustetan gehiagore ere egin zezaketen.

Zeintzuk izan dira, zure ustez, borroka luze honetako klabeak?

Batetik, Itoitzen aurkako tin-

kotasuna eta gure argudioetan sinistea momentu orotan, arrazoiarekin borroka egitea, alegia; eta bestetik, mobilizazioak eta informazioa konbinatu ditugu, auzitegiaren egin den lan izugarriarekin batera, noski. Judizialki administrazioen aurkako garaipenak lortu dituzte Koordinakundeko abokatuek, eta horren ondorioa da gaurko egoera.

Koordinakundea desagertu egingo litzateke urtegi obrak gelditu ezker?

Hori oraindik ez dugu eztabaidatu, obrak gelditzea baita lehenetsuneko gaia, baina behin urtegia geldituta ez luke zentzu haundirik izanen Koordinakundea.

Zu Itoiz herrikoa izanik, kontaguztu nola bizitu dituzuen urte hauek hango herritarrek.

Urte guzi hauetan gure herria eta etxea desagertzeko mehatxupean bizi izan gara, eta bizilagunek etengabeko borroka eraman dugu Koordinakundearen barnean. Gorenaren erabakia poztasun haundiz hartu da herrietan, beren herri eta lurren iraupena bermatzen baita sententzia horretan.

OIHANGINTZA



Tximista bezalako arrazoi naturalek Nafarroako suteen %3,6 bertzerik ez ditu sortu

Gizakiaren zabarkeria eta axolagabekeria da Nafarroako suteen eragile nagusia

Halere, nahita eragindako suteak dira kaltegarrienak

Nafarroan 1990 eta 1995. urteen artean zenbatutako 1.052 suteetatik %28,2 gizakiaren axolagabekeriaren eta zabarkeriaren ondorioz sortu ziren. Nahita eragindako suteen portzentaia, berriz, %6,3koa izan zen. Sei urte horietan 7.705 Hektarea erre ziren Nafarroan, nahiz eta %27,1 bertzerik ez izan zuhaitzez landatutakoak. Suteen %92,2an sasia, larrea eta bazka bertzerik ez da erre.

Suteen jatorriari dagokionez, axolagabekeriaren eraginez, zuhaitzien %11,4 eta landatu gabeko oihan azaleraren %23,3 erre dira bortz urte horietan. Nahita eragindako suteetan, berriz, nahiz eta kopuruz dexente guttiago izan, galera haundiagoak sortu ziren: erretako zuhaitzien %38,8 eta oihan azaleraren %25,6 arrazoi honegatik kixkali ziren.

Datu hauek «Oihan Suteen Prebentziorako Liburu Gorria» argitalpenean ageri dira.

Nafarroako datuei dagokienez, sutea eragin duten arrazoiak ez dira ezagutzen ia hirutik bitan. Gainerako kasu gehienetan, gizakiaren eskua sumatzen da. Nafarroan gertatutako suteen %3,6 soilik, arrazoi naturalak medio sortu dira (tximistak...). Erran bezala, gizakien axolagabekeriak suteen %28,2 eragin du eta nahita piztutakoak %6,3ra iristen dira.

Nahita piztutako sute hauek dira, halere, zuhaitzez landatutako azalera osoaren %38,8 erre dutenak, tximisten eraginez %24,8, arrazoi ezezagunegatik %22,7 eta axolagabekeriak %11,4. Erretako oihanen hirutik bat arrazoi ezezagunegatik erre dira, lautik bat nahita piztutako suteen eraginez, %23,3 gizakiaren axolagabekeriarengatik eta %16,6 tximisten ondorioz. Azkenik, bortz urteotako suteen %1,8 bertzerik ez da izan ingurugiro inpaktu gogorra sortu dutenak.

Nafarroako mendi suteen estatistika

	1990	1991	1992	1993	1994	1995
Sute kopurua	150	174	90	156	211	271
Landatutako azalera	360	247	148	95	989	249
Landatu gabeko azal.	339	312	399	788	1641	2137
Azalera osoa (Ha.)	699	559	547	883	2630	2386
Galerak (milioi pta)	156	128	56	37	177	z.g.

BARATZE XOKOA

GOMENDIOAK

Nola konjelatu:

Kontserbak egiteko garaia ailegatu zaigu. Zenbait fruituen kontserbak nola egiten diren noiz edo noiz aipatutako dugun arren, komenigarria da batzuk bederen errepasatzea.

Onddoak mendi xokoetan agertzen hasiak dira eta horiengatik hasiko gara, hortaz: Konjeladorean sartu aurretik ongi garbitu, nabal batekin; hariak, lurra eta ostoa (zikinkeria) kendu eta oina hondaturik izan ezker ere moztu. Onddori gazteenak erabiltzen badira itxura hobea gordeko dute ateratzeko ordurako. Zartagi batean olio berotu, ondoren onddoak puxkatan sartu eta su ezitan utzi 10 minutuz. Behin hoztu egin direnean, 4ko edo 8ko razioetan partitu eta konjeladorean sartu bere olioarekin. Gustoa denbora luzeagoz kontserbatzen dute honela egin ezker.

Piperrekin ere, gauza beretsua egin behar da. Piper berdeak gustokoak badituzu, kontserbatzeko modu egokiena prexitura gordetzea duzu. Horrela, haragi edo arraultze prixituendako osagarri ezinhobeia izanen duzu.

Piper berdeak konjelatzeko hobe da ttiki xamarrak aukeratzea, azala fina goa izaten baitute. Onddoekin egin dugun prozesu bera errepikatzea litzateke hurrengo pausua. Ongi prexitu, olio berotan pasatu eta konjeladorera!

Nahita eragindako suteen portzentaia %6,1koa bertzerik ez bada ere, galera haundienak sortzen dituen da: erretako zuhaitzien %38,8 eta oihan azaleraren %25,6 arrazoi honegatik kixkali dira.

EGUTEGIA Abuztua-urria

BARATZEAN

1.- Erein

• Azak (mintegian), Brusselazak, azalore eta azaburuak...

2.- Landatu

• Marrubi landareak.

3.- Kimatu

• Fruitu sobera duten adarrak.

LORATEGIAN

1.- Landatu

• Salbiak, petuniak.

2.- Kimatu

• Arrosandoak ilargiaren faseekin batera loratzen dira. Fase bakoitzaren ondotik ximeltzen direnak kendu.

3.- Ureztatu

• Ez eman urik eguzki argitan.

NEKAZARITZA INTEGRATUA ETA NEKAZARITZA EKOLOGIKOA

Nekazaritza integratua berriki merkaturatu den sistema du-gu, zenbaiten ustez nekazaritza ekologikorantz doaiein erdibidea, eta bertze batzuek nekazaritza kimikoren estalki hutsa.

Nekazaritza mota berri honek aldarrikatzen duenez, produktu agrokimikoak eraldatu eta ekonomikoki razionalagoa den modu batean erabili behar dira. Nekazaritza ekologikoak, bertzelde, diseinuzko produktuak baztertera jo du beti, baina nekazaritza integratua indarrez sartu da, modernizazio hitzaren eskutik heldu baita. Gainera, hondakin maila %50etik beheiti izatea bermatzen du, gaur egun indarrean dagoen legediari so. Bertze herrialdeetan (Italian)

nekazaritza integratuarekin esperientziak egin dira dagoeneko, eta hemen aspaldiko txutxumutua da gisa horretako markaren bat merkaturatu behar zela, nekazaritza ekologikoarena bezalako garantzia egiaztagarri batekin, gainera. Kanpaina egiterakoan kalitatea, produkzio naturala eta baimendutako hondakin maila baino %50 guttiago edukitzea izanen dira bere oinarriak, eta Admistrazioaren baimenaren zain daude produkzioa hasteko. Hemengo kontsumitzaileak janari ekologikoei buruz gutti baldin badaki, gisa beretsuko bi produktu aurkitzea bertze-rik ez zuen falta.

Eta nekazaritza integratua zabalzen den bitartean, zer gertatuko da ekologikoarekin?

Notaritzak

Euskal Herri osoko 54 bat udalerrik eskaera egin dute notaritzetan euskararen erabilera bermatzeko asmoz. Gaur egun, notarioen jarrera eta euskararen ezagutza ezagatik, ezin omen da notaritzetan euskaraz aritu, eta horrek euskararen legea zapaltzen du. Hori dela eta, prentsaren aurrean aurkezteaz aparte, Euskal Herriko notarioen eskoletara bidali zuten aipatu mozioa, zeinetan «nola ahozko nahiz idatzizko lanetan, bezero, herritar edo erakundeek

zerbitzua euskaraz hartzeko aukera ematea» eskatzen zaien notarioei. Gainera, Arrasateko alkateak, Xabier Zubizarretak salatu zuenez «euskarak ez du notaritzetan Euskal Herriko berezko hizkuntza izateagatik merezi duen tokia, eta ezta legeak ematen diona ere».

Euskararen aldeko mozio hau onartu duten Udalen artean Leitza, Goizueta, Zubieta-UEMAko udalerririk guziek onartu dute. Lesaka, Bera, Arantza, Igantzi eta Etxalarakoak ageri dira.

DIRULAGUNTZAK

Informazio gehiago: CARREFOUR NIREA ☎ 210018

Baztan ☎ 580561 Bortziriak-Malerreka ☎ 451654 Leitza ☎ 510009



KULTURA

Arte eta kultura prestakuntza egiteko dirulaguntzak.

1997ko otsailaren 13an argitaratutako Nafarroako Aldizkari Ofizialean 48/1997 Foru Agindua. Musika, zine, dantza, bideo, literatura, antzerkia edo arte plastikoetako prestaketa kurtsoetan parte hartzen dutenentzat zabalik dagoen deialdia. Muga eguna, 1997ko irailaren 15a.

Liburuak eta bertzelako argitalpenak argitaratzeko dirulaguntzak

Otsailaren 13ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu zen 48/1997. Foru Aginduarekin argitaratua. Nafarroarekin zerikusirik duten argitalpenak edo liburuak argitaratzen dituztenentzat idekia, 97ko irailaren 1erarte.

Arte ikasketak jarraitzeko laguntzak

Martxoaren 11n aterata zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu zen 70/1997 Foru Aginduak arautzen duenez. Titulu ofizial akademikoa duten nafarrantzat. Epearen bukaera: 97ko 6aren 30a.



IKERKETA ETA GARAPENA

FAIR: Nekazaritza eta arrantzaren sektorean erakustaldiak, garapen teknologikoak eta IDT ikerketa programaren ekintza proposamenendako deialdia.

Unibertsitate, enpresa eta ikerketa zentruentzako daude zabalik laguntza hauek, 97ko 6aren 11rarte.

Nekazaritza eta arrantza sektoreko garapen teknologiko eta ikerketaren laugarren programa.

PYMES bezalako enpresa haundiendako, pertsona fisiko edo Europar finkatutako erakundeendako idekia dago. Abenduaren 1erarte da epea.



HERRI-ARTEKO LAGUNTZA

Herriarteko barne lankidetzak.

Herri elkarteak, erakunde publiko, erdi-publiko edo pribatuentzat. 1997ko 5aren 15erarte egonen da idekia dirulaguntzak jasotzeko epea.

BRITE-EURAM III materialaren eta ID industri teknologiko eta ikerketaren 4. programa.

PYMES, Ikerketa Zentruak, eta unibertsitate edo enpresentzat ere zabalik dagoen deialdia. Egiten den ekintzaren arabera, epe desberdinak daude: 97/09/15, 97/06/28, 97/06/11, 98/04/08, 97/12/17 eta 98/05/20a.



KIROLA ETA GAZTERIA

Ofizialki onartutako aisialdi eskolak dituzten pertsona fisiko edo juridikoendako dirulaguntza deialdia.

97ko otsailaren 13an argitaratutako Foru Aginduaren arabera. Epea, 97ko 5aren 7a.

Gazteendako informazio zerbitzuak edo ofizialki onartutako gazte programak garatzeko gazte elkarteek zabalduko deialdia.

31/1997 Foru Aginduaren arabera, Nafarroako Gazteen Elkarteek zuzendua dago.



HEZKUNTZA ETA PRESTAKETA

COMENIUS 3.2 laguntzak, irakasleen prestaketa jarraia egiteko.


Nafarroako Aldizkari Ofizialean 42. zenbakiarekin (apirilaren 7an) argitaratu zen 275/1997 ebazpenaren arabera. Unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioentzat idekia dago deialdia, ikastetxe publiko edo pribatueta aritzen direnentzat. Epea: 97ko maiatzaren 15erarte.

AZKEN ORRIALDEKOAK


Irurritako azienda hiltegia lanean da dagoeneko

Abuztuaren 4an ekin zion lanari Irurritako tren geltoki zaharrean kokatua dagoen azienda hiltegiak. Asteleheneetik ortzegunera, goizeko 7,30etatik 12tara egonen da idekita hemendik aurrera.

Orainarte inguru honetan zeuden hiru hiltegiak ez ziren Europak eskatzen dituen baldintzak betetzen. Hiltegi industrialia egiten 111 milioiko inbertsioa egin du Nafarroako Gobernuak, eta presupuestoaren %65a ordaindu du. Gainerakoa Balleko Etxearen kontura joan da.


Bortzirietako mendiak garbituko dira uda honetan

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuak eta INEM erakundeak sinatutako komenio baten bitartez uda honetan mendi garbiketak egingen dira Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan. Zehazkiago erranez, Berako Arregi, Etxalarko Aierdi, Igantziko Frain eta Kopa inguruetan burutuko dira garbiketak hauek. Gehien batean, plantazio berriak garbituko dira, zuhaixka gazteetan berez sortzen den landaretzak eragiten dituen kalteak arintzeko.

«Sakana aldean jendea segituan hasten da dantzari, ez da ikusten hemen bezalako pasibotasunik»

Egun hauetan Nafarroako IV. trikitixa txapelketa antolatzen zabilta burubelarri. Nola garatu da antolatze prozesu hori?

Hor konbinazio arraro bat izandu zen, Arbizun (Nafarroan) bizi den gipuzkoar bat eta Ohiartzunen bizi den nafar baten artekoa, ni neu, alegia. Bien artean akordio batera ailetu ginen, eta hortik abiatuta, nik zonalde honetan lan egin dut, bidasoaldean, eta bera Sakanako inguruaz arduratu da.

Aurten non eta noiz egingen da finala?

Altsasun izanen da finala, Santa Cruz egunean (irailak 14an) edo biharamonean, oraindik ez dugu erabaki. Lehenbiziko bi urteetan Iruñean egin genuen finala, peñen egunean. Iaz ere Altsasun egin zen finala.

Zein da txapelketan parte hartzen dutenen profila?

Gehienbat ikasle gazteak izaten dira, 18, 19 eta 20 urtekoak. Agian edadetu batzuk ere badira, baina hoiek Gipuzkoaldean zerbait ikasi dutenak izaten dira normalean. Aurten 15-16 bikote apuntatuko direla kalkulatu zuten dugu.

Zein da orainarteko hiru txapelketetaz egiten duzun balorazioa?

Guretzako oso positiboa izan da. Alderdi honetan Lesakan, Bordatxon eta Goizuetan egin ditugu kanporaketak batzuk eta beste aldekoak Arbizun eta Lakuntzan. Finalak, aipatu bezala, Iruñean eta Altsasun egin di-


Martxel ANSA

Trikitixa
Txapelketaren
antolatzailea

EGUN OIARTZUNEN BIZI DEN
49 URTEKO ARANOAR HONEK
KULTURA MUNDUAN DABILEN
PERTSONA BEZALA DEFINITZEN
DU BERE BURUA, ETA BERAK
AITORTU DIGUNEZ, ALABAK
LOTU DU TRIKITIXAREKIN.

tugu. Denetan, esan behar da oso oso ambiente ona izan dela, herriko festatan kokatu ditugulako eliminatoriak eta finala ere.

Halere, jendea partizipatiboagoa da Sakana aldean, hemen txapelketa batean ikusten den pasibotasuna ez da ikusten han. Jendea segituan hasten da dantzari, ko-

rtilloak egiten dira, beste animazio bat ikusten da.

Jendearen jarrera desberdina da, orduan?

Bai, jendea irekiagoa edo espresiboagoa da han.

Orokorrean, Nafarroako trikitixak nolako osasuna duela erranen zenuke?

Bizkortzen ari dela esan genezake. Hasiera prozesuan baldin badago ere, eskola askotan lan ederra egiten ari dira, eta horren ondorioak orain ikusten dira nolabait.

Gipuzkoako trikitixarekin konparatu daiteke?

Ez. Gipuzkoan urte askotako lana eginga dago, eskolek traktorearen lana egin zuten eta txapelketak ere asko jorratu dituzte. Gainera ez dago konparatu beharrik ere, hemen gauza berria delako. Hala ere, esan behar da harriera positiboa izan duela eta Nafarroako trikitixak ere indarra baduela.

Lurra

Landa Lurraldeari buruzko aldizkaria

Argitaratzailea: **Lurra** Kultur Elkartea • Herriko Etxeko Plaza, 1
• 31780 BERA Ale honetan parte hartu dute: EHNE Nafarroako teknikoek, Jesus Garitazelaiak, Juainas Paulek, Asier Gogorzak eta beste zenbaitzuk. **Maketazioa eta Banaketa:** ttipi-ttapa **Inprenta:** Graficas Ona **Tirada:** 6.400



Aldizkari honek
Nafarroako Gobernuaren
laguntza jaso du

Abuztuaren 1etik 5era

Ortzirala, abuztuak 1

7etan suziria beste hasiera emateko. Txistulariek alaituko dituzte karririk gero. **7,30etan** Baztan-Zopa jatea eta musika Herriko Ostatuan.

Larunbata, abuztuak 2

12,30etan aizkora apistua: Daniel eta Felix, Meltxor eta Jose Luisen aurka. **4etan** frontenis partidua frontoian. **4etan** plater-tiraketa. **5etan** mus txapelketa Herriko Ostatuan. **Arratsaldean eta gauetan** dantzaldia HAITZAMA taldearen eskutik. **Goizeko 5etan** jokuak, zaku-lasterketa, sokatira... eta gero, salda goxoa.

Igandea, abuztuak 3

1etan aizkora apistua: Mindegia eta Jaunarena, Etxeberria eta Nazabalen aurka. **5etan** Donamaria eta Gazteluko trikitilariak. **6etan** pilota partidua. **7etan** Doneztebeko dantzariak. **Arratsaldean eta gauetan** dantzaldia HAITZAMA taldearen eskutik.

Astelehena, abuztuak 4

Santo Domingo Eguna Diana txistulariekin. **11etan** Meza nagusia. **12,30etan** haurrendako karts eta gaztelu puzgarriak. **Arratsaldean eta gauetan** dantzaldia JOSE ANGELEN eskutik.

Asteartea, abuztuak 5

11etan hamaiketako Herriko Plazan. **1etan** Xabier Silveira eta Bitor Elizagoien bertsolariak. **2,30etan** zikiro-jatea bertsolariekin. Bazkaldutakoa, arpana, sokatira eta txinga apustuak: Nafarroa Gipuzkoaren aurka. **Arratsaldean eta gauetan** dantzaldia JOSE ANGELEN eskutik. Eta beste akbila egokia emateko txokolate-jatea Herriko Ostatuan.



Donamariako txistulariak, Joaquin Mitxelorena buru dutela

Argazkiak: Bernardo ALTZUGARAIK utziak



Zikiro-jate egunean ateratako erretratoa



Haurrendako jokoetan ageri dira Xabier eta Ana

Iturgintza eta kalefakzioa

Valentin Cubero

Tfnoa.: 45 17 63 • GAZTELU

GAZTELUKO POSADA

Besta ederrak pasa itzazue!

Tfnoa: 45 01 05 • GAZTELU



*Bestak
ederki
pasatu!*

Leku Eder, 4 - 1.D
Tel.: (948) 45 15 96
Mugik.: 908 77 93 66
SUNBILLA

ILEA PAINDEGIA

"ARTAZI"



Ongi pasa bestetan

Gindal Ibiltokia, 3 - 1ºD
Telefona (948) 450844
31791 SUNBILLA

**ESPELOSIN
ERAIKUNTZAK**

Auloa baserria
Tfnoa: 45 07 73
SUNBILLA

Ehun urte bete ditu Kuxiñeneko izandako Jacoba Apezetxeak

Arranbideko zubitik Gipuzkoarako errepidea moldatzea eskatu du Udalak

ESTEBAN AROZENA

Hainbeste urtez Kuxiñenea baserrian bizi izan den Jacoba Apezetxea Zinkunegik ehun urte bete zituen lehen-go astean, Santio egunean, hain zuzen. Gertaerak merezi duen bezala ospatu zuten eguna Jacobak eta bere etxekoek. Horrela, auzoko Santio elizan bildu ziren meza entzutera eta eguerdian 60 lagundik gora elkartu ziren Hernaniko Jauregi jatetxean ederki hornitutako mahaiaren bueltan. Jacoba Apezetxea jaiotzez Oiartzungo Erreti baserrikoa da, baina 11 urte zeuzkanerako Aita-semegiko Tobeneko-bordan bizi zen eta gero Portolon. Hemendik, Kuxiñenea baserriara joan beharrean aurkitu zen, baita bertan bizi ere orain dela 29 urte arte.



Jacoba Apezetxea, lau belaunaldietako ordezkariekin

Geroztik, Hernaniko Ugaldetxo auzoan du bere txokoa.

Bost belaunaldi elkartzen dira tarteka Jacobarekin batera, 3 hereniloba baititu dagoeneko, baita 14 birloba eta 10 iloba ere. Hazi dituen 10 umeetatik be-

rriz, 8 bizi dira.

Harrigarritzat jo daiteke amon honen osasuna eta memoria. Edozer gauza jan arren ez omken dio deusek kalterik egiten eta botikarik ia ez omen du hartzen. Buruaberriz, gazte batena bezalakoa

omen du. Kontu zaharrei dagokionean behintzat baieztatzen hau egia dela ziurtatu genezake, istorioak eta bertsoak bat bestearen atzetik, jario etengabea kontatzen baitzizkigun berarekin geon ginenean.

Jacobak ehun urte-

rekin sasoi hau edukitzea genetika kontua edo izan litekela pentsa daiteke. Kontuan izan behar da Manuel anaia 93 urterekin hil zela eta Maria Rita ahizpa 101 urterekin.

Errepide moldaketa

Arranbideko zubitik Gipuzkoako muga berteko errepide trama konpontzeko eskatu die Goizueta eta Aranoko Udalek Nafarroako Gobernuak Herrilan sailleko kontseilariari. Bidalitako gutunak dienez, karretera honen gainerako kilometroak zolaberritu zirenean, epe motzean aipatutako bide zati hori konponduko zuenaren hitza eman zuen Iruñeak. Geroztik bi urte igaro direla esaten zaie Gobernuakoei eta, jakina, zola gero eta egoera txarragoan dagoela.

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Bestetako espartzinak eta espartzin beltzak 200 pezetatan

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA

ZALAIN
JATETXEA

Zalain Auzoa
☎ 63 11 06
BERA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Boda eta banketeak ematen dira

barnek s.l.

Sukalde mobleen fabrika

Zuzeneko salmenta

Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan

Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

ttipi-ttapa

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzuz!

☎ **631188**

Plazako pilota txapelketaren finala abuztuaren 2an jokatu da

Mariñelarena anaiak, Larraia eta Gazteluneko Sabinoren kontra

JOSEBA AZPIROZ

Arratsaldeko 5etan jokatu da 20 bikoteen partehartzea izan duen txapelketa honen finala. 3. eta 4. postuegatik Buldain anaiak eta Zestau anaiak jokatu dute eta finala berriz, Mariñelarena anaiak (Portolonbordakoak), Baiko Larraia eta Sabino Gaztelunekoak. Ondoren, txapelketan parte hartu duten guztiak elkarrekin afalduko dute.

Cultur-97

Plazaolako Partzuergo Turistikoak, Cederna-Garalur, beste partzuergo batzuk eta Nafarroako Gobernuarekin batera, zenbait ekitaldi antolatuta dituzte abuztuaren egiteko. Hauek dira Leitzan burutuko direnak:

Abuztuaren 3an, 11,30etan Ortzadar txistu taldeak joko du herriko kaleetan eta 12,30etan herri kirol saio bat izanen da plazan (aizkora ebaketa australiarerara, lasto altxatzea eta aizkolari gazteen Euskal Herriko txapelketa). Abuztuaren 24an berriz, goizeko 11etan, plazan edo pilotalekuan (eguraldiaren arabera), artisauen erakusketa eta 12,30etan herri kirol proba konbinatua. Hilaren 31n, programazioa bukatzeko, 11,30etan Ardanbera fanfarrea eta 12,30etan pilota partitua frontoian.

Programan azaltzen



Aurrerako neskek Nafarroako Kopako txapelaldia

Ez dira nolani hasi Leitzako kadete mailako neskek Nafarroako areto-futbol txapelketan. Lehenengo urtea zuten parte hartzen eta Kopako txapelaldia atera, alajaina! Finala Garesen jokatu zuten eta 8-2 irabazi zuten. Hamar dira taldekideak. Atezaina: Nerea Gartzia. Aurrelariak: Saioa Salbarredi, Mirari Erbiti, Saioa Diosdado eta Miren Tijero. Defentsak: Garazi Arizmendi, Agurne Oronoz, Ainhoa Zunzunegi, Aroa Huarte eta Begoña Uriarte. Entrenatzaileak Oskar Ariztimuño eta Jon Kanflanka dira. Bigarren urteko kadeteak azpitxapelaldia suertatu ziren.

gutenez, erakusketa hauek turisten gozamenarako antolatuta dira (eta bide batez bertakoentzat, noski), beraien egonaldia atseginagoa izan dadin eta turismoaren aldeko apustua egin duten eskualdeei laguntzeko.

Gure kultura, kirola, hizkuntza eta nortasun-

nari eusteko, indartzeko, baita erakusteko ere egiten dena ongi egina dago. Baina Leitzako herriak urtero Partzuergoari eta Cederna-Garalur erakundeari ordaintzen diona (hiru milioi terditik gora) eta azken honek, Cederna-Garalurrek alegia, administrazioaren duen diru kopu-

ria (Europatik heldu diren milioi asko) kontutan izanik, 3.000 biztanletik gora dituen herri batean beste mota eta kopuru bateko inbertsioak espero zitezkeen. Beste herrietara hona adina dirulaguntza ailegatzen bada, pentsa daiteke alferrik direla horrenbeste gestore.

Benito Lertxundiren kantaldia antolatu du Asketako pestetako larunbaterako

Pestetako ekitaldiak umeen egunaren bezperan (abuztuaren 2an) partituko dira aurten. Beste nobedade bat, Asketa abesbatzak antolatu duen Benito Lertxundiren emanal-

dia izanen dugu. Hilaren 9an, larunbata, gaueko 10etan, pilotalekuan. Baina hauek eta gainerantzekoak, irakurriko dituzue etxetik banatuko den programan (baita txozna-

tan eginen direnak ere. Ikasten ari gara). TTPI-TTAPA honekin batera ere gehigarri berezia daukazu Santiburtzioei buruz.

Ongi pasa pestak eta gero geroakoak.

flash

❖ **Iratxe bulegoa**
Pestak direla eta, Iratxe Kontsumitzaileen bulegokoa, abuztuaren 7an besterik ez da etorriko.

❖ **Okerrak zuzentzen**
Aurreko alean, bai testuan bai titularrean, alkateak ikurriñari buruzko erabakia epailearen esku-tan utzi zuela aipatzen zen, diligenziak epailearen esku-tan utziko zituztela esan zutenak Guardia zibilak izan zirenean.

❖ **Administrari laguntzailea Mankomunitatean**
Leitza-Goizueta-Areso-Aranoko Oinarriko Gizarte Laguntza Mankomunitateak, administrari laguntzaile bat kontratatzeke egingako oposizio-lehiaketan Zuriñe Odriozola Arbillagak atera ditu puntu gehien. Horren ondorioz epaimahaiak bera kontratatzeke proposatu dio Mankomunitateari. Udalak eta Mankomunitateak azken aldi honetan lanpostuak oposizio-lehiaketa publikoen bidez betetzeko egin dituzten deialdien ondorioz, orduraino lanpostu hoiak behin behineko kontratuaz betetzen zituztenak irabazi dituzte.

❖ **Emanaldia Torrean**
Larunbat honetan, abuztuak 2, gaueko 12,30etan *Xagu*, *Xator* eta *Satitxus Big Band* emanaldi bat eskainiko du Torrean.

BAZTAN

Eskualdeko azienda hiltegia astelehenean hasiko da lanean

Iruritako mataderoa joan den asteartean inauguratu zuten

TTIPI-TTAPA

Astearte honetan inauguratu da ofizialki Iruritako Loizu industrialdean kokatua da goen eskualdeko azienda hiltegia. Ekitaldian, Ignacio Martinez Alfaro Nekazaritza, Abelzaintza eta Elikadura kontseilaria, Juan Cruz Perez Lapazaran, UPNko lehendakari ordea eta Iñaki Cabases, Eako parlamentaria izan ziren, Balleko Etxeko eta inguruko herrietako udal ordezkariekin batera. Datorren astelehenean, abuztuaren 4ean hasiko dira lanean instalazio hauetan. Astelehenetik ortzegunera, goizeko 7,30etatik 12etara egonen da zabalik.

Orain arte hiru hiltegi zeuden eskualdean, Bera, Doneztebe eta Elizondon, baina bakar batek ez zuen Europak eskualdeko hiltegia izateko eskatzen dituen baldintzak betetzen. Hone-la, 1991n txosten bat eta 1994an bideragarritasun estudio bat egin ondok, 1995ean hasi ziren hiltegia eraikitzen.

Akitu berria den hiltegi honekin, «azpiegitura eta zerbitzuak hobetzeaz gain, azientak hiltzeko kapazidadea nabarmenki haunditu-



Doikerren diseinu eta lelo lehiaketaren saria

Eskuinean Elizondoko Muskilda Eseberri ageri da, Doikek antolatutako logotipoaren diseinu eta lelo lehiaketaren irabazlea. Ezkerrean, Txus Pernaute, Doikeko kidea, 15.000 pezetako saria ematen. Leloan «Ni naiz, tu?» esaldia ageri da eta herrietako bestetan banatuko dituzten 5.000 pegatina egin dituzte.

ko da, zonaldeko abelzaintza eta lehen sektorea mantentzeko baliagarria izanena da eta lanpostu berriak sortzeko aukera izanena da», Balleko Etxearen arabera.

Hiru lerro izanen ditu hiltegiak. Behi azientendako lerroak orduko zortzi buru hiltzeko ahala izanen du hasieran. Ardi azientendako lerroan orduko 20 buru eta zerri azientendako lerroan orduko 6 buru hil ahal izanen dira.

Eskualdeko hiltegi hau egiteko 111 milioiko inbertsioa egin da. Nafarroko Gobernuak %65a ordaindu du eta gainerakoa Balleko Etxeak.

Behi azientendako kiloko 20 pezeta ordainduko dira, ardi azientendako 44 pezeta, zerriendako 12 pezeta eta zaltabereendako 19 pezeta. Prezio hauei, garraioaren kiloko 8,5 pezeta ordainduko dira azienta mota guzietan.

Miguel Angel Blancoren hilketa gaitzetsi zuen Balleko Etxeak

EA eta UPNren aldeko botuekin eta HBren abstentzioarekin bat egin zuen Balleko Etxeak, Miguel Angel Blanco Garrido Ermuako zinegotziaren hilketa salatuz. Ajuriaeneako Mahaiak aurkezturako idatziarekin. Honekin batera, zinegotziaren familiari telegrama bat igorri zioten, beraien dolumina erakutsiz.

flash

Pintura ikastaroa

Abuztuaren 4tik 29ra pintura ikastaroa eguzkipean emanen dute Jose M^a Apeztexea eta Tomas Sobrinok. Ikastaroaren aurrekontua 160.000 pezetakoa da eta ikasle bakoitzak mila du-roko matrikula ordaindu beharko du. Izena emateko epea abuztuaren 1ean akautzen da. Goizeko 10etatik 1etara arituko dira astelehen, asteazken eta ortzi-ralelan, gehienez hogeita hamar lagun.

Erratzuko baserrietan

bizi diren ikasleek herriko eskolara egunero joan ahal izateko garraio zerbitzua diruz laguntzea eskatu dio Balleko Etxeak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariari.

Iruritako ur-banaketa

sarearen mantentimendu eta kontserbazio arazoak aztertzeke estudioa eginen du Nafarroko Gobernuko Leku Administrazio sailak.

Uda ikastaroak

Abuztuan EGA ikastaroa antolatu du AEKk. Izena emateko epea akautzeko puntuan dago, goizeko 10etatik 12etara 452471 telefonon edo Parkeko ikastolan.

Mendisagar elkartea

sortu da, bertako sagarra bultzatzea eta sagar elkoizleak biltzeko helburuarekin. Lekarozko Larraldeko Jesus Angel Garcia da lehendakaria.

BAZTAN FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

MENDIALDE Jatetxea
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

BAZTAN

Zigako San Lorentzoak, abuztuaren 8tik 12ra ospatuko dira

Mixel Ducau eta Caroline Phillipsen kantaldia igandean

**Ortzirala, abuztuak 8
Bezpera Egune**

8etan altxaferua eta ezkilen errepika. 9etan baztan-zopak Etxezuri eta Indakoa osatuetan. 10etan gazteen afarie. Dantzaldia HARITZA taldearekin. 5etan mozkor-salda.

**Larunbata, abuztuak 9
Haurren Egune**

10etan husky zakurrek mugitutako trineoen ibilaldia. 12etan Zigako I. mendi bizikleta itzulia. 2etan haurren bazkarie frontoian. 2,30etan gazteen bazkarie Tellarin. 5etan haur jokoak Plazan. 8etatik aitzinet BETI BERANDU trikitilariak. 10etan zanpantzarrak eta txalapartarien ikuskizuna. 10,30etan herri afarie frontoian. 12etatik goizaldera gaur-pasa HARITZA taldearekin. Zinger-jatea.

**Igandea, abuztuak 10
San Lorenzo Egune**

10etan argi-soinuak. 11etan Meza Nagusia. 12etan Zigako dantzariak. Ondotik hameketakoa. 5,30etan Iparragirrerren akordeoi eskolaren kontzertua. 7etan Baztango emakume dantzarien saioa. Arratsaldez eta gauz ASKAI taldea. 9etan Mixel Ducau eta Caroline Phillipsen kantaldia.

**Astelehena, abuztuak 11
Jubilatu eta txapelketa Egune**


11etan nesken arteko pala txapelketa. 12etan mus txapelketa. 2etan jubilatuen bazkarie elkarteetan. 5etan mutilen arteko pala txapelketa. Dantzaldia MODESTOekin. 10,30etan afaria miradorean.

**Asteartea, abuztuak 12
Zikiro Egune**

9,30etan gosarie. 11,30etan nesken arteko pala txapelketaren finala. Gero, mutilen finala. 1,30etan mus txapelketaren finala. 2,30etan zikiro-jatea. Ondotik, MODESTOren musika, soka-tira, txingak, dantzak... Arratsaldez eta gauz MODESTO. Atsedenean, zikiro-afaria. 4etan 'Pobre de mi'.



Zikiro-jatea, orain dela 30 urte baino gehiago ateratako erretratoan



1953.ko erretratoa

flash

- ◆ **Elizondon mobilizazioak**
Miguel Angel Blancoren bahiketa eta hilketaren ondorioz konzentrazioa burutu zen plazan. Euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eta Juan Carlos Hernandezoren mobilizazioak ere izan dira asteotan. Abialdian, berriz, uztailearen 16an ailegatu zen Elizondora. Guzietan ere jende aunitz ibili zen.
- ◆ **Amaiurko gatazka**
gogoratuz egindako ekitaldia arrakastatsua suertatu zen. 200 lagunetik goiti bildu ziren bazkarian.
- ◆ **Amaiurko**
mediku kontsulta ekipatzeko 547.148 pezetako dirulaguntza eman dio Osasunbideak Balleko Etxeari.
- ◆ **EGiren III. Udako Unibertsitatea**
burutu zen uztailearen 14tik 18ra Oronozko San Martin eskolan. Zenbait gaiari buruzko solasaldi eta mahainguruekin batera, bisitaldiak egin zituzten Bertizko parkera, Elizondora, Iparraldera. Hirutan hogeit bat lagun egon ziren.

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur

ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA

Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
☎ 58 02 78

Baztanen... **24 orduko zerbitzua**

ESTHER

LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA
Hilkutzak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

Eta Iruñean... 

IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 58 09 71 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • **ELIZONDO**

ZUGARRAMURDI

Arthur Miller Estatu Batuetako idazle famatuak lezeak bisitatu zituen

Uztailaren 9an izan zen herrian 'Salemeko sorginak' liburuaren egilea

MARGARI ETA KORO

Gan den uztailaren 9an bisita ospetsu bat izan ginuen herrian: Arthur Miller, 82 urteko Estatu Batuetako idazle eta antzerkigile famatua, nahiz eta batzuentzat gizon hau ezagunagoa izanen den Marylin Monroekin ez-konduta egon zelako. Lezeak ikusten egon zen bere emazte eta lagun batzuekin, guztiak Nafarroako Gobernuko ordezkariak.



Arthur Miller famatua, bere lagunekin lezearen sarreran

Argazkiak: MARGARI

LIBURURIK FAMATUENA, 'SALEMENKO SORGINAK'

Itzultzaile baten laguntzarekin Zugarramurdiko sorginen historiaren berri bazekie-la erakutsi zuen eta bere ustez hemen gertatutakoa erlijio gatazka bat izan omen zen: betitik Euskal Herrian prakti-

katu izan zen erlijioa, gero sartu nahi izan zen erlijio katoliko berriaren aurka. Justuki idazle honen liburu ezagunena 'Salemeko sorginak' da eta orai berriki liburu horretan oinarritua dagoen pelikula bat

eginda, 'El crisol' izenekoa. Honi buruz solastuz, Arthur Millerek zioen Zugarramurdiko sorginen istorioak ere eman dezakela pelikula horren bigarren zati bat egiteko mamia... ikusiko ote dugu?



Arthur Miller

Gaupasan lan egindakoan bizkar-besta

Uztailaren 19an, Armua jatetxean ospatu zen gaupasan lan egin zutenen *bizkar-besta*. Aurten jendetza haundia bildua zen lan egiteko tenorerakoz eta horrela, afora huntan, 125 lagun elkartu ziren (eta oraindik bakarren bat falta zen, ezin izan zuelako etorri). Joxeangel eta Kristian izan genituen musikariak eta goizeko 6ak arte Armuak zabalik izan zituen ateak, giro ezin hobekoan.

Hau ikusi eta seguruenik heldu den urterakoz jendea animatuko dela lan egitera, batez ere ondolik eskeintzen den ordaina kontuan hartuz.




ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

Sukalde eta Bainu Mobleak

Egoki-ren banatzaile baimendua



Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • ☎ 58 06 45

Eskisaroi jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

LARRALDEA



SAGARDOTEGIA

Asteartetik ortzilara Betatik aitzinerat Larunbata eta besta egunetan zabalik.

☎ 45 21 21 • LEKAROZ

SARA

Kontrabandisten Laisterkaldia agorrilaren 24an burutuko da

Kultur eta kirol elkarteek urteko besta agorrilean ospatuko dute

JACQUELINE ETA MIXEL

Agorrilaren 24an, ohiko Kontrabandisten laisterkaldia iraganen da. Arratsaldeko 5etan, hogeita hamasei lasterkari abiatuko dira Sarako plazatik, bere zama bizkarrean dutelarik. Larrun mazela kurrituko dute Zazpi Fagoraino eta zaluena 40 bat minutaren buruan berriz plazara helduko dira. Gan den urtean Angel Azpiolea irundarrak irabazi zuen, 41 minuta eta 46 sekondako denbora eginez. Egun osoan eskulan eta bertze ekoizpenen azoka izanen da.



Kontrabandisten laisterketaren sari banaketa, orai bortz urte

Taldeen urteko besta

Udaz baliatuz elkar-teeke bere urteko jai nagusiak antolatzen dituzte diru kutxen betetzeko. Zazpiak Bat dantzak elkarteak berea uztailearen 19an zuen eta oso egun baikorra ateraz. Arratsean 300 afariz goiti zerbitzatu zituzten.

Bertze kirol taldeen bestak agorrilean zehar ospatzekoak dira. 9an, Sarako Izarra rugby taldearena, 16an Sarako Urtxintxak eskubaloi taldearena eta 23an Sarako Izarra pilota taldearena.

Era berdinsuan iraganen dira eta ekitaldi aunitz eskainiko da egun guzian: pilota, dantza, bazkari eta afariak. Karia huntara xardina edo atun errea jasta daiteke. Horiek oro dantzaldi batekin bururatsen dira.



Lanerako eta denbora librerako

SAMPI ARAGON



Leitzako errepidea
 © 450354 / 450759
DONEZTEBE

EZKONTZAK

Miguel Angel GoienetxeBakero eta Iratxe Batiz Barcena, Lesaka eta Bilbokoa, ekainaren 28an.
 Jose Ignacio Prego Larreina eta M^a Idoia Gomez Ordoki, Donostia eta Oreretakoa, Lesakan, ekainaren 28an.
 Jon Gotzon Hervas Zuñiga eta Ana Gema Ugalde Mitxelena, Bilbo eta Lesakakoa, uztailearen 5ean.
 Jose Ignacio Alsua Eskudero eta M^a Jose Apezetxea Perurena, Goizueta-koak, uztailearen 12an.
 Santiago San Miguel Altzugarai eta Ana Rosa Zelaieta Elizondo, Doneztebekoak, uztailearen 19an.
 Santiago Maximiliano Jimena Funes eta Amaia Habans Sanzberro, Leon eta Elizondokoa, uztailearen 12an.

JAIOTZAK

Selene Goia Muñoa, Lesakakoa, ekainaren 27an.
 Beñat Bengoetxea Lopetegi, Leitzakoa, uztailearen 19an.
 Miriam Mortalena Sarratea, Elizondokoa, uztailearen 4an.
 Amaia Goienetxe Miguelez, Elbetekoa, uztailearen 8an.
 Idoia Irazoki Bengoetxea, Elizondokoa, uztailearen 5ean.
 Haritz Perurena Arizaleta, Arizkungoa, uztailearen 8an.
 Amaia Loiarte Lopez, Elizondokoa, uztailearen 18an.
 Mikel Sagaseta Urrutia, Iruritakoa, uztailearen 15ean.
 Juan Errandonea Otxoa de Zabalegi, Berakoa, uztailearen 7an.
 Leire Errandonea Garcia Larratxe, Berakoa, uztailearen 13an.

HERIOTZAK

Vitoria Matute Erauskin, Lesakan, uztailearen 18an, 82 urte.
 Severa Zubiri Zia, Goizuetakoa, uztailearen 15ean, 89 urte.
 Celestino Eskudero Mutuberria, Goizuetakoa, uztailearen 20an, xx urte.
 Tomasa Iturralde Olaetxea, Doneztebekoa, ekainaren 29an, 85 urte.
 Pedro Juan Bidegain Ustariz, Arizkungoa, uztailearen 10ean, 64 urte.
 Ana Lissardy, Sarakoa, uztailearen 19an, 90 urte.
 Gonzalo Errandonea Agirre, Berakoa, uztailearen 15ean, 29 urte.
 Angeles Alvarez Rueda, Berakoa, uztailearen 18an.

ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurttoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbiketarako produktuez betea, emango dizugu.

Ex aiantzi familiararen liburuak!



TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

Zurich Aseguruak

• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak

Lan aholkularitza

• Nomina eta Aseguru Sozialak

Aholkularitza fiskala

• Errenta Deklarazioak, IVA...

Inmobiliaria

• Baserri, borda, pisu, etabarren salmenta eta alokairua

Gestoria

• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO



Empresa colaboradora de



**Era guzietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO




JATETXEA

Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza



• Hileta artea



KALITATEA eta ESPERIENTZIA

- Marmol eta granitoak
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Lanak orokorrean

Zalduvia Poligonoa • IRURITA • Tel. eta faxa: 45 22 00

DATUAK.....

❖ Joxe Mari Apezetxea orain 70 urte sortua da Erratzun, eta gaur egun ere bertan bizi da, Zubietea etxean, hain zuzen ere.

❖ «Bere burua ezagutzen duenetik» omen du pintatzeko zaletasuna, baino margolaritzan lehen pausoak Jabier Ziga bere osabarekin eman zituen, 12 urte bertzerik ez zituela.

❖ Zenbait urtez aitaren tela negozioan lan egin ondotik, gehien maite duena egitera dedikatu zen, pintatzera.

❖ Aurtengo abuztuan hirugarren urtez segidan "Baztango paisaiak" margo ikastaroa zuzenduko du Tomas Sobrino elizondarrarekin batera.

TESTUA:
ASIER GOGORZA

✍ Joxe Mari APEZETXEA Erratzuko margolaria

"Paisaiak margotzeko estudiantik kanporat ateratzea beharrezkoa da"

ZU ZEUNE NOLA HASI ZINEN PINTATZEN?

Jabier Ziga izeneko osaba bat beraneatzera etortzen zen, eta harek eman zizkidan lehen klaseak, 12 urterekin.

TOMAS ETA BIEN ARTEAN ANTOLATU DUZUE "BAZTANGO PAISAIK" IKASTAROA, EZTA?

Bai, gan deneko bi urtetan egin dugu eta aurten hirugarrena izanen da. Ez da aunitz jende biltzen, 12, 13, 14 margolari aritzen gara soilik.

IKASTAROAN APUNTATZEKO ESPERIENTZIA MINIMO BAT BEHAR DA?

Ez, ez, gehienak hasiberriak dira. Batzuk badira beren etxeetan eta aritzen direnak, baina ez da prezeski behar, pintzela nondik hartzen den jakin ezker, nahikoa da.

ZEIN DA HELBURUA?

Bueno, apuntatzen direnek badute afizio puxket, baina ez dute usadorik kanpora ateratzeko, eta paisaia arrunta gauza heteroa denez, jakin behar da nola posizionatu, nola hartu paisaia bertatik. Lehenbizi kostatzen zaie ateratzea, baina gero gustu haundiarekin hartzen dute. Gaur egungo margolari aunitzek egiten dutena, paisaiari fotografia ateri eta gero etxeko estudioan sartzen di-



Aski margolari ezaguna da Joxe Mari Apezetxea Baztanen.

ra, eta paisaiak duen aberastasunetik aunitz galtzen da horrela lan egiten dutelarik. Hobe da, nere idurikoz, kanpoan egitea.

LEKU DESBERDINETAN EGITEN DUZUE SAIO BAKOITZA?

Bai, momentuan pentsatzen dugu, para dezagun, bihar Gartzainerat goazela, eta han bakoit-

zak hartzen du berari iduritzen zaion paisaia, eta egun horretan ez baita amaitzen hurrengo aterako uzten dugu. Ondoko egunean bertze leku batera gaten gara, eta hola...

IKUSITA BAZTAN ALDEAN SORTU DIREN PINTORE PILA, BAZTANGO ESKOLAZ SOLASTEN AHAL DELA USTE DUZU?

Ez, bakoitzak badu bere estiloa eta bere pintatzeko modua. Eta gainera ez dago beharrik, horrek pobretu bertzerik ez baitu egiten. Bakoitzak bere fakulta-

deak erabili behar ditu, berari hobeki zer zaion jakinda. Baina badaude pintore aunitz, bai.

ETA PUBLIKO BAT ERE BADAGO?

Bai, lehenagokotik oraingora diferentzia ederra dago. Gainera, denak harritzen dira nola saltzen diren koadroak Baztanen.

ZE TEKNIKA ERABILTZEN DA GEHIENBAT?

Denak oleoan ari dira, bakarren batek egin du noizbait ere akuarelakin edo pastelarekin (Ana Villoria) baino norma-lean oleora doazi.

► "Diferentzia ederra dago lehenagoko publikotik oraingora. Gainera, denak harritzen dira nola saltzen diren koadroak Baztanen."

DATUAK.....

1 Sortzez aranztarra bada ere, denbora luzez Almandozen eta, ezkondu ondotik, egun Arraiozen bizi da Patxi.

2 Gaztetan laisterka hasi zen eta geroztik herri kirolean hainbat espezialitate probatu ditu. Donato aizkolariaren anaia da.

3 42 urte laister beteko baditu ere, marka berriak egiteko asmoa ez du galdu. Berriki, txingaramaten egin du.

4 Mendi lanean aritzen da eta «entrenamendu onena hori dela» uste du.

5 Mindegia bezalako aizkolariarik ez dela sortuko uste du, «orain ez baitago lehen bezalako motibazio eta apusturik».

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
ARTXIBOA

➔ **Patxi LARRETXEA** Arraiozko herri kirolaria

“Herri kirolean gazteak laguntzarik ez badu, gibelerara egiten du aisa”

Marka berriak ezarri ez da aspertzen Patxi Larretxea eta Sanferminetan berri bat egin zuen Iruñean: Ehuna kiloko txingak esku banatan hartu eta 72 metro egin zituen, Nafarroako errekor berria (lehendik ere berak zuena). «Egun ona izan nuen—denak ez dira berdinak izaten— eta lortu nuen. Halere, zola egokiarekin, lautan hoge metrotik goiti egiten ahal dudala uste dut». Joan den urtean egin zuen marka 100 kiloko harri borobilarekin: 17 altxaldi bi minututan. Aurten ez du hobetzerik izan, baina Larretxea kirolari osoa dela erran daiteke. «17 urtetan hasi nintzen laisterka, gero mendian hasi nintzen lanean eta pixko bat utzi nuen, baina beti zerbait eginez. Aizkoran aritzen naiz, harriekin, txingetan...». Bakarka aritzeko kirolak badira ere, Arraiozko taldearekin ere parte hartzen du proba konbinatuetan, Euskal Herriko txapelketetan.

«ORAINDIK MARKA GEHIAGO EGITEA ESPERO DUT»

Mendi lanean aritzen da eta nahi baino asti gutiago izaten du entrenatzeko, «oporretan, asteburuetan eta horrelaxe, eguneroko ogia

▶ *“Gaztetan laisterka aritzen nintzen gustora. Denboraren poderioz gorputza azkartzen da, giharra indartzen da eta harria edo txingekin hobekiago moldatzen naiz”*



Ehun kiloko txingekin 72 metroan utzi du Nafarroako errekorra

lortu behar baita». Halere, beretzat «entrenamendu onena lana» dela uste du. Laister 42 urte beteko baditu ere, oraindik kirolean aritzeko gogoz nabari zaio arraioztarrari. «17-18 urtetan laisterka aritzen nintzen gustora. Gero, denboraren poderioz, gorputza aldatu eta az-

kartzen da, muskuloa indartzen da eta indar jokuekin hobekiago moldatzen zara, harria, txingak... Adin bakoi-tzak badu bere neurriko kirola».

Herri kirolaren etorkizunari dagokionez zailtzak ageri ditu Patxi Larretxeak. «Gazteak ez dira behar haina heldu, baina azaltzen dira pixkan-pixkan. Mindegia-aren semea, orain Doneztebeko Belarrafuerte heldu da, Erdozia... Halere ez dute laguntza haundiegirik eta gazte-

ak, esfortzuaren truke laguntzarik ez badu, gibelerara egiten du aisa. Aizkorak, halere, eutsiko dio oraindik. Indar gehiago behar diren kirolean, harri tikiak eta, bajuxeago ikusten dut». Kirolari onenen izenak galdetzerakoan ez ditu duda aunitz agertzen Patxi: «Aizkoran Mindegia izan da onena, dudik gabe. Harri tikietan, Zelai, Ize-ta... eta haundietan berri-ri, zaila da inoiz Perurera eta Saralegi bezalakorik azaltzea». ■

Mikel Saralegik ezin izan zuen 327koa altxatu Ezkarotzen

- Bizkarreraino ongi joan bazen ere, han ez zuen berdintzerik izan
- Udako erakustaldien ondotik, udazkenean hasiko da lanean berriro

Uztailaren 19an Ezkarotzen egin zuen Mikel Saralegik Munduko errekorra hobetzeko aurtengo azken saioa eeta, ekainaren 8an Gasteizen gertatu bezala, ezin izan zuen 327 kiloko harria bizkarrean berdindu. Leitzarrek adierazi zuenez, «indarrez ongi nengoen, ez muen beldurrik harriaren aurrean eta lehen-dabiziko segunduetan ongi dominatu dut. Bizkarrean nuenean, ordea, ezin izan dut palankarik egin eta joan zait». IBigarren saioan ez zen hain ongi ibili: «Urdu-ritu nintzen, indarrez juxtuaren nabilela ikusi muen eta ezin izan dut harria kontrolatu». Urria edo azaroa aldean hasiko omen da berriro lanean, 327koa impenperatu dezakeen ikusteko. Lortzen ez bada ere, bere palmaresa iikargarria da.

Mikel Saralegi: Mugaren bila

Gaztetan ikasia...

13 urterekin	100 kilo altxatu zituen
17 urterekin (Lekunberri)	200 kilo altxatu zituen
17 urterekin, Euskadiko 6 Orduetan	215 kilo altxatu zituen
18 urterekin (Leitza)	225 kilo altxatu zituen
18 urterekin (Leitza)	250 kilo altxatu zituen

...inoiz ez ahazten

1991-XII-06	Leitza	291 kilo	
1991-II-23	Leitza	300 kilo	
1992-III-23	Donostia	303 kilo	
1992-IV-05	Azpeitia	305 kilo	
1992-XII-27	Donostia	307 kilo	
1993-III-05	Leitza	310 kilo	
1993-III-20	Berastegi	312 kilo	
1993-IV-29	Tolosa	320 kilo	Munduko errekorra
1995-III-26	Alonsotegi	321 kilo	Munduko errekorra
1995-IV-09	Anoeta	322 kilo	Munduko errekorra
1996-III-10	Leitza	323 kilo	Munduko errekorra
1996-V-26	Dima	324 kilo	Munduko errekorra
1997-II-15	Donostia	325 kilo	Munduko errekorra
1997-IV-18	Beasain	326 kilo	Munduko errekorra
97-VI-8, VII-19	Gasteiz-Ezkarotz	327 kilo	Ezin




❖ **Basket 3x3 txapelketa Beran**
Ortiziral honetan, abuztuak 1, jokatu-ko da Berako poliki-roldegian 3x3 saski-baloi txapelketa. Parte hartu nahi dutenek bertara agertu edo 630215 telefonora deitu.

❖ **Rafa Maritxalar**
korrikalari lesakarra zortzigarren sailkatu da Espainiako 1.500 metroko txapelketan. Fermin Cacho, Bartzelonako txapeldun olinpikoa parte hartzerik izan ez bazuen ere, maila ona izan zen Adidas taldeko Reyes Estevezez irabazitako proban.

❖ **Patxi Astibia**
aizkolari leitzarrek ongi merezitako omenaldia jaso zuen Ezkarotzen, Saralegiren errekor saioaren ekitaldiaren barnean. Ezkarotzko herriak herri kirolaren alde egindako lana eskertuz plaka eman zion eta Astibiai aikora eman zion alkateari, trukean. Bere solasaldian, kirol honetarako dirulaguntza gehiago eskatu zituen, «dextente garestia delako».

❖ **Igeriketa txapelketak**
Uda garaian sartuta, pisinetako konpetizioak hasi dira. Lehena, abuztuaren 5ean, asteartea, goizeko 11,30etatik aitzinera burutuko da Berako igerilekuean, herriko XI. igeriketa txapelketa, Gure Txokoak antolatua eta haur eta gazteei zabaldua.



Arantzarra eta zubietarra, azken enborrean Egin

Larretxea eta Jaunarena dira Nafarroako binakako aizkolari txapelketako irabazleak

Arantzako Donato Larretxeak eta Zubietako Antonio Jaunarenak irabazi zuten uztailaren 14an Nafarroako binakako aizkolari txapelketa. Lehen enborretik aitzinean jarri ziren eta nagusi izan ziren proba osoan, nahiz eta Donatok aikora kirtena xehetu, segundu batzuk galduz. Hamabi enborrak mozteko 23' eta 27" behar izan zituzten. Bigarren postuan, Ezkurako Mikel

Mindegia eta Olagueko sailkatu ziren, minutu eta 2 segundura, eta hirugarren Etxarri Aranazko Floren Nazabal eta Sunbillako Felix Etxeberria, 3 minutu eta 42 segundura. Pago-enborreko sei kanaerdiko eta 60 on-tzako bertze horrenbertze moztean izan zuten lana. Nafarroako txapelketa nagusiaren finalean aritu ziren bostz aizkolariak eta Jaunarena aritu ziren.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

BERA

► **Abuztuaren 2tik**
6ra Xehetasunak gehigarrian.

LEITZA

► **Abuztuaren 10etik**
15era Xehetasunak gehigarrian.

SUNBILLA

► **Abuztuaren 10etik**
14ra Xehetasunak 18. orrialdean.

BEINTZA-LABAIEN

► **Abuztuaren 2tik**
6ra Xehetasunak 19. orrialdean.

GAZTELU

► **Abuztuaren 2tik**
6ra Xehetasunak 19. orrialdean.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Abuztuaren 2an**
Cultur 97 egitarauaren barnean artisauek erakusketak merkatu plazan, arratsaldeko 6,30etan.

MUSIKA

BERTIZ

► **Abuztuaren 2an**
Cultur 97 egitarauaren barnean Sarasate laukotea, 12,30etan eta arratsaldeko 6tan.

ELIZONDO

► **Abuztuaren 7an**
Cultur 97 egitarauaren barnean Ganbara musika taldea Kultur Etxean, ilunabarreko 8,30etan.

LEITZA

► **Abuztuaren 9an**
gaueko 10etan, herriko pilotalekuan, Benito Lertxundi bakarlariaren saioa izanen da.

AGENDA PRAKTIKOA

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.800 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 203 pta./kilo
- **Zerramak**: 140 pta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak**
 - **Idixkoak**: Pta./kg. Kanal
- | | |
|-------|----------|
| Extra |510 |
| 1.koa |490 |
| 2.koa |450 |

- **Urruxak**: Pta./kg. Kanal
- | | |
|-------|----------|
| Extra |520 |
| 1.koa |490 |
| 2.koa |460 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze tikiak**
(15 egun inguruak):
- **Nabarrak**: urruxak 16.000 eta idixkoak 25.000 Pta.
- **Mestizoak**: urruxak 25.000 eta idixkoak 35.000 Pta.

- **Behi zaharrak**:
Behi nabar gizona: 340 Pta./Kg.
Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg.
Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE



Baztan aldean sekulako zaletasuna dute zikiroa erre eta bazkari nahiz afaritarako prestatzen.

HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

On egin!!!

Aski ezaguna da euskaldunok zorroa asetzeko dugun afizioa, eta gauza gutti maite dugula gehiago ongi jan eta edatea baino. Herrietako bestak dira, du darik gabe, debildade horren erakusgarriak garbienak. Nonahi antolatzen diren bazkari herrikoi, zikiro jate, gosari eta gainontzeko otorduez betebeterik daude bestetako egitarauak.

Baztanaldean zikiro-jateak izaten du fama aunitz: Zigan, abuztuaren 12an, bestetako azken egunean bazkaldu eta afaltzeko menu berdina izanen dute; zikiroa. Eta horrela Baztango herri gehienetan.

Bertze lekuetan zikiroa ez, baina herri bazkariak aipatu ditzakegu; Leitzako bestetan, Gestorek bezpera egunean antolatzen dutena dago, bateatik, eta Aurrerako bazkideek ere urteroko zita izanen dute Labetxen.

Bertze herrietan ere otorduak ez dira faltako, eta jan eta edateaz aparte behar bezala girotzeko balio baldin badute, askoz hobea!

LIBURUAK



«Ene dama maite horri»
Xabier Mendiguren
ELKAR

Elkar argitaletxeak hainbat liburuskari karrikatu ditu *Enbido Txikira* sortaren baitan. Udaldean irakurtzeko aproposak iduri duten liburu meheak dira guztiak, eta herrietako bat duzu Xabier Mendigurenen 5 ipuineko bildumatxo hau. Kontu arinak, 57 orri soilik betetzen duten ixtorio bitxiak ekarki dizkigu oraingoan idazle gipuzkoarrak. Irabaziak haunditzeko bideo pornoak jartzen dituen taber-

nari bat, maitasunezko eskutitzak idazten dituen postaria, pintore txar bat gaintik nola kendu ez dakien kultur arduradun bat... eta halako egoera xelebreetan suertatzen diren pertsoniak dira ipuinetako protagonistak.

Ohitura edo zaletasun haundirik ez duenak ere gustora leituko dituen pasadizoak, du darik gabe, eta gainera merke-merke eros daitetzkeenak, aizu!

Erretzeari uzteko metodoak

Ez da gure intentziora inor izitzea, baina Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) eman dituen datuak kezkatzeko modukoak direnik ez diguzue ukatuko. Errate baterako, munduan pertsona bat hiltzen dela 10 segunduro tabakoaren kontsumoagatik; edo erretzen duten hiru pertsonatik batak tabakoak eragindako minbizia jasaten duela; edo tabakoak heroinak baino borts aldiz adikzio gehiago sortzen duela...

Egia da, bertzalde, hoiek datu soilak bertzerik ez direla, eta norberak nahi duen huraxe egiten ahal diola bere buruari. Halere, erretzailerak aunitz dago tabakoa utzi nahian, eta diren eta ez diren sistema guztiak erabili izanagatik ere, adikzioa ezin gaindituz ibilki direnak.

Zer egin tabakoa uzteko?

Horretarako metodo desberdinak dauden arren, jakin badakigu erretzeari uztea arraz zaila dela egitan,



Erretzean arnasketa sistemari ematen diogu kalte gehien.

eta borondate izugarria bildu behar dela.

Nikotina bertze sustantziekin ordezkatzeko izaten da ohiko sistema, arruntena; sudurretako espraia, txiklea edo txaplatak (partxea) erabiltzen dira gehienetan. Baina erretzeko ohitura -erretzeko keinua egitearen beharra- ere gainditu behar da

aldiberean, eta laguntza psikologikoa hartzea garrantzitsua da kasu honetan. Bi metodo hauek konbinatzen dituzten artean %40ak bartz bertze lortzen dute erretzeari uztea.

Akupuntura edo laserpuntura ere hagitx eraginkorra omen da, eta %80ko efikazia du praktikatzen dutenen iritziz, baina orratzak ziztatzen ibiltzea ez da jende aunitz gustoko afizioa.

Badira bertze metodo batzuk ere, hipnotikoa, psikologikoa... baina hauei sinisgarritasun gutti (%10) ematen diete adituek.

Azkenik, tabakoaz nardatuta erretzeari uztea ere izan daiteke, eta horretarako erre eta erre egin behar da, nazkanazka eginga bukatu arte.

Tabakoak heroinak baino borts aldiz adikzio gehiago sortzen duela...

DISKAK



«RIP»
Bertsioak
SHOT!

Arrasateko talde mitikoaren 17 kantu bertsiatuta dituzte Euskal Herri osoko beste hainbeste taldek; DUT, Anestesia, El Desván del Macho, Nuevo Catecismo, Mo'mau eta Patagonia dira, beharbada, CDan dauden artean ezagunenak. Izan ere, RIP eta RIPeko partaideei omenaldia eskeintzeaz gain, hazten ari diren taldeak bultzatzea baita disko honen helbu-

ru nagusia.

Grabaketaren berexitasuna, bertetik, estilo nahasketan datza, talde bakotzak bere estilora moldatu dituelakoz RIPen punk doinuak. Inoiz karrikaratu ez zen *Grito España* kantua, euskaratutako bi bertsiok eta Karlos *Mahoma* RIPeko abeslariaren kolaborazioa dira diskoak gordetzen dituen bertze sorpresa batzuk.

AGENDA EGUNEZ EGUN

OSPAKIZUNAK

ATHARRATZE

► Agorrilaren 3an

Atharratze jauregian, bigarren aldiz emanen dute aurtengo pastora-la.

IKASTAROK

ELIZONDO

► **Tai Chi Chuan** arte txinatarrari buruz ikastaroa izanen da abuztuaren 1etik 15era, Xabier Belzunegi maixuaren eskutik. Izena emateko, deitu 580702 telefonora.

ERAKUSKETAK

LESAKA

► Abuztuaren osoan

Bereau Hotel-Jatetxean Pilar Oñederra margolari elgoibartarraren pintura erakusketa.

GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfñora. deitu behar da

► Uztailaren 28tik abuztuaren 3ra

Igantzi, NARBARTe, ELIZONDO (Lezaun), URDAZUBI, LEITZA, GOIZUETA.

► Abuztuaren 4tik 10era

LESAKA, DONEZTEBE, ELIZONDO (Iturralde) eta GOIZUETA.

► Abuztuaren 11tik 17ra

BERA, SUNBILLA, LABAIEN, ELIZONDO (Lezaun) eta GOIZUETA.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko 948-Iparraledetik 00-34-48

631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak

- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Salerosketak
- 602. Emateko
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

ELIZONDO. Pisua salgai, Santiago karrikan. Hiru logela eta sabaia. ☎ 581179.

BERA. Pisu duplexa salgai. Hiru logela, sukalde berria, jantokia, egongela, bainua, aseoa, atiko ederra, garaje eta baratzea (80m2). ☎ 631353 (gaueko 10etatik aurrera).

BERA. Pisu eguzkitsua salgai. Sukaldea, bi bainu eta gela bat mobleztatuak. Bertzeak ez. Ganbararekin. ☎ 630466.

BERA. Pisua salgai Age-rran, merkea. Hiru logela, bainua eta komuna, sukalde berriztatua, egongela eta trasteroarekin. ☎ 631305.

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

BURLADAN. Pisua errentan emanen nuke, lau lagunendako. ☎ 453110.

ETXEBIZITZAK

104 ERRENTAN HARTU

BERAN edo **LESAKAN** pisu bat errentan hartuko nuke. ☎ 452494 (gaueko 9,30etatik 10etara).

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

Neska bat behar da pisua osatzeko Iruñean, unibertsitatetik hurbil. ☎ 450832.

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

LESAKA. Lur azpiko bajera errentan emanen nuke. ☎ 637948.

LURRAK/ORUBEAK

112 SALDU

SUNBILLAN. 20 m²ko iratzelaia salgai. Metro karra-tua 100 pezetatan. ☎ 580228.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

ARANTZA ZURGINDEGIA

Jose Miguel Errandonea

Klase guztietako zurgin lanak

Osiña auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

LANA

301 ESKARIAK

Euskara titulua duen euskal filologiako ikasle batek euskarazko edo OHOKO edozein ikasgaietako eskolak emanen lituzke. ☎ 580439 (edozein ordutan).

Neska batek Lesakan etxe-ko lanetan edo haurrak zaintzen lan eginen luke. ☎ 631188.

Neska batek haurrak zaindu eta etxe-ko lanak eginen lituzke, kanguro gisa ere lan eginen nuke. ☎ 635081.

Emakume batek Doneztebe edo Elizondo aldean etxe-ko lanak egiten lan eginen luke. ☎ 450923 (deitu arratsetan).

Bortzirietan, mendi garbitzen edo plantazioak egiten lan eginen nuke. ☎ 637853.

Haurrak zainduko nituzke Bera edo Lesakan, udan edo kurtsoan zehar. Espe-rirentziarekin. ☎ 631040.

Neska bat etxe-ko lanetan edo haurrak zaintzen ariko

litzateke. 10 urteko espe-rirentzia. ☎ 627513 (Rosa).

Kristal garbiketak egiten dira. ☎ 453106.

Masaje bat behar baduzu, deitu 453106ra. Kiromasa-jista eta naturopata naiz. Gorostapolo (Iruin base-ria).

LANA

302 ESKAINTZAK

AU-PAIR bezala Irlandara joan nahi duen pertsona ba-ten bila gabiltza, han estu- diatu eta lan egiteko auke- rarekin. Abuztutik aurrera, nahi hainbertze denbora. ☎ 630946.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Renault Express 1.6 Die- sela salgai, komertzial era- koa. 130.000 pezeta. SS- AL. ☎ 630047 (Mikel, eguerdi edo gauez).

Rover 216 salgai, SS-AC eta 100.000 km. Egoera ezinhobean. ☎ 630047 (Mi- kel, eguerdi edo gauez).

Audi SAMPI

Bigarren eskuko autoak salgai. Gasolina eta diesel.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

Renault 21 TD salgai. SS- AB, egoera onean. ☎ 630618.

Renault 5 salgai. Bost ate, 75.000 pzt. ☎ 943-278463.

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

- Renault Expres diesel eta gasolina.
- Suzukiak: Samurai eta Vitara

Ford Orion 1.6 CLX xuria salgai. NA-AB matrikula eta oso egoera onean. ☎ 630-946 (7,30etatik 8,30etara).

Peugeot 309 TD salgai, NA-AB eta oso egoera one-


ttipi-ttapa

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 631188



Bidali TTIPi-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gustuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

☎ 631188

an. Haize egokituarekin. ☎ 510588 (9etatik aitzin).

NISSAN BERABI tailerrak

Bigarren eskuko kotxeak:

Nissan Patrol, NA-P
Nissan Patrol Top-Line

Honda Dominator motoa salgai, egoera onean (39.000 km.) ☎ 631481.

Traileko motoa salgai, Gilera Dakota 500, 13.000 km. eta hagitz ongi dago. ☎ 943-627748 (Agustin).

Yamaha YZ motoa salgai, 1996 urtekoa. Berri-berria dago eta extra aunitzekin. ☎ 630766 (Jose M^a).

Honda CRE 250 motoa salgai, matrikulatua. ☎ 630766 (Ramón).

Peugeot 306 S 16 salgai, 1995 urtekoa, extra guziekin. ☎ 630766 (Jose M^a).

ANIMALIAK

601 SALEROSKETAK

Basurde ehiziko zakurra salgai, sabueso eta podenko arrazakoa eta 8 hilabetekoa. ☎ 634066.

Bi behi grisak salgai, beren umeeekin. ☎ 637472.

Behi suizoak salgai, hiru urtekoa. ☎ 635188. Eguerdian edo arratsean.

Ehizi zakurra salgai, Bruno Jura arrazakoa eta erbitan dakiena. ☎ 450473.

Collie arrazako zakurkumea salgai. ☎ 453207 (eguerdian eta arratsean).

Basurde ehiziko 5 txakurkume salgai. ☎ 908-777774.

ANIMALIAK

602 EMATEKO

Ardi-zakurkumea oparitu-ko nuke. ☎ 630766.

Pekines arrazako 3 pekin-nes zakur oparitu-ko genituzke. ☎ 615084.

DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Urrezko eraztuna galdu dute Lesakako Plaza inguruan, San Ferminetan. ☎ 637064.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Egurrezko sukalde-kale-faktorea salgai. ☎ 631422 edo 450242.

LEITZA. Kooperatiban dagoen janari-denda salgai daukat. ☎ 510167.

Aspes markako sekadora salduko nuke, 5 kiloko kapazidadea, duela 4 hilabete eresia. Egoera onean. 24.000 Pta.. ☎ 631489.

Sala bateko mobleak salgai (ohatze tolesgarria, eta armarioa bere estanteekin). ☎ 450338.

Ikuluko parrillak erosiko nituzke, bigarren eskukoak, sei parrila eta neurria m²koak. ☎ 513068.

DENETARIK

703 BERTZELAKOAK

200 litroko gasoil depositoa oparitu-ko nuke. Burnizkoa eta egoera onean. ☎ 631239.

HARREMANAK

801 AGURRAK

Ezkurrako Jaione Zabalori: Zorionak uztailaren 18an urteak bete dituzulako. Zure familiaren partez, eta batez ere lagun baten partez.

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo nahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Maitane Juantorena
Eskudero: 17 urte egin ditu uztailaren 24an. Zorionak Txanpainan esperoan gaude.



Julen Aranburu Berrueta
exalartarrak 7 urte bete ditu uztailaren 25ean. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



Joseba Aranburu Berrueta
exalartarrak 23 urte bete ditu uztailaren 29an. Zorionak familiaren partez.



Asunción Elizagoien
exalartarrak abuztuaren 7an beteiko ditu urteak. Zorionak zure familiaren partez.



Aitziber Iturria Garmendia
beratarrak 12 urte egin ditu uztailaren 30ean. Aunitz urtez, etxekoan partez.



Mikel Iniguez
beratarrak abuztuaren 11n beteiko ditu 8 urte. Guraso eta arrebairen partez, muxu handi bat.



Oier Iturria Razkin
exalartarrak 2 urte bete ditu uztailaren 23an. Zorionak aita eta amaren partez.



Ion Jorajuria Elizondo
arantzarrak 5 urte beteiko ditu abuztuaren 5ean. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



Javier Etxeberria Balda
ezkurrarrak 12 urte beteiko ditu abuztuaren 4an. Zorionak familiaren eta bereziki Monikaren partez.



M^a Angeles Rodriguez Lasarte
ezkurrarrak uztailaren 30ean beteiko ditu urteak. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.



Amaia Eneterreaga
lesakarrak zortzi urte bete ditu. Zorionak Lesaka eta Goizuetako familiaren partez.



Unai Rey Ortiz
beratarrak 4 urte beteiko ditu abuztuaren 14an. Zorionak eta muxu bat familiaren partez.

OHARRA:

Argazkia urtebetetze egunetik ahalik eta hurbilen ateratzeko, tenorez bidali behar diguzue guri. Ahal bada, urtebetetze eguna baino 20 egun lehenagotik.



Maialen Oteiza Iribarren
oronoztarrak 4 urte beteiko ditu abuztuaren 11n. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



Zorionak eta aunitz urtez,
Antxoka! Ea zure errana bete eta txanpain kopatxo bana gonbidatzen diguzun. Ikusi arte! L.M.I.

Lesakako Juan Jose Guerrierori: Eskutiz hau Lesakan paratu genuen kanpinetik idazten dizut. Zurekin maitemindurik nago. Hagitz ipurdi pollita duzu eta oso majua zara. Liluraturik naukazu. Ikusiko dugu elkar Berako bestetan. Lesakako Sanferminetan nahiz eta mozkorra egon oso ongi portatu zinen nirekin. Laura Ogimeta (irundarra).

Etxalarko Asunción Elizagoieni: Zorionak eta muxu handi bat bere urtebetetzean, abuztuak 7. Zure

billoben partetik; Asier, Nagore, Aritz eta Oier.
Etxalarko Ana M^a eta Le-

sakako Jose Manueli zorionak ezkontzea erabaki duzuelako.

internet

Hamabostero paperean eta mundu zabaleko ordenagailuetan

<http://www.encomix.es/ttppi-ttapa>
Posta Elektronikoa: ttppi@encomix.es



Argazkiak berreskuratu nahi badituzue, bidali zuen helbidea eta selloa ere, edo mahiago baduzue pasatu gure bulegotik.



Aritz Jaurena
Atxa elizondar-
rrak urteak bete
ditu uztailaren
29an. Zorionak
eta muxu handi
bat ama eta
arrebaren partez.



Julen Iturralde
Torres irurita-
rrak 2 urte bete
ditu uztailaren
20an. Zorionak
eta muxu handi
bat familia
guziaren partez.



Maria Torres
Ustariz elbete-
arrak 15 urte be-
teko dituzte abuztu-
aren 18an. Zorio-
nak familia guzia-
ren partez. Segi
orain bezain alai!!



Irantzu
Mitxelena
Mariezcurrrena
34 urte bete ditu
uztailaren 31n.
Zorionak Mari
Karmen, Andoni
eta Beatrizen
partez.



Joxe
Maritorenak
34 urte bete ditu
uztailaren 31n.
Zorionak Mari
Karmen, Andoni
eta Beatrizen
partez.



Eguzki
Irigoien
Juanena
donamariarrak 8
urte beteko dituzte
uztailaren 9an.
Muxu handi bat
famiiliaren partez.



Eñaut
Iparragirre
Zinkunegi
etxalartarrak 4
urte bete dituzte
uztailaren 27an.
Zorionak eta ongi
pasa. Aita eta ama.



Ainhoa
Mihura
urdazubiarrak 16
urte bete dituzte
uztailaren 18an.
Zorionak lagun-
en partez eta aunitz
urtez.



Ane eta Idoloa Iparragirre
Oiartzabal irundarrek 6 urte bete
dituzte uztailaren 27an. Oihane eta
famiiliaren partez muxu handi bat.
Zorionak.



Alaitz
Arribillaga
beratarrak 9 urte
egin dituzte
uztailaren 26an.
Zorionak
Martxelen partez.



Asier
Calderónek 7
urte beteko dituzte
abuztuaren
10ean. Zorionak
gurasoen eta
anaiaren partez.



Txus Solana
beratarrak urteak
bete dituzte
uztailaren 12an.
Zorionak
famiiliaren partez.



Pedro Irigoien
Iraola beratarrak
datorren abuztu-
ak 10ean beteko
dituzte 67 urte.
Zorionak emazte,
seme eta Aintza-
neren partetik.



Mikel Sanz
Serrano iruin-
darrak 10 urte
bete dituzte
uztailaren 13an. Zorio-
nak Bera eta Eli-
zondoko lehen-
gusuen partez.



Lourdes
Indaburu
etxalartarrak
uztailaren 18an
bete dituzte urteak.
Zorionak lau
txirrixoren
partetik.



Teresa
Irigoien
etxalartarrak
uztailaren 3an
bete dituzte urteak.
Zorionak
famiiliaren partez.



Miguel
Mitxelena
Bazterrika
sunbildarrak
uztailaren 15ean
bete dituzte urteak.
Zorionak
famiiliaren partez.



Mario
Mitxelena
Bazterrika
sunbildarrak
uztailaren 22an
bete dituzte urteak.
Zorionak
famiiliaren partez.



**Xabier Azku-
ne Zabalo**
irundarrek 8 urte
bete dituzte
uztailaren 19an. Zorio-
nak eta muxu
bat. Jose Luis,
Junkal eta Iba.



**Iñaki Telle-
txea Iribarren**
doneztebarrak 9
urte bete dituzte
uztailaren 13an.
Zorionak bere
anaia eta
gurasoen partez.



Iñigo Etxegia
oiartzuarrek 9
urte bete dituzte
uztailaren 19an.
Zorionak
Goizuetako
famiiliaren partez.



**Mertxe Aniz-
zar** lesakarrak
32 urte beteko
dituzte abuztu-
aren 7an. Zorionak fa-
miliaren eta bere-
ziki Ameriketako bi
osaben partez.



Nieves Iriarte
lesakarrak 59 urte
beteko dituzte
abuztuaren 4an. Zorio-
nak bere seme-
alaba, senarra eta
Ameriketako bi
anaien partez.



Olga Ramos
lesakarrak 23
urte beteko dituzte
abuztuaren 4an.
Zorionak zure
lagunen partez.



Ainhoa Goñi
beratarrak
uztailaren 29an
bete dituzte urteak.
Zorionak Nahia
eta Joanesen
partez.



Xabier Azkune
Zabalo berata-
rrak uztailaren
19an bete dituzte 8
urte. Zorionak
eta muxu handi
bat Ezkurkako
famiiliaren partez.



**Garbiñe Larra-
de Urkijo**
lesakarrak urte
gutxi batzuk bete
dituzte uztailaren
19an. Zorionak
Lesakako
Salvadoreñari!



Argiñe Ordoki
Urkijo lesakarrak 19
urte egin dituzte
uztailaren 23an.
Zorionak
Sorgiñe!!



Mikel
Mindegia
Ugarte
arraioztarrak 7
urte beteko dituzte
abuztuaren
15ean. Zorionak
famiiliaren partez.



Eneko
Martinez
Fagoaga
beratarrak 5 urte
bete dituzte
abuztuaren
10ean. Zorionak
Xabat, Janire eta
gurasoen partez.



**Jon Ander Za-
pian Azpiazu**
beratarrak 5 urte
beteko dituzte
abuztuaren
10ean. Zorionak
Xabat, Janire eta
gurasoen partez.



Arantxa
Gamio Igoa
berroetarrak 12
urte bete dituzte
uztailaren 28an.
Zorionak
Josuneren partez.



Romy
Bikondoa
elizondarrak 34
urte bete dituzte
uztailaren 19an.
Zorionak bere
famiiliaren partez.



Gaizka Silveira
Etxeberria
lesakarrak 13
urte beteko dituzte
uztailaren 25ean.
Zorionak ama,
izeba eta anaien
partez.



Argi Agara
Salaberri eta **Maddi**
Sese Agara berata-
rrak 10 eta 5
urte beteko dituzte,
abuztuaren 6 eta
10ean. Zorionak Argi,
atta eta amaren
partez. Zorionak amatto-
ren partez, Maddi.



Marisol
Otxoteko
lesakarrak 27
urte egin dituzte
uztailaren 14an.
Zorionak familia,
Juanmari, Oihan
eta Jonen partez.



Fermin
Maritorenak
Larralde
beratarrak urteak
beteko dituzte
abuztuaren 1ean.
Zorionak familia
eta iloben partez.



Joxe
Maritorenak
Larralderi
zorionak Berako
famiiliaren partez,
eta batez ere
bere bi iloben
partez.



Antonio
Maritorenak
Larrosa berata-
rrak abuztuaren
10ean urteak
beteko dituzte.
Zorionak familia
guziaren partez.



Sara Maritorenak
Salaberri
igantziarrek urtea
beteko dituzte
abuztuaren 5ean.
Zorionak attatto,
amatto eta Argu-
neren partez.



Joseba
Loiar
Mitxelena
2 urte beteko dituzte
abuztuaren 4an.
Zorionak
famiiliaren partez.



Unai
Mariezcurrrena
Ursuegi
urrozarrak 4
urte beteko dituzte
abuztuaren
30ean. Zorionak
famiiliaren partez.



Joseba Loiar
Mitxelena
iruritarrek 2 urte
beteko dituzte
abuztuaren 4an.
Zorionak Urda-
zubi eta Iruritako
famiiliaren partez.



Iratxe Ariztia
urdazubiarrak 17
urte bete dituzte
uztailaren 22an. Zorio-
nak zure koa-
drilakoen partez
eta ea txanpainaz
ateratzen duzun!



Matiesa
Aleman
Maskotena
67 urte bete dituzte
uztailaren 25an.
Zorionak familia
guziaren partez.



**Juan Luis Ola-
garai Arriada**
zugarramurdiarrak
6 urte beteko
dituzte abuztuaren
4an. Zorionak eta
muxu handi bat
famiiliaren partez.



Jon eta Ander Aitzuri
Arretxea sunbildarrek uztailaren
23an bete dituzte 9 urte. Mila muxu
famiiliaren partez.

MUEBLES AMETS

mobleak orokorrean

Bidasoa 45-60
Tfnoa: 948-630537



Finantziazioa zure neurrira



Mahaia* eta 4 aulki

*110x70 zabalgarria



33.900
pezeta

*Besta
Zoriontsuak*



GAN NAFARROAKO AURREZKI KUTXA